

iNu

euskara hermeneutika

uTu

eRra

iLu

no/to

aS

Ba

Ka

Felix Zubiaga

*Liburu honek Bizkaiko Foru Aldundiko
Kultura Sailaren diru laguntza izan du*

© Felix Zubiaga Legarreta

Azalaren diseinua eta maketazioa: Felix Zubiaga Legarreta
Ekoizpena: Erroteta - www.erroteta.com

ISBN: 978-84-96536-98-2

Lege Gordailua: SE-5821-2007

Inprimaketa: Publidisa

Liburu honen bertsio elektronikoa deskargatzeko:
<http://www.todoebook.com/Erroteta/>

Autorearekikoa (para dirigitse al autor)

Teléfono: 94 673 04 86./48340-Amorebieta, Orue (Bizkaia)
edo/o felixzubiaga@orue.biz

euskara,
hermeneutika

Felix Zubiaga

AURKIBIDEA

SARRERA.....	9
I. HERMENEUTIKA LANA.....	11
1.1. Jatorrizko hitzaren bila.....	11
1.2. Hermeneutek egiaren ikerle.....	13
1.3. Hitzak sortzeko gizakiak egin zuen ariketa.....	16
1.4. Hermetismoa eta hizkuntzaren magia.....	18
1.5. Eskera/euskera, iskiriatu/segeretu.....	21
1.6. Hitza erritoaren ararteko.....	24
1.7. Hermeneutika, teknika eta euskara.....	26
1.8. Mitoa mintzoa: hasera eta azaga.....	32
ONDOREA.....	34
II. IZADIKO ELEMENTUAK ETA GIZAKIA.....	35
2.1. Lehen kosmologia eta teologia.....	37
2.2. Errittoa edo aldizko ospakizuna.....	40
2.3. Jainko izenak hitzaren arketipo.....	44
2.4. Giza konplexua hitzaren arketipo.....	48
2.5. As gizako konplexuren osapidea.....	51
ONDORENA.....	54
III. ONOMASTIKAREN SORGUA.....	55
3.1. Hiztegi sareen emendioa	56
3.2. Arketipoen kategoria.....	59
3.3. Analogiaren gida.....	61
3.4. Aditzaren erroak eta adarrak.....	63
3.5. Sinonimien ugaria.....	65
3.6. Hitzaren gizakundeia.....	67
3.7. Hitzaren garapena?.....	70
ONDORENA.....	73

IV. TOKIZENEK HISTORIAREN BERRI.....	74
4.1. Lurraren norabideak.....	76
4.2. Arketipoen dantza izendegian.....	79
4.3. Arketipoen igadura izendegian.....	81
4.4. Gory Ahagar-etik Karakorun-era.....	83
4.5. Izanik gabeko indoeuropeismoa.....	86
ONDOREA.....	89
V. TOKIZENEN EGITURA ETA BIZTANLEAK.....	90
5.1. <i>Inu/An</i> uneak eta endak.....	91
5.2. <i>Utu</i> tokiak eta etorkiak.....	92
5.3. <i>Erra</i> areak eta ariak.....	94
5.4. <i>Ilu</i> lekuak eta leinuak.....	95
5.5. <i>Ka</i> egoitzak eta kastak.....	96
5.6. <i>Ba</i> baitak eta biztanleak.....	97
5.7. <i>As</i> etxeak eta jendeak.....	99
ONDORENA	101
VI. HITZEN OSAGARRI ATZIZKIAK.....	102
6.1. <i>An</i> arketipoaren atzizki-aurrizkiak.....	103
6.2. <i>Utu</i> arketipoaren atzizki-aurrizkiak.....	105
6.3. <i>Erra</i> arketipoaren atzizki-aurrizkiak.....	107
6.4. <i>Ilu</i> arketipoaren atzizki-aurrizkiak.....	109
6.5. <i>Ka</i> arketipoaren atzizki-aurrizkiak.....	110
6.6. <i>Ba</i> arketipoaren atzizki-aurrizkiak.....	112
4.7. <i>As</i> arketipoaren atzizki-aurrizkiak.....	113
ONDOREA.....	115
VII. JOSKERAREN LEKUKOTASUNA GRAMATIKAN.....	116
7.1. Oihuzko esamoldeak.....	116
7.2. Lokarri bako esamoldeak.....	117
7.3. Lokarri soileko esakuna.....	119
7.4. Aditizenen lokarriak.....	120
7.5. Oihuzkotik gramatikazko esakunera.....	120
7.5.1. <i>An</i> aditizenduen joskeran.....	123

7.5.2. <i>Utu</i> aditzizenduen joskeran.....	124
7.5.4. <i>Erra</i> aditzizenduen joskeran.....	125
7.5.4. <i>Ilu</i> aditzizenduen joskeran.....	127
7.5.5. <i>Ka</i> aditzizenduen joskeran.....	128
7.5.6. <i>Ba</i> aditzizenduen joskeran.....	130
5.5.7. <i>As</i> aditzizenduen joskeran.....	132
ONDOREA.....	133
ONDOREAK.....	134
TOKI-IZENEN KONPOSIZIO ETA ERATORRIEN HIZTEGIA	136
BIBLIOGRAFIA.....	140

1° laburgoa: Oihuzkoak zazpi arketipoen arabera.....	17
2° laburgoa: Gonbaratzekoen analogia arketipoen arabera.....	27
3° laburgoa: Esan izen eta aditzak arketipoen arabera.....	47
4° laburgoa: Izenorde eta erakusleak arketipoen arabera.....	66
5° laburgoa: Atzikiak arketipoen arabera.....	106
6° laburgoa: Aurrizkiak arketipoen arabera.....	108

SIGLEN IRAKURKETA

(eu) euskera, (s) sumeriera, (a) akadiera, (ur) urartiera, (hur) hurritera, (et) etiopiera, (e) egiptiera, (u) ugaritiera, (ar) arameera, (arb) arabiera, (ber) bereberera, (h) hebreera, (sa) sardoera, (gu) guenchera, (g) greke-rao, (l) latinera, (f) frantxera, (it) italiera, (ca) catalanera, (ga) gallegera, (i) inglesera, (al) alemanera.

SARRERA

Hako txinatar jakintsuak hiltamuan agertu irrika aipatzen dut, *Euskara, hermeneutika* titulua aurkeztean. Heriotz orduan galdetu omen zioten hako gaisoari: “zein da zure gurari biziena ordu larri honetan?” Eta honela erantzun omen zuan: “Itzuli diezaio-tela hitzari bere egia”. Baina nork itzuli liezaioke hitzari jatorriz-ko egia? Platonen *Kratyle* (425-e) liburuko elkarrizketetan arazo berdina dager lehen hitzak jainkoek ezarriak ote ziren galdetzen duenean eta Sokrates pertsonaiaren ahotik erantzutean: “Hala dirudi, baina guk geure aurretiko *barbaroengandik* hartu genitun lehen hitzok, beraz, guk nondik jakin dezakegu zertan den lehen hitzon egokitasuna? (...) Eta hareago lehen hitzen eratorriena, bata besteen jarraipeneko direnez gero?”

Greziarrentzat euren aurretiko minoikoak, egitiarrak, babiloniar-
rak etab. barbaroak ziran, eta grezierako hitzak ere haiengandik hartuak zirela aitortzen dute, baina barbaro haien segetua jadanik desagertua zan greziarren oroitzapenetik. Euskaldunontzat, zorionez, garai haretako lekukoa gelditzen zaigu, beraz, hari galde diezaiokegu, euskarari alegia, euskarak jakin behar bai-du “barbaroen” garaiko hitzaren doitasuna zertan den. Honela euskarak hermeneutika saioan duen trebezia jabetuko gara: grekoen garaiko hitzen edukin jatorra igarten ezeze, “barbarokide” haien berbaroa iragarten erakus bai-diezaikigu.

Aspaldiko izkribuen eta hitzen edukin jatorraren bila aritzen direnei hermeneuta deritsaie, Hermesen segetuaren garatzetan dabilzanei, alegia, Hermesek edo mila urte lehenago Thot jainkoak, egitiar “barbaroen” gardiz, asmatua bai-omen zan idazkizuna. Dena den, haraz gero, herrien arteko hizkera eta idazkera bera segetu biurtzen zan, kultura batekoak besteen segetuak ardu-raz aztertu beharrean, barbaro huts bezala erdeinatzen zuten, edo maiz batabesteak nausitu irrikaz, heskera bereziaz izkututzen.

Hermeneutek, bide ezberdinak erabilten dituzte segetuaren inguruko ahaleginetan Euskal Herrian bertan. Ezaguten dut bat

baino gehiago, euskara alerik ere jakin gabe, hermeneuta direnak edo direlakoa egiten dutenak. Eta euskararik jakin gabe hitzaren esanahi jatorra ezagutu nahia, dagoeneko Euskal Herriko Historia egin nahi duenaren historiadore batentzat Beleia Iruinako aztarren berriak ez ezagutzea bezala da. Aztarrenok izkutuan egozela, historigileak euskara gutxietsi eta Euskal Herria bera desagerturiko mitotzat eman zezaketen, edo agnostiko batek euskaldunon kristautasun goiztarra uka, euskara, hizkuntzalarien Unibertsidade katedran barik, gela baztertuan egotzi eta anarteko katekesi ahalegina buztinpean egortsi zegoelako. Nork uste izango zuan Iruñako Belean ager zeitekela lehen Kalbario marraskitua edo euskararen nortasuna, katekesia egiteko ere gauza bai-zan K.a. III gizaldian?

Orobat iragan gizaldi erdigunera arte inork ez zuan Sumer herriko zibilizazioaren berririk. Haraz gero argibideen historia aldatu egin da eta uste dugu sumeriera sakonean ezagutzeak argibide gehiago ekar diezaikigula. Baina nola ezagutu sakonean sumeriera, haren lekuko izan diren aldameneko hizkuntzak dezagertu badira? Jakitez bagenekin, hizkuntzari adituen ustez eta oharrez, euskararen lehengusuak antxinako Sortalde Erdigune haretan zirena, beraz, ez da harritzekoa, teoria mailan behenipehin, euskara sumerieraren interprete gertatzea, hau da, euskarak hermeneutei sumeriera argitzen laguntzea, zenbait arkeologoei uskomedierranear hilerrietako iskribuak irakurtzen laguntzen dien bezala. "Barbaro" haiek erabilten zituzten otsak/hitzak euskararen ahotik entzuteak sintonia bateratsuan jar bai-litzake eta halakoe-tan doinua hutsetik asmatzea baino hermeneutika ziurragoa da.

Euskarak gerkerazko hitzen jatorria bilatzen edo "barbaroki-deekin" latinak eta solasean askoren ezbaiak argitzen ezezen, norbere burua aztertu eta jatorria bilatzen irakasten du. Hala nola unibetsoak eztanda halako batez hutsunean zabalduz-zabalduz joan den, kulturak ere lehen zibilizazioaren garapen ostean zakabanatzen eta batabesteen berri galtzeraino elkarrengandik urruntzen joan bai-dira gizaldietan zehar. Zaharrenari dagokio zibilizazio galduaren oroitzapena argitzea eta ahalegin honetan euskarari galdetzea, berari ohore egitea ezeze, zuhurtzia da.

I. HERMENEUTEN LANA

1.1. Jatorrizko hitzaren bila

Ez da nahikoa ibaian bainua hartzea, urak nondik harako diren ere jakin behar da. Sortaldeko jakinduria honek gizartean ikus daiteken bi eratako jokera salatzen digu, bata potsuko uretan bertan goxo egiten duenarena eta bestea, bainu mesedegarriko uraren iturria non dagoen jakin minez irrikatzen denarena. Egonean gozaten duen udaratiak ondartzat aukeratzen du, uraren segere-tua aztertu nahi duenak, ostera, mendi gailurretarantz joko du. Entzun dut aldamenetik esaten “zertan arduratu euskararen jatorriaz, nondik den edo zertan den? Guk nahiko dugu euskara ikasi eta euskara normalizatzearekin”. Butzuan bertan gozo eginik, ausaz? Kalean bizi eta euskara batuan ari direnak ere inoiz edo behin gurasoen jatorrizko baserria ikuskatu eta hango euskalkia jastatzea atsegin izaten dute, “guri zer ardura digu gure gurasoen euskara zaharrak?” edo holakorik esan gabe. Euskara gogotan duenak dena ustiatzen du, eredu bata eta bestea: garaiotaraino heldu denez gero, non eta nolatan asmatua izan den ere jakin nahi luke. Ala ahalegintxo hori ere kanpoko jakintsuek egin behar ote diote euskarari, guk “bertan gozo” egiten duguno?

Exegetek Bibliako testo askoren artean, egia historikoarekin egokien dena aurkitu nahi izaten dute. Kristoren Ebangelioa idazkiz baino hareago predikuz zabaldua izan zena jakinik, predikakera horren aztarrenak bilatzen dituzte, adibidez aramearretik grekora itzultitako testoetan. Beraz aramear jakinduria ezagutzera doaz, ea Ebangelioko predikan ahien esakerarik agertzen den. Exegetek horrela atzematen dituzte tradizio bata edo bestearen ikutuak, testo bataren edo besteraren inguru, azken aztertu testoaren esanahia bere osoan jaso ahal izateko edo testoetan jatorrizkoena zein den antzemateko. Ermeneuta lana esaten zaio horreri, norbere hizkuntzako testoak sakonki ulertzekotan “barbaroen”¹ hizkuntzak itauntzera ere jotzen duenari.

Ezagutu nuen Euskal Herriko pastorgintzarako prestakuntzan euskara ikasten hasi zen apaiza. Gero biblista ikasketak opa zizkiotela-ta, euskara bertan behera utzi eta heberkera ikasi omen zuan eta, argi luzeekin barik, argi laburrekin hasi zan exegesi lanean, heberkerak K.a. milagarrena bakarrik baitaraten bai-du.

Beste hermeneuta batzuk jatorrizko hitzaren bila, predikua eman zen toki haretako hizkeraren bila joan eta bertako kultura zaharrarekin gonbaratzen dute, liburuan jaso, predikaren ezena eta ahozko predika beraz egokitu eta alde askotako begiradaz testoreen jatortasuna egiztatzera. Etnografia herentzi eder baten jabe garelarik, ez dugu aurrera pausorik emango, segeretuen giltzadun den euskaran murgiltzen ez garen. Ez gara *Olentzaro* ta *Subilaro* bereizteko izango, izen bata eta bestea monosilaboraino aztertuz, arketipoak idoro eta edukin osoaren jabe egiten ez garen artean edo, beste era batera esanda, euskara mitoaztertzen ez badakigu, mitoazterketa ere hermeneuta lan bedegarra bai-da.

Hermeneutek jakinduria zaharrak, gnostikoak, hermetikoak, eta Sumer eta Egiptoko erauskinetan aurkitu izan diren jakinduriako liburuak aztertzen dituzte, ea haietan nabaritzen diren argiak Biblian edo gainerako kulturetan agertzen diren eta halako diztira uhari aurkitu dituzte jainkozko hitzaren inguru ere, egia edo mitoa nunahiko diren, espiritu berak atzerrietan aurretiaz ereindako argiak bai-dira. Ahalegin berean aurkitzen dugu hasiera haretan sortu euskara bizia ere bere hitz bakoitzean ordukoen berri ematen diguna, eta Iruina Okako aztarrenak bezala, ehunetik hamarrena ostaz aztertu dugularik. Hor dute euskal hermeneutek hasieratik ereinda dagoen hitzaren egia ikertu eta azaltzeko bidea, hor beste-lako gure paleontologoaren ahalegin amaigabea.

Jatorrizko hizkuntza gehienak desagertu egin dira: sumeriera, akadiera, babiloniera, urritera, koptoa, libioa, etab. Lehen jato-

edo herri etimo zaleek bezala azaltzen dute *bar-bar* mintzatzen direnak, zerbait ulertuezina adierazteko, orainsuagoko erdaldun batzuk, mesprezu berdinez, euskarari buruz *chau-chau* esaten zuten bezala. Euskarak ba du, ostera, hizkuntza klasikoan zurtzadura argitzeko hitz aproposa, *berbaro* deritso entzun bai, baina zertaz diharduen ezin igarria den *berba aro*/berba hotsari.

rrizko hizkuntza haien artean euskara bakarrik bizi da bersortze halako zori eta ahaleginetan eta bere jatorria eta gorantziak mundu ikasiaren aurrean erakutsi nahian. Hala ere, euskalduna bera argitzen ez bada, jai dauka euskarak. Hurrutiko aholkuak ere entzun ditugu: “euskaldunek euskararen etorkizunaz ardurazten dira, baina aldiz aurretik euskararen jatorria ezagutzen ez badute, nola jakin dezakete euskaldunek euskararen etorkizuna?”² Ulertu nahi duenarentzat salapena ere da, edo jakinduriazko hitza. Beraz ez da nahiko “izan direlako, gara” errepikatzea, besteek aldamenetik “bere buruaz ezer ez dakien hizkuntzak zertarako balia diezaikigu?” esaten ba dute. Talde ohargabeak ez daki horren berri; ohartuek, agian, jakin dezakete hobeki.

1.2. Hermeneutek egiaren ikerle

Hermeneutek hitz baten esanahia adierazi orduko, hitzaren jatorria edo testuingurua hainbat zehatzen arakutzen dute. Halako arduran egin ahaleginari “hermeneutika” deritsaio. Hermeneutek ondo dakite hitz batek formaz eta edukinez alde handia hartzen duela toki batetik bestera, hizkuntza batetik bestera, ahoz-kera ohituren zioaz edo alfabeten karakterek duten heskera ezberdinagatik. Argi dago mailebatuetan ere formaren edo edukinaren zehaztasun berezia bilatzen dela, hizkuntza bakoitza jatorrian itxura egin-zalea bai-da.

Erljioen historiak herrialde guztietan aurkitzen du, adibidez, “zori” jaïnkoaren eragina, batean *Adu*^(eu), bestean *Patu*^(eu), harakotan *Phta*^(e) edo *Fatu*^(l)>*Hado* formetan ere agetzen dela. Ikerle merkeak aurreko dendan aurkituko du haren jatorria eta azterle onaren ahalegina alperrikotzat emango du, agian. Halakoetan liburu potoloak egiten dituzten etimologo askok latina edo grekoa izaten dute bilgune eta atsedean toki. Handik hara “barbaroen” berbarotzat jotzen dute, *Kraylo*-ko hizketariak bezala. Holako dotoreei jaramonik egin gabe, euskal hermeneutak hitz bakoitza monosilaboraino aztertzen dakian euskarari jarraitu behar dio,




Ygdrasil zuhaitzaren kerizpean hiru *Norna* hiruleak, Urd, Verdante eta Skuld, bizia arilkatzen, joana, oraina eta etorkizuna ordezkatzen dute eta *Urdar* butzuko *urez* ureztatzen zuhaitza eten gabe. *Urdar* ur Butzua-aren inguru ezin falta zeiteken Subearen zabuka izugarria, izan ere, bizi zoria aldatzeko berak duen famaz, hasi *Gilgames*, XI, 287 eta *Hasiera* 3,1-13 historioetatik. Mitologia honen jatorri bila ez zegoen Indo alde-ara igesi beharrik, oso etxetiar-rrak bai-ditu linua eta haria eta *berdurak* ehuntzeko artezia.

bere eskutik arketipo edo eragile den jainko handia edo txikia edo ainaninoa idoro arte.

Norwegian, adibidez, *Urder* deitzen diote *Adur*^(eu) “zori” jainkoari eta *berda* “etorri, izatera heldu” adizetik omen dator eta *berda*, berriz, *vertere* “itzuli” latinetikotik omen³. *Adur* jainkoak joan-itzuli asko egiten ditu bizitzan eta *urder* hitz aztertze honetan euskarak ere *erdu* “etorri, toz” edo *erdi* esan dezake, *erdu* “abiatur, zuzendu, erregutu” eta *erden* “idoro” edo *berdatu* “asarretu, *berdate* “aldi gogor” formak aurreratu ditzake⁴ eta *urtari* “urteko uren” zoria aipa.

3 RIES J. DR, “DESTINO (religión germánica)” p.444-445; “NORNAS”, ibidem, 1388

4 *Norna* deitu hiru aizta, *Urd*, *Verdandi* eta *Skuld* omen ziren iparreko mitologian sortearen arilkatzaileak eta jaioberri bakoitzaren sortea arilkatzen omen zuten, *berdamin* “aria” eginala deseginez. *Norna* “datorrena, gertatuko dena” esan nahi du eta lizarraren ondoan ehuntzen omen zituzten tapizak eta halatan zoriaren *berdurakeriak*^(eu), ots, “endreduak”; *berdura*^(eu) sei arrabeteke eskuz ehundu oiala delarik. Beraz argiago: “hesia egiteko lurreen sartzen diren zutolak” *eskolde*^(eu) dira>*Skuld*, ehunari *urdua*^(eu) “antza” emateko, *urdu*>*urdir*>*Urd* eta azkenik ehuna “zuritu” *berdandu*>*Verdandi*. Euskal jakinduriak ere *Norna* hirukoitzaren eragina salatzen du: “Jaiotzeko siñuk jarraituko dio bizi den arte” dinonean edo “Nor bada zure laguna, egingo zaitu zalduna”.



Hammurabi legegileak Shamash (*Utu*) jainkoaren eskutik hartzen du *sotz>jus*⁽¹⁾ edo bestelaz *txuso/chuzo* dena. Sinboloa idearen aurretik doa. Bera da zuzenbide eta juzoaren seinua eta, horrela, *sotz/jus*⁽¹⁾ eta *txuzo/juzo* datoz hizkunez. Jatorrizko hizkunea *Utu/doi* da eta, izan ere, sumeriar-akadiar legegileek *Utu* jainkoari egiten die *otoi doitasuna* eskatzen. Haraz gero ezaguna da “basoan jaio, basoan hazi, herrira etorri eta bera nausi” alkatearen *txuzoa*. Sinboloak ideari eta hitzari laguntzen dio

Argi dago, beraz, ez dela berdina euskaldun batek asma dezaken etimologia eta euskara ez dakien batena. Latinak ez daki bere sorgua nondikoa duen eta jainko Aduaren azalpenotan nola izan daiteke Norbegiako mitoaren argibidetan ararteko? Erromatarren jokera, hori bai, gauzak “azpikoz gora” *vertere* jartzea izan zan eta berdintsua da indoeuropeismoaren uste hutsala dutena. Euskarak oroitzapen zabalagoa du eta lurraldez gertuagoko ikuspegia du Norbegiako arazoan: filologiazko hermeneutika lanerako arma luzeagoa, eta geografiaz gertuagoa, alegia.

Justitia<*jus* latinetik omen dator, baina *jus* nodik datorren ez daki latinak, ez etimologoek. Mitora jotzea zuten eta ohartu arazoan banaketan zuzenbidea egitea *Utu>Ud* iduzki jainkoari egotzi ziola Enkik, Tulubioko ugoldean Utuk Ziusudrari egin zuzenbideagatik. Sumerreko legelarien aitorpenez, *Utu* jainkoagandik hartu omen zuten herrian zuzenbidea egiteko *jus* “eskubidea”. Izan ere, Hammurabiren legedi oroitarrian agertzen denez, *Utuk* (Shamash) luzatzen dio *sotz/txotx* sinboloa erregeari. (Ikus Hammurabi legegilearen oroitarrian 15 or.) Alkateak herriko hautatuengandik hartzen du *txuzo* deritson makila eta hari buruz esaten du euskal jakinduriak: “basoan jaio, basoan hazi, herrira etorri eta bera nausi”. Beraz, zein da *jus* hitzaren jatorria azaltzeko sinbolo egokia? Lehendabizi arketipoa: *Utu/doi* da dotrina, hurren, zuzenbidea egiteko hari dagokion ofizioa eta legegileek haren eskutik hartzen duten sin-

boloa. Mitoak, herrien jakinduriak eta euskararen gomuta ezbalira, alperriko litzake *sozt/jus*⁵⁾ hizkune egina eta eratorria azaltzea eta, hareago, *txuzo/juzo*⁵⁾. Izan ere, hizkunea non, han dago hitzaren sorgua. Hizkuneek bere arketipoen mugidaz eta bokalen puntuaz gorde eta finkatzen dituzte hitzak eta hiztegia. Zoritzarrez, hermeneutek ez direla egin hitzen jatorria azaltzen duen giltzaren jabe.

1.3. Hitzak sortzeko gizakiak egin zuen ariketa

Sokratek zera dino *Kratylo-n*: “Nora begiratzen du legelariak gauzei izena ipintean? Ez al da aurreko ereduak?” (389-a) Zeintzu dira hitzaren asmatzaileak, ezpaere aurrean dituen ereduak? Jainko sortzaileen agerpenak jainkoon sorkariak eurak dira eredu orokorrak: zeruan *uina*, eguzkian *sua*, hutsunean *airea*, eta lurrian *loia* eta euren izenak aipatzea izan zan lehen kosmologia eta euren sorkuntza ospatzea, lehen teologia. Hermeneutak ere zeru hoiek eta izadi osoa interpretatzen jakin behar du, gure asabek ere izadiaz ikusi izan bai-zituzten bere Ama eta Aita, beheko izate ahulak goian euskarri sendoagorik izan zezan, hagan sinistu eta haren izena asmatu, ahozkatu eta otoiztu bai-zuten harrezkero.

Gizakiak bere burua izadi beraren antzeko egin zuenetik hara ez da falta izan ura, sua, atsa eta lur emaitzik erritozko oparigaie-tan, ez eta haien aipamenik ohikuneko otoitzetan. Jainko sinbolo-ok, behin izenaz deituez gero, soinu eta kontsonante berezi ziran izenetan eta, ots eta edukin, gainerako izenen eredu egiten ziran: jainkózko edo giza arketipoak, arketipo-otsak elkartu, hitzak hazkunder osatu, hasierako erritoan bezala. Sinbolo orokorrok izadiko mapan oso nabariak eman izan zaizkie giza sentzunei, zein baino zein harrigarriago eta erakargarriago, *Inu/uin* jainko ura, *Utu/su* jainko beroa, *Erra/aire* jainko arnasa eta *Ilu/loi* jainko elikadura. Sinbolook pentsarazten zioten Neolitosko gizakiari eta haiekiko demanda izan zuan honakoan *ene!* inoka, osterakoan *otoi!* deika, harakoan *arren!* arrenka edo *hel!* eleka, otoitza eta eskaria hitz arruntaren eredu egiten zitzaiola. (Ikus 1^o laburgoan)

1° laburgoa: OIHUZKOAK ZAZPI ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	ERRA	ILU	KA	BA	AS
<i>êne/en</i>	<i>otoi</i>	<i>ara/ario</i>	<i>el/ely</i>	<i>ka/kia</i>	<i>ba/bua</i>	<i>jau/zaust</i>
<i>enei/ená</i>	<i>ut/ux/tira</i>	<i>ra/rau</i>	<i>olé/ióle</i>	<i>ako/eko</i>	<i>but/pues</i>	<i>asa/ajai</i>
<i>iñó</i>	<i>txut/ixo</i>	<i>arrano</i>	<i>hil</i>	<i>gel/gora</i>	<i>bea/vae</i>	<i>jas/txen</i>
<i>oino</i>	<i>et/eit/atx</i>	<i>arraio</i>	<i>ol/alló</i>	<i>gero/coño</i>	<i>ave/afa</i>	<i>chao/txek</i>
<i>año</i>	<i>uju/ujui</i>	<i>rayos</i>	<i>ala</i>	<i>agur</i>	<i>eup/vah</i>	<i>xapi/zape</i>
<i>ainü</i>	<i>otian/ultinam</i>	<i>aro/urra</i>	<i>elas/alto</i>	<i>kaixo</i>	<i>hip</i>	<i>txist</i>
<i>ân</i>	<i>zut'aida'tus</i>	<i>arre/aira</i>	<i>ale/ela</i>	<i>kontuz</i>	<i>vaya</i>	<i>esti/este</i>
<i>amen</i>	<i>ixala'ostera</i>	<i>arren</i>	<i>alajina</i>	<i>agian</i>	<i>balinba</i>	<i>ezbe</i>

Ohar: Oihuzko deiotan euskara, hebraiera, latina eta erromanikar hizkuntzak dagerz

Jainko sortzaileok adierazteko, ez zuan haraz gero eriaz azaldu beharrik, umeak “ama” deitzean bezala, ikasita bai-zituzten jainko guraso sortzaileen izenak eta euren aipamen soilaz haien handitasun eta orokortasunaren erdian, umea gurasoen babesean bezala, aurkitzen zan eta beharrak edo senak emanda, haien kideko egiten zuan burua: *Inu/ni*, *Utu/to*, *no/to* bikoteak maite itunbena egina bailuen eta euren leluo, berriz, *Erra/era* edo *Ilu/el* izenlagunak izendatzen zituztela, bakoitzari keinu berezia eginez⁶.

Zer egiten zuten gizakiek, aurretiz esanekoak gogoratu eta belaunez belaun ereduak berak jarraituz, eskola zehatza egiteko? Izadiko mapara begiratu, hain zuzen: arketipoak izendatu eta haien analogiara jokatu, eta eredu, erroa bezala, alda ezina zenez gero, oroitza ere haiengan entzi, hitzak bizirik atera eta berdintsu iraun zezan. Sinbolo bati bakarrik izena aldatuz gero, hiztunen talde batek dena edo zati bat pikutara jaurtitzeko arriskuan jaritzen zuan eredutegia⁷. Hizkuntza ereduak onartuak izan ziran

6 Izadiaren irakurketa hau azaltzen du azañema jarri dugun argazkiak *Kurîsumasu Omedeto* “Eguberri on” japondarrez. Izadi-gizadi arteko harremana adierazteko eta hizkuntzaren sorrera aztertzeo hermeneutika gakoa da.

7 Ereduetan izan zituzten euren gorabeherak: sumertarrek *Ilu/loi* badaezpadako jainkotzat zeukaten eta *lu* “gizaki” adierazteko erabilten zuten eta *ki* “lur”. Akadiarren garaian semitarrek *Utu* jainkoari *Shamash/Samsu* deitzen zioten eta, *An* ordez, *Enlil* aipatzen zuten zeru-lurren jainkotzat, *An+Ilu*, sinkretismo halakoz, biekin bat egiten zutela. Israeldarrek arazo bera jaraunsi zuten jainko izenekin eta hebreera ostaz garatu zitelen halako eredu aldakorrez.


gehien bat herrien artean: *An*, *Utu* sumeriarrak, *Erra* egiptiarra eta *Ilu* semitarra zirela. (Ikus irudian 19 or).

Ereduak gutxi eta finkoak zirelarik, memoriari laguntzeko-edo arketipook zertan marraskitu edo leteraz ordezkatu beharrik ez zuten izan, euskaldunek bezala, euren jakinduria ahoz-ahozko mezuari eman bai-zioten. Memoria idazkizunari emateak, goitar sinboloak idazkiaren zirimarrak ordezkatu zituan sinbolotzat, hasierako arketipo-irudia letera arrunt edo ohiturako egiten zela eta izadiarekiko harremana eten eta aztu egiten zelarik, leterari lotugo eta izaditik askatuago, alegia. Eskuz egindako letera, izadiko sinboloa baino aldakorragoa zelarik, ondorioz arketipoen ordezkartza galdu eta haserako ereduak ohargabe orokorrean izkutatu ziran⁸.

1.4. *Hermetismoa eta hizkuntzaren majia*

Elenismoaren osteko herrialdeek, kristauen aurreko eta lehen gizaldietako garaian, norbere burua salbatu senaz, hermetismoa zeritson espirituzko bidea jarraitzen zuten, munduko gorabera igarokorren artean, unean uneko filosofoen esamesetatik ate. Hatarako jainko zaharren (ez enperioko gidari berrien) eskua bilatzen zuten hitzaren majian edo ohikunaren eraginean, ots, norbere borondatea Jainkoaren legearekin bat egin eta Jainkoaren borondatea noberarenarekin egokitu irrikaz. Jokera hau giza soinkerak izadiko elementuekin duen kidetasunean oinarritzen da, bada *urak*, *suak*, *aireak* eta *loiak* ba dute giza konplexuaren gorputz eta arima izakerarekin zerikusirik: lur seme-alabek izadi amarenakin, alegia. Harremon horri esker, goiko eta beheko harremonen armoniara heltzeko xedea du hermetismoak eta halatan gizakiak nolabait bere etorkizunaren gidarikide zelako ustea zeukan, goitik jasotako aholkuen esaneko zen neurrian.

8 Liturgiako keinuak artean esaten diren hitzak gogarazten dituzte eta hitza sinboloez lotzen, baina antzerki izekarietan, keinuak hitz aldatuez egitea jatorrizko hitzaren arbuigarriak dira, sinboloarena barik, diabolarena egiten dela, gizarte bereko kultura norbere aurkako atesuan jarri irrikaz. Izan ere, *dia-* "asko"+*buru*>*diaburu*>*diabru* dator eta zazpi buru omen ditu Ainamediko mitoan agertzen den subeak.



An, "zeru" jainko familia, babiloniar silu batetikoa (2.200 K.a) An-ek Enki bidaltzen du *ki*⁽⁵⁾ "lurrera" ur gozoak antolatzen, bere sorbaldatik ibai bi darizkio: Eufrate eta Tigri. Utu "iduskia", zerutik lurrera Zubi egin ostean, mendatetik ateratzen da, itaika bidea eginik. Bere ordezkari dira *utzean uzu*⁽⁶⁾ "uxua" eta *usan uddu.ha*⁽⁶⁾ "idia". Inanna, An-en alaba, ego loretzuz, bera den ur utxa>urruxa>orza aurkezten dio Utu nebari. Lekutuena *Enlil* ordezkaria daga, An+Ilu nastua, bere arranbela eta geziarekin, gizakien adu arduraduna.

Izadiko jakinduriaren araberako argibidea zan, noski.

Hermetismoak, gnostikoen arabera, antxinako Sortalde Erdigunean sortu zen jakinduriaren arrastoak jaso zituan eta Aristotelen eta Platonen osteko arrazionaltasunetik ate, izadiko indarrak aztertu eta bizi zituan, filosofoena baino zaharragoa duen barne ohargabea iratzartu nahiean, eta enperioen sorkuntza eta txikizioen osteko erauskinetan, lehengo argiak bilatzen zituan norberegana. Hermetismoa ez zan dotrina berria, giza barne landuen oroitzapena eta sentipena baizik, ez zan erlijio berria ere, eta uneko aginteak eskaintzen zituen eroi eta ereduetatik at, herri erneak maiz antxinako errituen bilguneko santutegietan bizi zuen sentikera baino. Hasierako kristauek hazi berria ereiteko maiz soro landua idoro izan zuten giza ameslarion baitan.

Erljioen historiagileek eta exegetek, sikologoek eta gizatasuna langai dituzten diziplina guztiek hermetikoen eta gnostikoen liburuak arakatu eta aztertu dituzte zibilizazioaren jarraipen modernoak hasierarekin lotzen dituen hariak idorotzekotan eta

herrien jakinduria hasierako argietatik ezagutzearren⁹.

Bide beretik Jainko hitzaren ahalmena sorkuntzan eta hitzaren majia ohikunaren eraginean aurkitzen da hitzaren jatorria, euskara bera dela lekuko aparta. Izan ere, errege baten aginduak erreinuan ordena sortzeko indarra bazuan, hareago zezaken Jainkoaren ahoko hitzak izadiko ordena sortzen eta mantentzen. Giza hitzak ere gogo barnean izkutu zegoen idea ilunari denen oharpenerako arropa argia ezarten zion, amak bere ume jaioberriari ohi bezala. Hala hitzaren majiak *Ino/in* “zeru Jainkoak egin” aitortzen duen bezala, Jainkoarekiko eskeintzen eta otoitzen harremaneko erritoak gauzak egin eta desegiteko artezia zeukaken. Hitzak “esan/egin” eragina izan zezan, erritoaren protokoloa gorde behar zuela, Jainko izenari sor dedua eta lehentasuna emanez¹⁰, gaurko edozein eleizkizunetan ikusten den bezala.

Hagatik Jainko sortzaileen izenak ziran berezko artezi eta eragina zutenak, ez bigarren mailako jainkoenak. Izen haien errepi-katze utsa otoitza zan eta otoitz iraunak mesedea lortzeko indarra zeukalako fedean oinarritzen zan, majia eta fedea elkarkide zetoztela. Jainko izenok berez gauza orokor, iraunkor, on eta santuak adierazteko ziran eta ez, ordea, giza gorpuzkeraren loiak eta gaitzak ordezkatzeko edo giza gogakeraren ganora aipatzeko. Hatarako gizatasunak berak aurreratu behar izan zituan bere kaia eta kausa adierazteko hitzak behar zituan sinbolo edo ereduak. Eta ereduok jainko ereduekin hitz berean elkartzean, bigarren maila hartu behar zuten, erritozko ohikunean bezala, “nori berea, Jainkoaren legea” esan ohi den bezala. Horrela bakarrik lor lezaken gizakiak Jainkoen elkarrizketara heldu eta haiekin majiazko ezkontza egitea, *Inu* zelarik Jainko eredua, adibidez, *Inko/Inka* izango haren seme gizatua, *Ka* seinuak giza *kaisua* ordezkatzeko

9 Horrela hermetikoen *Corpus hermeticum* eta gnostikoen Nag Hammadiko *Ebangelioak*.

10 Jaureskuntza edo kultoa jainkoak oratzeko artea izanik, jainkoekiko dedua errege eta menpekoaren arteko juzoa bezalakoa zan hatitarren artean (R. LEBRUN, “Piedad hitita”, DR, or., 1411) eta hatitarrek. berriz, sumertarregandik ikasitako liturgia jarraitzen zuten.

bai-zuan. Orobat, *Inu* “zeru” izanez gero, *ainubi*^(eu)/*nube*^(l) izango haren peko “laino”, edo *nabi*^(bab) “haren morroi”, *Ba* seinuak *be/-pe* unea eta giza *baita* adierazteko sinboloa zelako.

Hitzaren majia hau zela-ta, sumertarren liturgiak, sumeriera galdu eta gero ere bi mila urtetan iraun zuan Babilonian eta Anatolian, haien jainko sortzaileen izenak herritoekin naste erabilten zituztela. Latinak ere, erromatar enperioa suntzitu eta hamabost gizalditan iraun zuan, elizak ere latinari herri ezberdinak batzeko majialakoa egotzi nahi bai-zion¹¹. Eskerrak majia honeri, gizakiek jainkoekin harremana zeukaten hitzaren erritorean, Jainko hitza ere giza arazoaren begira jartzen zelarik.

1.5. *Eslera/euskera, iskiriatu/segeretu*

Ahozko hizkuntzak ahozkeraren hesiez ideak lotzeko *heskera* berezia sortzen du ahoko ahotz organoetan: hitzak ebaki baino hareago, hesitu>estu egiten bai-ditu. Izadiko elementuak ideen sinbolo diren bezala, haien izen-kontsonanteen otsa ematen dute entzumenaren adigarri. Hesiotan ondo eskolatu hiztunek *heskera* berezia dute eta *eslera* dei diezaioke halakoen hizkuntzari. Halako hitz ahozkatuan ez zegoen segereturik, besteen belarrietara heldu orduko ulerbide argia sortzen bai-zuan. Belarritik ate, otsik gabeko isilekoak bakarrik ziran segeretu. Ahozkatu hitzak soinu orde, eskribatu zirenean, ostera, eskribatzaileen segeretu gertatu ziran, hitzak beste *heskera* bat lortu bai-zuan, eta papereko zirriborroak egiten zuten idazkiaren hesi berrizat eta horrela *eskeratu/segeretu* hizkunea sortu zan. Zirriborroak ikusgarriak ziran, baina belarri utzera eginarentzat segeretu. Herrialde bakoitzeke apaizek eta jauregietako eskribariak berera *eskerape* gorde zuten hitza eta *eskerape*>*izkribu* edo *eskribatu/scribere*^(l) eratorri

11 Latinaren desagertzea euskaldunentzat beste hizkuntzentzat ez bezalako liberatze arrakasta izan da, lehengo apaizen latinak “euskal meza” gertatu eta euskarak liturgizun ofizialean berezko artezia lortu duelako. Hitzaren majia dela-ta, aitite batek esaten zidan bezala, “euskaraz erresauko Agur Mari batek, hamar erderazkoak baino gehiago balio dau” eta haren ustezko majia ez apurtzearren, ez nion zio horren argibiderik eskatu.

zan¹². Garrantzi handia zuan erregeen arteko harremanetan *eskerape* igortzen ziren gutunak eta mezuak¹³, eta *eskerapetu* idazkia galdu edo inork gezurtatu ez zezan, *eskarabeo* silua gehitu zioten faraoiek. (Ikus Faraoiaren silua, 23 or.)

Honetan euskarak ahoz-ahozko heskera bakarrik izan du, eta ostaz eman da izkribuetan *eskerapetu*. Hagatik ohoretzat hartua izan da euskaldunaren hitza, haren ahozko agintzari *eskerape* dagoen agiriari besteko balorea egotzi izan zaiolako: “euskaldunaren berba” aintzat hartua izan da, halako sujetaren berba-*<bera+pe* “egia pe” bai-dago, eta *eskerapetu* hitza, ostera, objeta ezbaikorraren *kara+pe>grafe*⁽⁹⁾, ots, *karapetu>gravado* eta, beraz, marraskien itxuraz mozorropetu dagoena. “Marraskia motza izan daiteke, baina izena beti zehatza” dino *Kratylo-k* (430-e). Beste agiri barik, “berbako gizona” izateak majia du eta hari sinistea ohoregarri da¹⁴, eta norbere jatorriz aidor izatea, errege agiriaren aipamenez izatea baino ziurragoa, “Aitoren seme/alaba” izatea erregearen manupeko izatea baino gehiago delako¹⁵.

Bizkaiko Jaunerriak, adibidez, XV gizaldian herri eskubide eta ohiturak jaso eta euskaldun ez ziren erreinuko eskribarien goraintzirako “forua barriztatu behar izan zuenean” (11 or.) Jaunerriko


12 Armeniako elizak V gizaldian Erromako eta Persiako elizen eraginetik burua jaregitarren, euren izkiriatze mota asmatu zuten eta haraz gero bere hizkuntzako idazki segetura aldatu zuten euren dotrina (Efesoko Kontzilioari atxikiagoa, Kaltzedoniakoari baino) eta kulturazko beste liburuak. Halatan hainbatean armenierak *eskerapetu* irau du.

13 Elizak ere, dotrina garbiaren aitzakian, beste herrien hizkuntzetara Ebangelioak aldatzea eragotzita zeukan. Enperioaren asmoa nahiko zuan beretzat ere, “hizuntza bat, fede bat” arteziz-edo baitorren.

14 *Ber-bera*^(w)*>vera*^(l) “egia” dino ahozko *berbak*, *kara+pe>grafe*⁽⁹⁾ antz, irudipean/zirriborpean dagoenak, ostera, leteraren irudia du ordezkari. *Berba* eta *grafe Ba* “giza baita” eta *Ka* “kaia, materia” bezala bereizten dira, *beneta* eta *gezurra* bailiran. “Letera heriogarri bai-da, eta Espiritua bizigarri” (2 Cor 3,6).

15 Nonbait euskaldunek, jatorrizko askatasuna ezagutu zutenetik ez dira egokitu atserriko erregego eta apaizgoen agiritara eta hagatik jatorrizko hitza/berba gordetzen saiatu dira. Inoren agiria behar duena haren zordun egiten bai-da, sortzetik daukana, ostera, Jainkoarena da.

Amenofis III faraoiaren posta silua, aurre eta infrentsu: *hesi/itxi* hizkuntetik *eskera* eta *eskerape* dagoen mezua, *eskarabeo* deritzaion siluak markatzen zuan. Infrentsuan *arkamelu* edo *kakarraldo* deritzaion xomorro irudia



ordezkari guztiak batu ezeze, euskal hitzak gaztelaniara aldatzeko aukeratuak Jainkoaren eta Gurutzearen aurrean zin eta boru eginez bermatu behar izan zuten euren zintzotasuna, ezelako iruzurrik egin ez zezaten euskaldunen ahozko heskeratik gaztelaniaren *eskerape*>*eskribu* eratarara aldatzean¹⁶.

Irakurtea gutxi batzuren eskola zan eta izkribua, berez, segetu berria, eta begien aurrean izanarren, irakurteko giltza falta izan zitzaien. Eskribariak izkribuz eman zuten herriko jakintza geroko gizaldien gogoangarrirako. Hala neosumeriarrek, zapalkuntzaren ostean (2.500 K. a) buru jabetasuna berreskuratu zutenean, bustingiz ezotu tauletan *karapetu*>*grabatu* utzi zuten euren pentsakizuna eta fedea. Sumeriar liburuak jakintza ospea izan zuten haraz gero inguruko herrietan. Akadiarrek ere euren hizkuntzara aldatu nahiko luketen, haien jakinduria, baina “zetariko eskribari da sumeriera ez dakien eskribaria? Sumeriera ez dakian idazkari batek nola alda dezake?”¹⁷ Sumeriarrek bezala, esan dezakete euskaldunek ere: “euskara jakin ezik, nola azaldu sakonean euskal etnografia edo zelan argitu hermeneuta lan trebesiaz herri zaharren pentsamoldea? Edo eta nola baliatu euskaraz, euskara bera mitoaztertu ezik?”

“Gauzei izena ezartea artegile lanaren antzekoa al da, marraskilariarena, adibidez? Pintatu edo izendatu?” -galdetzen da *Kratilo-n* (429-a). *Sofia*^(a) hitza, adibidez, nondik asmatu zuten greko-

16 “Zuetariko bakotxak Jainkoari, Andra Mariari eta Zeru Gorteko Santu guztiei eta zeuon eskuz ikutu dituzuen Gurutze eta Ebangelioari, Bizkaiko Foru, usuario, ohiitura, Lege Berezi eta Herri Eskubideak barriztatzeko Jaurerri Noble eta Lehial honetako Batzarrak (...) emoniko ahalmena artez erabiliko dozuela zin dagioezue, egiteko hau ondo, zintzo ta lehialkiro eta ezetariko gorroto, alderdikeria, azpikeria ta iruzurrik baga beterik”. (or.16)

17 *Proverbios de la Colección sumeria II*, 49

ek? “Arte, zuhurtzi, jakinduria, etab.” esan nahi duena edo bere familiakoa den *sofu* “jakintsu”? *Enki* “jainko zerua lurrean” izan zan “jakintsu”, ordea, hako *Sube/Su.ap*⁽⁶⁾ aitalehenaren ordezkartaz amarruz *jabetu*>*sapere*⁽⁷⁾ zena. *Sube/ophys*⁽⁸⁾ itzulestara, zan “Baradisuko aberetan zuhurrena”, hain zuzen, eta jakinduriaren zuhaitzera igonik emakumea dendaka “Jainko haina izango zarete” (Has 3,5) agindu zuena. Gauza mitoaztertu ezik, euskaldun arruntak ezin dezake hurretik ere emon *subia*⁽⁹⁾>*sofia*⁽⁹⁾ datorkenik, “jakinduria” adierazten. Deigun *Baradisua baratzea* izan zela eta halatan *Pardes* oroitzen du heberkerak, deigun giza lanaz *baratzetua*¹⁸ izan zela *baratzetu*>*baradesu*>*pardesi*^(persera) etor zedin. Jakina euskara han zegoela, gizakiak asmatu duen mitorik zoragarriena amestu zuenean eta amesak ahoz edesteko gai egin zenean.

1.6. Hitza erritoaren ararteko

Errittoa sinbolotik eta mitotik sortzen da eta izakiak bere jatorria eta zoria ezagutu eta nortasuna garatzeko ariketa du. Hitzak sinboloa oinarritzat duen bezala, errittoa hitzaren argitan azaltzen ditu bere ohikunak eta biak batera ematen diote errittoiari zer nahi eta hura bilatzeko arteziaren majia eta indarra¹⁹. Beraz, sinboloa ekintzan, horixe da errittoa bere keinuetan; sinbolo-arketipoa unero ematen den jainkozko agerpena da eta errittoa, ostera, herriak aukeratu jainko-ordezkari den abadeak eta herriak berak unean uneko harekin berritzen duten elkarrekiko itunbena. Sinboloa jainkotiar eta orokor da eta errittoa, gizatiar ekintza izaki, bien elkartekoa ospatzen du, goiko eta beheko arketipoen harremanaz eta elkarrizketaz. Hitza bera da Jainko eta gizakiaren arteko ezkontza honen agiria, hitza da otoitza eta eskainien eta eskarien arartekoa abadearen ahotan. Horrela erritoko hizkera egiten da herriaren hizkuntza: Hagatik “euskal mezak” sendatu zuan hako “latin

18 Lurra *baratzetu*, *baratze/beraza* edo emankor egin, landu, alegia, “lurrak eman egiten bai-du, ematen bazio” esakerak dinon bezala.

19 *Mailukia* dagoen tokian *melek*^(h) “erregea” dago, makila “errege” sinboloa delako eta *zotza* dagoen tokian, *jus* (Ikus 15 or.) Horrela, sinboloak gauza objetiboak eta subjektiboak analogiaren buruz adierazteko indarra du.

meza” harek euskaldungoan egin zauria. Erritoko hitzak, argia denean, ez du esanaz ekintza iluntzen edo gezurtatzen eta zindo izateaz gain, eskola eta parteliasuna bultzatzen du.

Sinboloarekiko aitopenaz hasten da errittoa, haren jainko nortasuna aipatuz gero, hari egiten zaio *ino*, *dei*, *orru* edo *ala*, ahozkeran nor bakoitzaren *heina*, *edua*, *era* edo *hala* jarraituz. (Ikus oihuzkoen ereduak esan hitzetan eta gonbaratzekoetan 1^o, 2^o, 3^o laburgoetan) Sinboloarekiko atxikimenduak berak sortarazten du errittoa: honi *mu*, zuri *so*, hari *orro* eta ulaini *ulu*. Azaleko ariketak barne ariketa eskatzen du eta, hagatik, edozein erritu berrira hurbiltzen direnei, ulermenerako eskola bereziaz landa, hasiberriei ohikunaren ekintzan parte hartzen erakusten zai, hala sakramentuen katekesian. *Wazemank* antzerkian liturgiako ohikunen bat antzeztean, sakramenduko hitzak eta keinuak irri-garri aurkezten direnean, han esandako hitzak eta ekintzak, ez dute, irriaz landa, beste balorerik, ez eta antzezlariak, abade-ohiak izanik ere, eta berdin, meztatik kanpo esan hitz bereziok. Beraz, “esan, abadeak mezan” da errittoaren araua.

Ahozko hitzak sinboloetan oinarritzen dira, nahiz liburutik irakurri edo inoiz erdal liburutik euskaratu izan diren. Kontsonante letera narrasaren sinbolotik, haren otsaren sinbolo goitarrrera bidea dago eta gorabehera hoiez jabetzen dena konturatzen da hitza den arte errefinduaz, hain artezia bai-dagokio. Erritualtasuna izan da hitzari *ino/in* edo *esan/izan* artezia eman diona, bada hitzak ezin zezaken, sinboloak eta arketipoak irauliz, kontraesana eta zuntziketa sortu. Majia arruntean ere hitzak ganoraz esatea eskatzen da, ona beharrez gaitza sor ez dezan²⁰.

1.7. *Hermeneutika, teknika eta euskara*

Herri askok liburu zaharrak dituzte asaben espiritua ezagutu ahal izateko, euskaldunok euskara dugu bakarririk. Haiak liburuen testo-

20 Hako sorgin edo burutxa haziberriaren sortea aipatzen da: Erratza hartu eta arteziazko hitzak iraultzeagatik, ots “sasi guztien gainetik eta hodei guztien azpitik” esan beharrez, “sasi guztien azpitik eta hodei guztien gainetik” esan zuelako, oso urratu eta mareatu iritxi bai-omen zan Akelarerra.

ak aztertzeo teknikaz hermeneutika egiten dute, euskaldunok geure mitoak aztertzeo euskara dugunarren, euskara bera mitoaztertzen ezbadogu, ez dugu ulertu ahal izango asaben jakinduria. Herri bateko mitoak beste herrietakoekin gonbaratuz eta hizkuntzek mitoeikin duten lotura ikusiz, mitoaztertzen da hizkuntza eta, beraz, euskara. Euskararen hiztegi zabala ulertzeo, antxinako herrien jakinduria ezagutzea dagokigu, elkarrenak direnentz edo antzeo ete diren jakiteo. Nola ulertzen zuten haiek eta gure asabek munduaren sorrera? Zelan burutu zituzten lehen ideak eta haiek ahoz-aho azaltzeo hitzak eta hizkuntza asmatu? Ze logikaz edo mitologikaz orekatu zuten hiztegia belaunez belaun, otsak eta edukinak beti berean iraun zezaten? Gure asabek ez zuten idatzi esaldi luzeetako testorik, baina jakinduriako esakerak eta ipuinak eta mitoak asmatu eta kondatu zituzten. Autoreen liburuak herriko kondaira bizietatik sortu ziran eta herrien jakinduriak batabesteen jakindurietatik, hizkuntzak eurak ere beste hizkuntzen arketipoekin izan bai-zuten parte. Posible al zaigu euskaldunoi beste herrietako jakinduriez, ipuinez eta mitoez eta hareago hizkuntza beraz dugun lehengusutasuna argitzea eta, alderantziz, geure euskaraz baliauturik, antxinako beste herrien jakinduria ulertzea?

Hitzaren arazoa hain estua izanik, hala ere “nork ziurtatzen ditu benetako idea adieraten duten” ez baitan jartzen du Platonek Sokraten ahotik. (*Kratilo*, 437-d) “Berezko egokitasuna” aitortzen du Kratylok, “herriak onarturiko egokitasuna”, baina ez ziur artean herriak arduraz asmatu gabea²¹. Sarritan Liburuko hitzak eman dio aintza erlijioari eta ez herriak ahoz hartu eta ospatu izan duen fedeari. Ahozko erratuak ondo ahozkatuz bideratzen edo ulertzen dira, baina nork aztertzen ditu Liburu zurrunean asmorik zuzenenaz idatzita egon daitezken akatzak?

Edozein herritako gizakiri otu zaiona, otu daikigu guri ere, Sumerreko atsötitzak euskal esakeretan aurkitzea, adibidez:

21 Hitzaren doitasuna jainkoei egoztea da euskara ere Jainkoak Baradisuan lehen gurasoei erakutzi hizkuntzatzat hartzea eta beste hainbesteko erratua gaur genetistek amaren sabeletiko doe dela aipatzea, biak ere funtsean, giza asmamen askea eta artea ukatzen dutelako.

“Nireei ikuturik ere ez, nik zeure ongiak nahi ditut jastatu”²² “Nirea neuretzat, zurea biontzat” esakerak elkarrenak dira edo beste sumeriar hau: “Ez zan zutunik egoteko, baina bai festan parte hartzeko”²³. Eta euskaraz: “Mezatarako koxo, tabernarako goizto”. Jakinduria, bustingia bezala, ez da herri bakoitzean asmatzen, alde batean asmatuala, merkatura bai-doa eta arin zabaltzen da munduan zehar. Harrigarria da ipuinetan *Nippurreko pobrea* deritson sumeriarak eta Sakanako *Mattin Motella* kontakizunek elkarrekin duten karantza, bai asmoz eta bai egituraz²⁴.

Herrien bizi arauetan ere antzera berdintsuak aurkizen ditugu. Euskaldunak Espainiako erregeen soldadutza legetik jareginak izan garela *Bizkaiko Foruan* (1,1) agertzen denez, eta edo izateko eskatu izan dugula? Orobat Nippur, Sipar eta Babiloniakoak Asiriako erregearen gudarostetik aske zirela frogatzen zuten²⁵.

Gure mitoen azalpena egiteko teknika bera erabiltea dugu hermeneutikako azterpenetan. Har dezagun, adibidez, *Ainamendiko Erensugea*: “Suge/*Sube* kosmiko hori Ainamendiko leze edo arpean lotan omen dago, eta buru bat baino gehiago ei ditu; zazpigarren burua osatzen zaioneko, sugartu eta *Itxasgorrieta* deritson mendebaldeko itxasoan zanga egiten omen du. Ustez Suge/*Sube* horrek sortzen ditu ludian lurrikarak”. Honela kontatuz, euskaldunak, altxorra gehitzen dio euskal mitologiari. Baina hermeneutika berezi barik, nola aditzen eman bere balioa eta

22 *Proverbios de la colección sumeria*, I, 8

23 *Proverbios de la colección sumeria* VII, 16

24 *Nippurreko pobrea* 1996 urtean argitaratu zan *Sabidurías de Mesopotamia*, DB. n^o 26, bilduman eta *Mattin Mottela*, J. M^a SATRUSTEGIK (2001) argitara eman zuan eta bere gomendioz eginiko bien gonbaraketa dager: ZUBIAGA, F. “El pobre de Nippur y Mattin Mottela”, *Fontes Linguae Vasconum, Separata*, n^o 89, Enero-Abril, 2002. edo *Zuzentza eta eskubi-deak euskararen oroitzan*, 78-83, ikerketa luzeagoan. Elkarren kopia edo hiruzkina izan ezik, nola eta nondiko eraginaz oroi ziteken Babilonian K.a. VIIan inguru idatzia Nafarroako Sakanan ahoz-ahozko euskaraz kondatuz hartzea? Cf: *Nippur/Nefar* ere irakurten da. Ba dirudi *Nefarreko pobrea* eta *Nafarroko Mattin Mottela* elkarrenak direla herriaren oroitzetan.

25 *Advertencias a un príncipe en forma de presagios*, 9,11, DB n^o 26

beste herrietako mitoekin duen lotura? Loturok egiteko euskarak berak oroitzen dituen izenez baliatzen gara: *Sube*, *Erensuqe/-Iraiusubia*, *Ainamendi*, *Itxasgorri*. Lau izenok euskarak beste kulturetako izen eta mitoen ekintzakin elkartzan gaitu, Sumerreko eta Egiptoko mitoekin, hain zuzen:


Euskarazko *Sube*^(eu)/*Su.ap*^(s) da sumerieraz eta antxinako *Subea* oroitarazten digu, *Utusu*, goi eguzkia denez, *Su.be* da beheko eguzkia eta maiz *Zubi* gisa ostarkuan argiz margotsu agertzen dena eta “haren azpitik igaro daitena, eme izanik harra bihurtzen ei dena eta arra izanik, aldiz, eme”, aldameneko euskal mitoak dinonez. Izenotan ohargarria da euskarak *Ba* arketipoa berezko ozenduraz gordetzea, sumerioan *b>p* gogortu irakurten dutelarik.

Erensubia/Errensubia Ra^(e)/Erra^(eu) iruskiaren arerio galgarria da, egunero Nut amaren altsotik ertetzen (Ikus 29 or.) eta haren altsotan erortzen den *Erra* irentzeko eta berarekin batera izadiko ordena zuntzi irrika duelako eta, hagatik, orzanzean eta arratzean artezi handiaz itzuriten ditu Erra erraldoiak Erensubiaren amarruak. *Iraiusubea*^(eu) *Apophis*^(e) da egiptieraz “Apobasa^(eu)”, alegia. Hagatik *apo* izena iraingarria da eta pisti gaiztoen ospez kalitzeraino jasarrituak izaten ziran aldi baten gure artean *subea* eta *apoa*.

Ainamendi/Ainomendi, *Ain/Eni/Anu* “zeru” jainkoaren antxinako sorkuntza oroitzen digun mendia da. *An*^(s)/*Anu*^(a)/*Inu*^(eu)/*Eni*^(hur) “zeru” jainkoak haren gainean kokaturik egin bai-zuan mundua, Sumerreko kosmogoniak dinoenez²⁶ eta euskaldunek mendi horren izena eta hango lezetan *Subea*, lehen sorkuntzako giza eredu zaharra, oroitzen duenez. *Subea* kuntzaz arra zan eta urrutxa>urruxa, oster, *Butzu*^(eu)/*Ab.zu*^(s) “itxaso”, *Subearen* jabetzatik hara, izarrak zeru bideak utzirik, ustez itxasoan sartzen diren marrari deitzen zaio *Itxasgorri*<*ekura/ekur*^(s)>*gorri*²⁷.

26 La «montaña de las puras fuerzas divinas» revestida de terror/ se ha sentado en el sillón grande (*Himno a An*)

27 *Ekura/ekur*^(s) “zelai, mendi santutegi” eta ur gozoen iturburu eta esparrua da, *Subea* bizi omen zen lurbirako ur gozoen uneko itxasoari ere halaxe deitzen zitzaion. *Ekur*>*gorri* dator, hala *Ekurmendi*>*Gorramendi*, *Mendegur*>*Mendigorria*, eta beraz *Itxas-ekur*>*itxasgorri*.



Egitiar mitograman *Nut*⁽⁶⁾ "zeru", inude ezeze, sumerieraz *Antu* deritzaion ama handi, *antua* dakusgu. *Nut* amak egunero umatzen/amaitzen du *Erra* seme iruzkia. *Erra* beheko uretatik goiko uretara ugaroan doa, *Maat* jakinduria eta *Toth* idazkaria lagun dituela, aztore burua eta buruan eguzki aroa ta haren gainean ureus sugeiñoa daramazki, *Aphopis* Errensugearen amarruen salatari. Arratzean *Osirisek*, eskuak zabalik, gidatzen du. Azpian etzanik dager *Geb* "hurra", *Ka+Ba* giza arketipodun. Erdian laino gainean, *Shu*⁽⁶⁾ airea dago, hutsa betetzen. Kosmogonia zaharreko lau elementuak dagerz: *Inu/uin*, *Utu/su*, *Erra/aire* eta *Ilu/loi* edo *hur*, hizkuntzan lau arketipo eginak eta, gainera, gizakiaren hiru arketipoak nabaritzen dira *Geb* gizakiagan: *Ka* edo *kaizua* eta haren *Ba barra* èta bizigarrizat *Shu* aireak eskeintzen dion *ank* edo *Akh* ezaugarria.

Eguzkia ere mendi ostean otsi eta itxasoan ittutzen zela uste zan, handik aurrera lur barrutik bidea jarraitzeko. Hitzak eta ekintzak azterturik, Sumerreko *Su.ap* eta *Ab.zu* lehen guraso kosmikoen oroitza da alde batetik eta Egiptoko Errensugearena bestetik. Mito honen aldameneko azalpenak dira *Mari* eta *Maju* pertsonaien mitoa: *Maju* senarra, ekaitzean, euri eta inatazi jasatan eta igitai antzeko tximistan urbiltzen bai-omen zan *Mariren* Kobara²⁸.

Beste hainbeste esan daiteke Maitagarri eta Intxixuen artekoaz, ots, familia bereko pertsonai kosmikoen hiruzkinak direla.

Bestalde, Ainamendiko Erensubia *burudia* “buru askodun” ei da eta, beraz, *diaburu*>*diabru* izenez ezagutzen denetarikoa. Izen bera mailebatu dute grekoak eta latinak arketipo baten aldaketaz, *diabole*⁽⁹⁾ “eritzi ezberdin, salapen” adierazteko, “zenbat buru, hainbat aburu” araberan, eta hortik *diabolos* “gezurti, salatzaile” aipamen eta latinak, berriz, *diabolu*>*diablo* “etsaia” deiera²⁹.

Zazpi zenbakiak antxinatik zenbaki biribila eta majikoa adierazten du, bestalde, Ainamendiko Erensubiak antxinako Subearen goraintzia da eta ez du Apokalipsiko (Ikus 1,3) ikuskizuneko arekin parterik, hau une haretan kristau Elizaren aurka ekiten zuten indar galgarrien azpi-irudia bai-da.

Euskal hitzen edukin izkutua jaso eta beste herrien idazki zaharren izenekin eta arteko mitoeekin gonbaratuz, gure mitoen ikuspegia sakontzen eta edukina argitzen da, bide batez, euskera beraren lehengusuak ere nabariago gelditzen zaizkigula. Mitoazterketa bide honeri bereziki euskaldunen hermeneutika deitu genezaio, berezko eskubidez eta gonbarazio bidez argi berezia sortzen duelako. Honela uler dezakegu, bai eta ere, sezua berez den indar basa eta erabat sorkuntzako misterioa, honela herri jakiduriak mutiltzarrei geroko bizitzan neskazar bat lepoan hartuta ibili beharreko zigorra edo Markitosen samatik exegiten diren arrautz azaleñ lepokoa (Ikus 31 Or.) edo eta Miel Otxin pertsonaiari txantxoak eman zigor erritualak adierazteko. Eta honela, mitoaztertuz bakarrik, jakin dezakegu zergatik amak alabari “*potxu maitea*”

>gearen mendetik gizakiok askatu gintuenez gero, egoki zan Andre Mariak ere, *Orriaga* deiturako Andre Marik bederen, Mariren *ekura/ekur* santutegian giza eskuz egindako ermitatxoan Kristo aurkeztea.

29 Ez dirudi; beraz, zuzena *diabolos/dia.ballo*⁽⁹⁾ “jaurti, igaro, malmuzkatu, etab.” aditz sorgutik datokenen azterbidea. Hasteko eta behin, *dia*^(eu) “askotza” dino eta handik etorri da *-di* “askotza” adierazteko atzizkia ere, hala *pinudi, gaztedi*, ostera *dia*⁽⁹⁾ “tarte, tartetik, zehar” adierazten duen aditz aurritzia da. Bestalde, sinbolotik sortzen da izena: atzizkitik eta aditzetik ez da sortzen izenik, alderantziz baino, eta hemen *dia+buru* da hitzaren sinbolo ohargarria.



Zalduondoko Inotean *Markitos* izeneko mozorroak bere bizitza laban eta gaiztakeriekatik *markiztuak*, *ots*, *Mariren marra/marka* egin duelako, erritozko epai zorrotza eta suzko heriotz zigorra jasaten du urtero. Bera da herriak markatzen duena. Markitosek arrautz azalekin egin idunekoa darama eta idazkariak epaia irakurten ari da, eskumaldean bere lehen guraso *Mari* eta Sugaar -nortasun bikoitza batean- (Marik kikilik bai-darama Sugaar) salatari eta begirale dituela. Hona Marik bere umeen jarduerari ezarritako marrak: “ez ostu, ez gezurrik esan, ez erail, ez harrotu, eman hitza bete, zaharrak dedutan izan eta elkar lagundu”. *Mari-marra* dator, *marra/marka*, elkarren kontrako formak dira.

deitzen dion edo eta Lekeition emakumeari “*poxua*” oles egiten zaion, euskararen goraintzia dela-ta, beste gabe³⁰.

Antxina baten, *gau huts>kaos*³¹, zenean, goiko urak eta beheko urak, banandu aurretik, bat egiten zuten eta halako batasunean dakusgu Zalduondoko Inotean agertzen den Amon-Atton bikotea, beste herrietako mitoetatik jasota dakigun mitoari esker³². Euskal Inoteak Sumerreko mitoa egiztatzen du eta sumertar mitoak euskal etnografia argitzen, hasieran batuago bai-zen herrien kultura eta herrien arteko mitoen gonbaraketak bakarrik dakarke argitasuna.

30 Butzu<be+utz adierazteko *osin/otxin* “butzu, itxaso” forma ere erabilten dugu *utz* gehiengo kasuan *utzeen>uzin/osin/oxin* dator. Grekoek “Pontu *Euxinu*” “Oxin ondatsu” deitzen zioten “Mar Negro” itxasoari.

31 Izan ere, *kau huts>kaos*⁽⁹⁾ dator gerkerak hako “barbaroen” hitz birekin bat egin zuenean. “Hasieran (...) gau hutsak estaltzen zuan lurra” (Has 1-2)

32 Inote ospakizunaz landa, ba dira gure artean beste jakinduria batzuk ere, harako “Aititak Amumari kopetatik tire/ tire ta tire konponduko dire/ alkarrenak dire” doinu ta guzti gure belarrietara heldu dena bezala.

1.8. Mitoa mintzoa: hasera eta azaga

Gaurko kritikak gutxietsi egiten du neurri baten mitoaren balorea eta bere zirimoletan sartu baino nahiago du “desmitifikatu” hitza asmatu eta arazoa garbitu, Neolitosko gizakiak gaurko gizakiari probetxuzko mezurik zor ez bailion. Aurreritsi gabe, bizikizunen lehen mintsoa edatu zuenaren usteak, arrazio puruz diharduenarentzat ustelak gertatuarren, sakonean ba du funtsik. Markitosen lepotik Zalduendok urtero jasaten duen zigorra herriaren zentzaldirako da, ez barregarrirako. Antxinako “Sube eta Butzu” mitoak sezuaren indar basak gizabideko harremanetan hezi beharrekoak direla dino eta nolabait gizakia badaezpadako askatasunean edo izakera nastuan sortua izan dela mezutzen digute. Mitoak gizaldi bakoitzeko gizakiak aztertu behar luken egia dino: gure asaben jakinduria ezeze, haiek mintzatzeko zuten sinboloa eta irudimena gogotan harturik.

Mitoa ulertu egin behar da, hagan sinistu ahal izateko. Ez du balio “ez dut ulertzen eta ez dut sinisten” esateak, eta hareago, “ez dut ulertzen, ez sinisten, beraz, ez dit balio”. Ama umearen begien pareraino makurtzen da, ari aurrez-aurre soz, haren kexua jaso eta maitasunez amatar laguntza eta eskola emateko, amak ulertzen du haurraren toteldura, amak sinisten du haren kexua: ama hermeneuta ona da bere haurrari dagozkionetan.

Mitoa giza erlijiosoaren pentsamoldetik datorren mintsoa eta mintzaira da. Izadia du ama eta izadia eskola eta izadiko agerpen txundigarriak esakunen sinbolo eta arketipo, eta esan beharreko edukinak ere izaditik jasotzen ditu, bere soinaren elikadurarako ere izadiko jakiez serbitzatzen den bezala. Norkeriaz puztu gizakiak ze espiritugandik jaso du bere adimena eta pentsakera, ala izadiko uina, sua/argia eta airea baizen iraunkor edo haiek sinbolizatzen duten atsa eta espiritua baino garbiagoak ete dira idealistaren burumuineko oldozkunak? Idea eta gaiaren artean gizatasunak garatu behar du, ez Sube, ez Angeru, bai sinbolo eta sinbolizatu. Ulermena ere ingurura eta antxinerazabaltzekoa da, *antxina/aintzina* hizkuneak ulertzen duen eratan: aintzineraz joteko on dugu antxinen jakinduriaz jabetzea. Honela balio digu

harako “zirelako gara” esakerak ere, honela bakarrik ematen baidigu joanak etorkizunerako abiada eta norabidea.

Guzti honek hermeneuten zirkulura geroaz, baina halantxe egiten du aurrera pauso gure jakinminak, aideka baino hobe beheko bideari lotuago, hitz hutsari baino, bizikizunari atxikiago. Beti geldituko da argiagotu beharreko zokondorik. Idazkizunak eta historia ezeze, gizakia bera ezagutu behar da aurretiaz, haren esanak nondik bilduak diren jakin eta ulertu ahal izateko. Azterlaria bera ere uneko kulturak eta hizkerak egiten dioten esparruan dihardu hortik-hemetik nabaritzen dituen berriez jabetu nahirik. Bejondeiola euskal azterlariari euskararen hermeneuta baliapenak, antxinako segetua ezagutzeko ez dugulako giltz hoberik, ez eta “hasera eta azaga” ulertzeko ere. Hori bai, euskarari falta zaiona herrien antxineko jakindurian bilatzekotan eta euskararen memoria beste herrien memoriarekin ornitu eta gonbaratzekotan. Nola osatu eta ulertu bestela historiaren luzea eta zakabanatua?

“Hasera” hasi formatik dator, baina “azaga” nondik datorke eta, beraz, nola uler genezake “azaga onik ez du mandazaik” esakuna? Azaldu bai, agian: *hazi*>*hazi.ki* haren partea datorren bezala, *azi.ka*>*azaga*, haren ukapena, ots, hazteko eperik izan ez duena, garerdian bizia kendu diotelako, agian. Baina ulerbidea ez da amaitzen *Nin.urta* jainkoaren eta *Asag* deabruaren arteko burrukan begia pausatzen ez bada³³.

Honela konturatzen gara euskararen memoria den luzeaz, sumertarren eroi eta deabruekin ere akordatzen bai-da³⁴.

33

S. N. KRAMER, *La historia empieza en Sumer*, XXIV

34

Asakku^(s)/*asag* eritasun deabruak otoz-otoan eraso eta buruan jotzen omen zituan bitimak. (H. LIMET, “DEMONIOLOGÍA (religión sumeria y academia)”, DR. p.416-417) Cf: *Nin.urta* eroiak *Asag* hil eta gero lehortea gertatu omen zan Sumerren, baina *Nin.urta* eroiak itxas gorrian harriak pilatu omen zituan, itsasoak ur gozoei bidea egin ziezaien. (*La gesta de Ninurta*, *La Historia comienza en Sumer*. XXIV, S. N. CRAMER) Eroi honen ekintzak, osteria ere, *Urtatse* arazoa dakarkigu gogotara, Urtarrileko *urtzak* ematen bai dio hasiera Urteari, *urte/urtze* egiten dutela hizkune. Bestalde urteko urtzak osatzen ez badira, *azaga* edo burutu barik geldituko dira erein landareak.

ONDORENA

Platonek ez zuan erabaki ahal izan hitzen doitasuna zertan zen, ez haien jatorria nondiko barbaroena ote zen. Konsonante bakoitzari edukin bata edo bestea ezarri nahi izango zion, baina ezin asma noren erabagiz. Platoniko deitu filosofuek ere ezin zuten amoreman *Logu*⁽⁶⁾ "hitza, Jainko *leku*" euren ustez espiritu hutsa izanik, kristau gnostikoeak Kristogan nortasun gizatua aitortzea. Baina nahiko lukeen *Logo* hitza aztertzea, beragan *Ilu+ko* "Jainko seme gizatua/Jainko *leku*-ko munduan" ulertu ahal izateko. Beraz, hitzaren edukinak ez dio egin iruzurrik fedez autoritari, ez bai-dago kontraesanik *Logu* eta Kristo hitzetan; hitzaren egitura arketipoetan ez ezagutzeak, oster, erratura lerrarazi dezake edozein hermeneuta.

Euskara gomuta zabaleko hizkuntza da eta monosilabotik aglutinadora datorrela, hitz berriak sortzeko edo zaulitara hitzak burutzeko trebezia aparta du, eta hitzaren konposagaiak banaka ezagutu eta bakoitza jatorrizko edukinera itzultzeko ere. Euskarak monosilabo ugari ditu eta bakoitzak dozenerditik gorako edukindun izanik, semandika ezberdineko sareak osatzen ditu. Batean jainko edo gizakien izenak, bestean aberediko edo landaretzakoa, harakoan tokizenak, izenlagunak, aditzak, gramatikako artizkiak, etab. direla. Sareok nastatzeak sortzen ditu "etimo herrikoi" zaleen asmakeriak eta euskaldunok halakotan lar lelakorrak ere ba gara. Beraz, hizkuntzan ere, ez dago dena sare batean sartzerik.

Orain neurri handi baten grekoei eta latinoei euren hitzen sorrera nondikoa duen argitzeko ba da euskara: hizkuntza zaharren artekoa izanik, eta "klasiko" haiek "barbaro" deitu hoietariko, euren aitopenez eta geure ariketaz dakigu hitzen jatorria bilatzeko gei dela, halatan hermeneuten lanabes bikaina getatzen dela. Euskara hitzen jatorria eta, beraz, bere buruaren jatorria bilatzeko ere gei den hizkuntza bakarra da, hatarako ez bai-du bere monosilaboen burura jo eta hizkuntzaren arketipo direnak idoro eta haren ituan azalpena analogizatzea baino.

II. IZADIKO ELEMENTUAK ETA GIZAKIA

Sumeriologoen ez dakite *Ab.zu*^(s) izenak zer esan nahi duen¹, baina euskal ahozkerak behingoan susmo du *Butzu/Putzu* dela hitzetik ortzera, eta hareago, *be+utz* hitzetatik datorrela. Euskarari jarraituz, goiko “espazioari” *utz* deritso eta behekoari *be+utz>butzu*. *Utu/utz* dator hizkunez² eta iduzkiak bere alorra duenez, goiko *utzetik beheko utzera* giran dabil eten abe.

Aldi baten, goiko urak beheko uretatik berezi aurretik, *Nammu*^(s) itxaso nastua zan Sumerren, Egipton *Atum*^(e) zen bezala. *Nammu*^(s)/*Amum*^(eu) eta *Atum*^(e)/*Atton*^(eu) ulertzen ditu euskarak, hasierako *ur utxa>urruxa* eta *ar utxa>arrutza* bezala. Halatan Eridun³ “*ama.utu.an.ki*^(s)”/ama(k) itu, zeru lur” gertatu zan, hango mito zaharrenak kondatzen duenez. Argi dago, beraz, *Ama* zeru-lur sortzailearen aurretikoak, *Amun/Atton* bikotea izan zena⁴. Haraz gero, *amatu/amaitu* hizkune da amatasun epea osatzen duena. *An/Inu* goiko *uin* dela eta *Ki+ur>ekurako* ura, *Nin.Ur.sag*^(s) “Andre Ur saka” zan *Enki* “lurreko Jaunaren” emaztea Sumerreko Baradisuan. Honela hasierako *Sube/Su.ap* eta *Butzu/Ab.zu* mamutzak *Nin.Ursag* eta *Enki* nortasun heldu garatzen ziran gizakien lehen gurasotzat. Sumeriologoen ez dakite nondik *Su.ap* “antxinako *Sube*” den, eta arketipoetara joaz bakarrik uler lezakete *Utu/su+bee/ibai*, ud gozoen ordezkari den “antxinako sube” iruditari, ustez lur biran zen *ibaia* dela, *Utu/ud/su* eratorriak mugidan.

1 “El término *Apsu* derivado del sumerio *Ab.zu*, cuya terminología es desconocida” dinoe sumeriologoen. H. LIMET, “*Abzu/Apsu* (religión sumeria y acadia)”, DR. p. 20)

2 Era berean *Utu/utxa* “ontzi” da, eta hagatik “emaztea” *ur+utxa>urruxa* definitzen da eta latinak ere *uxor* deitzen dio emazteri, gizonetzkoa, aldiz, *ar+utxa>arrutza>arrautza* da, zesuari dagokionez.

3. Eridu Sumerren itxas marrako uririk zaharrenetarikoa zan, antxe jartzten zuten *Enki*, ur gozoen jainkoaren *Ab.zu* tenploa.

4 *Enuma elish* poeman *An.shar*^(s) eta *Ki.shar*^(s) dira Anu “zeru” jainkoaren gurasoak, (*Enuma elish*, I,12), euskararentzat “Zeru zahar eta Lur zahar” bailiran, orain ere, maiz aita-semeak “Joxe zaharra” eta “Joxe gaztea” bereizten diren bezala, edo etxe bereko “andre zaharra” eta “andre gaztea” leztxe.

Sumer *Ki.en.gi* “Enkiren lurra” zan sumertarrentzat; *ki* “lur” eta ez zuten onartzen *Ilu/loi* “lur” jainko semitarren arketipoa, hildura eta ahuleriaren deabru zelakotan, *Ilu/hil* bai dator hizkunez, baina akadiarren bultzadaz, *Enlil*, An jainkoaren ordezkaria onartu egin zuten, sinkretismo ahaleginez eta, akadiarrek *Enlil* “zeru ta lurren Jainko” aitortzen zuten. Kontraesan edo eztabaida hori euskarak onartu egiten du *Ilu/ahal*, *Ilu/hil*, etab. bere hizkUNETAN eta hizkUNTZAREN jainkozko arketipo heinera jasotzen duela. *Eki*, berriz, “zeru-lurren arteko marra” peko *egi* eta “eguzki” esateko edo *Ekain* ohoratzeko erabili izan du, beragan finkatzen duela *egi/egia* hizkunea eta handik etorrazten *giza/gizaki*.

Giza/gizun formaren lehen aitapena⁵, Marduk errege jainkotuari ematen zaizkion ohorezko aipamenetan agertzen da: *Gishnumunab* dino (35) tituloak⁶ eta honela aldatzen du: “herri osoaren sortzailea (...) gizakia bere muinetik egin zuena” edo “*gizuna munape* egin zuena”, *muindu*, alegia, gaztelaniak ere *muñir* dinonez”. *Gizuna* < *giza un* azpimarratzen da, aurretiko gizaki eredua, Kingu, Ab.zu=Tiamaten alde urten zuena, gaitzetsia eta heriotua izan bai-zan, haren odoleko *unaz*, gizaki berria muindutzekotan⁷. *Enuma elish*, babiloniar Poeman antxinako Ama agintea zuntzitu asmoa agertzen da, Tiamat itxasoari eta Kingu⁸ bere alde urten zuen eroiari egin zieten epaian.

Gizakia *uina*, *sua*, *airea*, *loia*, jainkozko elementuez muindua denez, han aurkitzen du bere sorgua eta haien ikuskizun harriga-

5 *Enuma elish*, VII, 89

6 Tituluok, antxinako sumerieraz dagozanez, haraz gero babiloniarrek ez zituzten ulertzen eta, hagatik, izkribariak itzuli egiten ditu garai-kideen ulermenerako. Eta, jakina, sumeriera ulergarriago egiten zaio euskarari babilonierazko forma baino.

7 *Enuma elish*, VI,30

8 Enkik eta jainko gazteek erail egin zioen Tiamati Su.ap, lehen senarra, eta jainkesak Kingu eroia aukeratu zuan bere gudarostearen buruzagi, eta jainkoen *me*^(s) “aduak” eman zizkion iduneko. Mardukek Tiamat=itxasoko urak banandu eta Kingu *gaineriaz* salatzen du, Anu jainkoari *gaina* hartu nahi ziolakoaz. Ohartzekoa da *Eki*, gehiengo kasuan, *Ekain/gain* “eguzki” *Ekaingo* eta Kingu formek duten atxikitasuna eta *king*^(o) “errege” forman dagoena.

2º laburgoa: GONBARATZEKOEN ANALOGIA ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	ERRA	ILU	KA	BA	AS
ain/ein	duin	aren	lain	gino	bein/bai	zein/asina
en/-ino	zoin	arean	aulan	cuán/qué	bezala	zelan'selon
haina/antzo	edu/uti ^(o)	urrian	lez	casa/gisa	veluti ^(o)	jas/yes ^(o)
onan	ide/adina	horrela	olan	kide	bardin	sic'asi'si
nola'onela	oso/total	oro/era	hala	cual	bena	sano
muy/más	txit	real	hola	casi	bezain	sane ^(o)
anitz	sumo	are	alaen	como	presque ^(o)	ya'según
inobre	sobera	aria	alyim ^(o)	gehiago	parecido	zenbait
ainbat	tantø/tal	eurrez	alako	igual	vix'pene ^(o)	zehatz
máxime	dia'thusto	erruz	lar	guzti	hartø/bien	aski'asko
nahiko	doi, soil	ralo	alaso	gutxi	poxi'poco	aseki'assed
minus	ttantta	real	labur	eiki	vere, bai	eskaz
noski	utique	ordea	alegia	contra	bestela	ziurto'certe
ansi/ante	tint'edo	arras	aliter	agian	baina'pero	siquiera
modo	talante/tipo	eredu/orden	lege/ley	criterio	forma	zentzu
nomma'mota	edu/usario	rasero	laia	clase	baremo	especie'sail

Sorkuntza arte lana denez gero, arketipo bakoitzak berera sortzen eta markatzen du autoritatea, jainkozkoa dela edo gizatiar egilea, *Inkoak in, gizakiak egin* jakinduriaren araberan. Sortzaileen izenarekin gonbaratzen dira sorkariak

rrietan susmatzen ditu jainko sortzaileen arpegiak: *Inu/uin* “zeru/ura”, *Utu/su* “iduski/su”, *Erra/aire* “iruski/aire”, eta *Ilu/loi* “alor/lur” jainko izenak euren sorkariez berdintzen dira, eta giza hitzak jainko arketipook behar zituana, bere bersorkuntzan *esan/izan* arrakasta izan zezan.

2.1. Lehen kosmologia eta teologia

Kosmologiako lau elementuetan parte hartzeak eman zion giza-kiari izatea eta nortasunoi dei egiteak sortu zuan lehen teologia. Jaioberriak negar egiten du, baina “ama” izena ikastean hasten da gurasoarekiko elkarriketa. “Ama” izan ohi da haurrak ikasten duen lehen dei otsa, amagan ezagutzen duelako bere beharrak bete ditzaken unea. Horrela sortzen da ama-umeen arteko harremana eta maitasuna: kosmogoniaman duen ama irudia berak jarraitzen du teologian eta, ustez, zerura igoneko *uinak* dira bera *inutzen* duten *Inu* “zeru” jainkoa eta *Antu* “antu, handia” da Sume-

rren eta *Nut* “inude” Egipton. *Ama.utu* > *amatu* denetik, arketipo bikoizdun dager *An+Utu* “zeru+iduzki”, *ama/aita* arketipoen ordezkari direnak eta, *aita aitatzen* denez gero, giza familia eredu garatua zela ematen du eta gurasoekiko harremanak orekatzen zituztela jainkoekikoak ere: maitatiagoak ama heinean, zorrotzagoak aita duiean (Ikus gonbaratzeko ereduak 2^o laburgoan).

Egiptoko kosmologia eta teologia *Atum*^(eu)/*Atton*^(eu) aglutinatuan hasten da, *Nut* “zeru ama” dela Erra “iruski” jainkoaren ama, egunero hagandik urten eta arratzero harek hartzen zuena. “Eguzki santu bedeinkatue, soaz zeure amagana” agurra egin izan zaio aldi bateko Euskal herrian ere⁹. *Mut* jainkesa, *moto* berezia duela buruko, jesarten da Amon-Ra Tebasko jainkoaren eskumaldean. Aldi batean *moto* hori zan euskaldungoan emakumeari seinuz andre tituloa ematen ziona: amatasuna/aitatasuna elkarkide eta elkarren heineko ematen ziran ezbaigabe, baina, hala ere, emaztea eskumaldean, aita-aginteak ama-aginteari lehentasuna eman eta ohore egiten ziola. Horrela ulertzen da *Ma.at* jainkoen sorgu, eta izadiko legeen doitasun eta zuzentasun orekaren zaindaria etsaien aurka, hagatik gizakiei bere aldeko ahalegina eskatzea: “ez egin gaitzik, egia esan, zuzenbidea egin, betiko bizia lor ahal izateko”. *Ma.at* egipton eta usko-mediterranean zibiliazioan *Ama Ate* deituriko erlijioa izan da eta azken juzoaren ebazpena aldekoa izan dadin, otoitza eskatzen da hilerrietako oroitarrietan¹⁰.


Ma.at jainkesaren manatuak eta *Mari* jainkesak haurren jokabiderako ezarri marrak elkarrekin bat datoz seme-alaben ona bilakeran: “ez ostu, ez gezurrik esan, ez inor hil, ez harrotu, elkar errespetatu, eman hitza bete, eta elkarri lagundu”¹¹ aginduak ere *Ma.at/maite* eta *Mari/amore*^(eu)/*amari*^(l) dute oinarri eta sortzailaganako dedua eta kideaganako begiramena eskatzen du, *Ma.aten* balantzako azken juzoa eta Mariren marrei egin markak, Markitosi Zalduondoko Inotean egiten zaion juzoa sor zaie-

9 J. M. BARANDIARÁN, *Mitología vasca*, o, c, p. 16

10 A. ARNAIZ VILLENA, J. ALONSO GARCÍA, *Egipcios, bereberes, guan-ches y vascos*, p.438-441

11 SORAZU, E. *Antropología y religión en el Pueblo Vasco*, o.c. p. 290

Ma.at⁽⁶⁾, zuzenbide eta jakinduriren jainkesa, *matoa* esku batean eta *ank*⁽⁶⁾ “bizi asa/arnasa” bestean duela, “Ma.at-en aginduak betetzeak piramideak baino hobeto gordetzen bai-du bizia” egitiar jakinduriak dinonez. Eskuan duen *mato*>*mazoa* bere *masu*⁽⁶⁾/*maisu*/*maese* ofizioaren sinbolo eta hitzaren sorleku da, ama, *amatu* denez gero, berea bai du eginkizuna eta halatan amatigatzen du izadia eta gizartea. Beragandik hartu zuten *Mosek* eta Faraoi askok ere izena eta *masu* ospea. Berak juzkatzen zituan zenduen bihotzak pisuan: *Ma.at*-en balantza *matematikoa* da. Ama agintearen herriak berari zion jaiera ondo adierazten du *Ma.at*/*maite* hizkuneak, *amatu*>*amadu* den beztean. Usko-mediterranean erlijio-koek *M T* idazten dute bere izena hilobiko oroitarrietan. *AMA.ATE* irakurten dute aldatzaileek, mundu honetara edatu gaituen ama bera bailitzan beste mundurako bidea ere, “Zeruko Atea” Andre Mariaren arrenetan otoizten den beala. Ama-aginteko *Ma.at* eta *Mari* jainkosen aginduak elkarren antzekoak dira. Izenez *An+Utü/An+Erra* “zeru+eguzki” bereizten eta antzeko egiten ditu. *Ma.at*-ek artesian eta majian du indar gehiago, Marikumeen aukerako ezetz/baietz aukeran.



la. (Ikus 31 or.) Grekoek eurak ere ez ziran “ikasiak” *mazeos* izanago *Ma.at*-en *mato*^(eu)>*mazo* analogiaz, *masu*^(s)/*maisu*^(eu) eskolaren ospea izan ez balute, (Ikus *Ma.at* irudia 39 or.) ez eta juzoko balantza *matematikoa* ezagutu ahal izango Europak.

Euskara ama deritzaio, bestalde, euskara biziaren memoriari eta berak *Ama* Jainko zerutarra du gogotan eta hagandiko arketipoa hizkuntzaren erroetan zine arrandi batez aipatu *Amalur*¹² “Mater Tellure⁽¹⁾” post-romaniko kalkatua bultzatu zueno. Halako luisuak

antropologiazko eresia sor dezake edo teologian bertan, galdetzekoa bai-da “Ebaren ume erbestetuok” nondiko amagan duten sortze eta itxaropen edo zer den lurra berez, jasan ezin mortua baino, “zeru” Ama Inuk goiko uinez eta eñez inutuko ezpalitu bere umeak.

2.2. Errittoa edo aldizko ospakizuna

Eguzkiaren joan-etorriak neurtzen ditu egunak eta urteak, haitak eta aroak. Aro formak Oruse/Orzi, Erra ilobaren arketipoa du, *haita* Utu edukoa eta *Ononzaro* eta *Subilaro* errittoa berezietz gogoratzen ditugu. Babilonian *Anum.zaro*^(s) ospakizunean “Anu-ren sorkuntza” oroitzen zuten urtero¹³. Gurean *Ononzaroz* urteko uren banaketa ospatzen zan Urte Berriko zotalegunetan eta *Subilaroz* iduzki ertuari besu gehigarria ornitzen saiatzen ziran. Izadiko umeak ziran eta izadi Ama bizi zuten, Inu Amari inoz eta inziniz onura eskatuz. Zientziak, ostera, urtegiaren eukia neurtzen du eta ahorteia susmo duenean, ur neurria doitzen. Ba daki, agian, lehortea gizarteak Ama izadiari egin kutsadura irainaren ondore dena. Jendea damu da uraren neurketaz, izadi Amari egin irainaz baino hareago. Lehena-go, Subilaroz barkamena eskatzen zitzaon basoari, subila ostutzea-gatik, orain lurrari ostu petrolioak eta gazak lurra bera zauritzen dute kutzaduraz. Merezki al du izadi-gizadi Amarekin harreman eztiagoak izatea, ala umetzaroa joan al zan betiko? Edo zientziak ez al du eguno onartu behar herrien mitoez gordetzen duten jakinduria?

Errittoa entzutetsuenak gure artean *Inote* eta *Jote* ospakizunak dira: *Inote* “Inoren haita”/garaia. *Inotez* Nut Amari urteko *uin*, *inontzak* agindu eta *inotsi* ditzan eskatzen zaio; *iñudeek*, *nini* eta *umeentzako eñea*, *unaiek*, *annu*^(l) “urteko” *anho*^(au)/*anonna*^(l), *ainek*, *antxumeek*, etab¹⁴. (Ikus Donostiako Inotea 41 Or.)

>edo erdal pentsakeraren morroi izateak sortzen dio halako baztergoa euskaldungoari, bere muina edo oinarriak iraultzeko zorian jartzen duela.

13 *Zaru*^(s) “ernaldu” (LARA PEINADO, F., *Enuma elish*, *Introducción*, o.c., p. 34) *An*^(s)/*Anu*^(a)/*Anum*^(a), *Anum.zaru* “Anuren ernaltze”. Cf. *azaro*<*hazi aro*>-*zaro* “aldi.”

14 Antxinako jainkoa *IN* izan behar zuela dino J. M^a. Barandianek (*Mitología vasca*, o.c. p. 136) zerutik *inotsi* sorkariak *iN* kontsonantez has-ten direlako: *inusturi*, *inatzi*, etab. *Inote* forma berak argiago dino eta *iNu* hitz beraz ezagutzen zuten “Jainkoa” antxinako urartiarrek ere.



INOTEZ INU AMARI INO eta *inzini* Donostiako *Inotez inudeek niniekin* eta *unaiekin* batean parte hartzen dutela. *Uina inotsi* eta *hurra uintu* eta *ondu* dezake *Inu* “zeru Amari” inoz eta *aienez* kalejiran, *umek* inutzeko *eñea* eta *añoia* emankor eta *onuratsu* izan dadin urteburuan edo arestiko eskasiagatik *enoia* adierazten diote. *Unaiek* ere mainataren mantenua begiratu behar dute *aine*, *aume*, *antxume* eta *auntzetan* nahiko *ano* anzokatu ahal izateko (Ikus *Inu* “zeru amari” egin ohiuen zerrenda)

N/M deituraz ezagutzen diren hainbeste *ano* mokau eta *manak* argi adierazten du antxinako Jainkoa “zeru” *Ama* zena edo *An/Inu* arketipoaren *Ama*, hagandik *antxi nahi* bai zuten *mantenua*. Amarekiko harremanok sortu zuten *ino* aditza, *ino* goralpena eta *aiene* *inzini* abestua, bizitzaren pozak eta nekeak ospatzean.

Antxinako Amumaren ondarea *amatu* zenetik *ama.utu* arketipo biok elkarrekin jokutzen dute eta *Inote* aldiarekin ostaz bereizten da, bata bestearenak bai-dira, *Inuk* *Uturen* beroaz emankor egiten bai-du *hurra* eta prestatzen mahaia¹⁵. *Inuk uintu*, *ondu* egiten du *hurra*, *Utuk tuldu* eta *zoldu* lurreko frutuak¹⁶. *Jote* ospakizunak *Uturen tuta jot*en du, eta *jota oihukatzen*, berarekin herri dustia daroela *uda*-leheneratz. (Ikus *Jotea* 43 or.)

Erritooñ ohikuna, izena eta janzkera sumeriar tunturroarekin

15 Egipton *Nut* da, *-t* atzizkia da emetasun hizki seinua, euskaraz *Mait*e, edo *Arte* jainkosen oroitzan edo *ar/ardi* eratan, *errientza*, *alkatesa*, diren lez.

16 *Tuldu>zoldu>solear* “umatu” elkarren eratorri direnez gero, ondo ulertzen da *Ut*u/su etortea eta *Ut*u+*Il*u>*Sole*⁽¹⁾/*Elios*⁽²⁾ haien eratorri aglutinaduak izatea. Euskarazko *Iduski* izena ere “*Ut*u kume” adierazten dator.


ondo datoz eta *Arte* jainkosa izenak *Erra* iruskiaren ahoko *errate* sortzaileak *arteziz artetsi* arrakasta gogoratzen digu edo haren sendiko *Oruse* ilobaren *Oronzaro* eta *Orite* "oroï aroa/haita" adierazten, "antxinako" *arkhe*⁽⁹⁾ sorkuntzak gaurkoekin duten bilgunea azpimarratzen dute, beti ere hizkuntza arketipoei begira: *Inori no*, *Uturi otoi*, *Errari orro*, eta azkenik, *Iluri ulu* diharduela.

Erritooan arian, azken aldietakoa eta egunotan, medioen bul-tzadaz indar handia hartzen duen *Olen+tzaro* dator, *Ilu+en*^(eu)/*Elohim*⁽⁹⁾ "jainkoen", *ahal>alena* datorren bezala¹⁷, kristautasunari *oles* egitera eta, beraz, *Iluri ole/iole leloak* abestera. Aurreko jainko-arketipoek egin zuten bide bera egin eta mezua osatzera dator: errien mitoak, ohargabeen edo ohartuan, herriaren sentikera direnez, profetagitzairen espiritu berekoak direla adierazten. Mezua *Inu* zerutik inotsi eta *Ilu* lurreko loa lixibatzeraz dator izadiko lau elementuen goraintzia eta ospakizuna egiten dugula. *Iluk* ere bere *aldia* izan behar zuan Lotaziletik esnatu eta *olde* berriko lorea lor zezan¹⁸. *Ilu* arketipoak labur eta luze lotzen gaitu bere elera, batian lo, bestean lehia, lahia edo ahul hilteraino, bera ere lekutik, edo lekutatik, aldien eta lekuen lekuko dugula.

Euskarak ondo bereizten ditu izadiko lau elementuok eta jainkoei oinazpiko opa mendien izenak aipatzen ditu, *Ainamendi* zeruak ikutzen duenari eta *Ilumendi*, itxaso edo ibaia alboan duenari eta goi-beheak arakatzen diharduten iduzki/iruzkiari, *Otamendi* eta *Erramendi* bezala. Eta, areago, jainkoon izenok bere bihozkada ezberdinen ohiuzko eta elekeraren arketipo aukeratu zituan Neolitos hasieratik. Sumerrek eta Egiptok ere izadia jainko nor biziak bezala erakusten dizkigute, eta grekoek, azkenik, kosmologia/teologia landu bezala hiruzkinduago aurkezten. Elementuon nortasuna ohartuz, batzuk gaikiak eta besteak espirituzkoak direla dinosku Empedokles filosofuak eta euron nastetik

17 Halloween arrasto bereko ospakizuna izan behar du, umeen eska-bideekin ere bat bai-dator.

18 Urartun ba zan *Haldi* izeneko jainkesa bat, golde eta guzti lanerako prest dagoena, *aldia alde* dogunean *landu* behar bai-da *alorra* (Ikus 127 or.).



JOTEZ UTU AITARI OHIU
Joale gidariak *tuta* edo *adarr*a *joten* dute, *Ut* atxina doalako deian, harekin batera *joateko*. Aldi bateko euskaldunak *jotea/jota* abesten zuan *oju/oihu/ujui* alaien artean. *Joaleak tunturroz* jansten dira, sumeriarren antzera, eta apaiz jantzi zuriez eta *idixatze*zko ixipuz ornitu doaz ereiteko diren solorik solo barazkien gaitzak ahienatze-*ra. Ut, ux, oste, oster!* dira gaitzak *uxatzeko* oihuetarikoak. Idiak lur landua eman-*kor egiteko* artezia zuan. *Deiadarrean* arranak dulunka *joten* dute aurretik, Kristo aurretiko prozezioan. Honek joanez gero, dagoneko, *Jote-
etako* erakusketa bakarrik gelditzen da, gure asabek ziren giza erlijiosoaren oroigarri.

datozela sorkari guztiak. Hasiara baten elementuotan maitasuna gailentzen zela batasunerako, baina gorrotoak galdu omen zuela euren arteko *harremona* zen *armonia* eta aldebanatu egin zirela. Gero tarteka-marteka maitasunak eta gorrotoak gidatzen omen ditu batean bateratsu, bestean banandu. Eta gizakia, berez maite gogo dena, tarteka gorroto ontzi idarokitzen dela.

Beraz, aldien bereizketa eta ospakizunean, honez gero ez dago esaterik Olentzero, Subilaro bera dela beste izen batekin. Ala janzkerak bakarrik bereizten ditu baserriko inauteriak kalekoengandik? Maiz janzkerak eta euskarak. Hala ere, sakonera joteko, izenen aldaketa aztertu behar da. Euskarak eta antzinakoen jakinduriak bereizketarako nahiko xehetasun ematen bai-digute.

2.3. Jainko izenak hitzaren arketipo

Jakinik izadiko elementuak jainko sorkariak direna eta gizarteko eztabaiden artean herriko botsak edo agintearenak bultzatzen duena, hitzaren doinuak erabagi behar ziran eta jainkoek sorkuntzan izan zuten **onua**, **autua**, **eritzia** eta **aholkua** baitipat, (Ikus esan hitz-aditzen analogien 3^o laburgoa) gizakien ahotan ere hitzok *Inu/in*, *Utu/itu*, *Erra/arri*, *Ilu/âl* araberan hitzaren sorbide izan zitezten. "Izenak nola asmastu? -galdetzen du Platonek *Kratylon* eta honela erantzuten: "Zerua edo eguzkia adierazteko heria jasoz, adibidez." (433-d).

Sumer eta Egiptoko abadeen arduretariko bat hiztegiak egitea zan, hitzak sortu eta antolatzea, alegia. Hiztegiok erritorako hitz erabakigarria asmatzeko egiten ziran eta berdin herriari jainkoarekikoak artez egiten laguntzeko eta oker esanak alperriko edo asmoen kontrako ondorerik izan ez zezaten, "esanak izana dino". Lau arketipootan ze esparru eman behar zitzaion arketipo bakoitzari hiztegiari? ¹⁹. Tenplo bakoitzak bere jainkoaren izena saktitzen zuan: *An* eta *Utu* Sumerren, *Erra* Egipton, *Ilu* Ugariten. Ze eredu ordezkatzan zuan bakoitzak? Euskararen hiztegiari begira, *An* arketipoak *amaren* maina bultzatzen du, *Utuk*, *aitaren* edua, *Errak eroiaren* eredia eta *Iluk lekukoaren* legea ²⁰. Horrela, Mesopotamian eta Egipton ikusten denez, hitzak berez baino hareago Jainko-arketipo indarrez egiztatzen zuan esana edo ekintza, *ino/in* majiaren arabera, alegia. Hatarako hitzaren sorguak ere garbiak izan behar zuten: ez onar jainko iraultzarik, hitzaren arketipoak alda ezinak iraun behar bai-zuten bakoitza bere mailan, mitologika giza logikaz ondo oratzekotan. Jainko sortzaileok izadian ohartu eta haien izenak mendi santutegietan ohoratu, Euskal Herrian ohi bezala, harekiko loturak estutu eta jaiera urtean zehar ospatu, haiekiko eredia zaindu, bai hitza sortzean, bai jarraibidean. Euskararen arnasa mitologia horretan garatzen da eta, ostera, halako jainko ereduaren peituz, ulertuen

19

E. LIMET "Panteón (religiones mesopotámicas, o.c. p. 1357

20

F. ZUBIAGA, *Vascuence, inconsciente colectivo*, p. 17-31.



Olentzarok laugarren postua dauka jainkozko arketipoen txandan, Inote, Jote, Orite ostean, Olde dator, besteak beste, bere mezua Gabon aldiaz berdintzen da fededunengan. Euskarak ole, iole, ale alaiekin laudatzen du bere aldia. Olen/Noel dator eta "Jesus jaio dalako" noelak lelotzen dira bere mezua adierazten. Asabegandik datorren agintzaria da eta, haga-tik, "agure" old²¹ ulduaren antza du piurak.

arabera, hebraierak, adibidez, hizkuntza bezala ezin izan zuan osotasuna lortu, bere hitza beti ere Yahwéh Jainkoaren espirituari lotua zegoelako, hitzaren arketipoeri baino hareago eta aldiko profetaren eraginez, uneko fedea bilakatzen zuan ²¹.

Hitzaren sorgu jator honen ezjakinian, *Kratylo* inguruko hizketariak konsonante bakoitzak ze balore duen galdetzen dute, irudigileen bustingiko arteziaz edo margolarien koloreen banaketan agertzen den antzaz gonbaratuz, eta "ahotsak zertan mimatzen dute hitzak adierazia, **r** leterak mogimendua (426 -c)", adibidez? Arketipoari zor zaion begirunerik ezean, ezin antzeman. Baina *Ra/ro>reo/roho* hizkunez elkarganatu bazituzten, arketipoak berak emango zien erantzuna, bada *Erra* iruskia *arriaka* eta *arain/ereinka*, erroda bailitzan, bai-dabil ibili gelditu gabe ²². Baina Platonen solastariok leterara begiratzen zuten, ots, hitzaren bigarren heskerara eta leterak segetua ostutzen

²¹ "PALABRA", Dic.B, p, 1407-1408

²² Zamariak arreatzeko *arre/arri* oihuez oldartzen dira, nonbait jainkoaren eskutik jaso abereok, haren izenera majiazko erantzuna izan zezakelakoan edo haiekiko ulermen berezia sortu. (Ikus oihuskoak 1^o laburgoan)

zien, ez horrela, hatzamarrera begiratu barik, hatzamarrak adierazten zien tokira so egin bazuten.

Grekolatinoentzat jadanik *elios*^(g) zan “iduzkia” eta haren argiak desbidetu egiten zituan hitzaren jatorritik. Alperriko aikomaikoe-tan galdetuko dute *Kratylon* autulariak *elios* edo *eter* izenak nondiko diren ezjakinian, ez dute ulertzen euren hizkuntza. Euskarak, ordea, ba daki *Utu/su* iduskiak *soldu* egiten duela *Ilu/loi*=lurra eta *sole*^(l)/*elios*^(g) elkarren aurre eta infrentsu direna eta *eter*>*eder*, berriz, *Utu+Erra* iduzki/iruskiak bere ibilian edertzen duten eremua. *Kratylo-ko* solaskariek ez dakite *udor*^(g) (409-c) “*ud/ur*” hitza nondik datorren eta euskarak birritan azaldu diezakeie. “Sokrate: Esango al didazu zergatik deritzaion suari *pyr*? Hermogene: Ez, Jainkoarren” (409-d). Arketipoei begira, euskarak *be+Utu>su>besu>fos*^(g) egiten du eta, era berean, *be+Erra>erre>pyr*^(g)²³ dator.

Grekoen literaturak mitoak uharitu zituan, eta halako ostrotzan hitzaren lau arketipoak oharpenetik aienatu egin zitzaizkien eta haien ordezkari diren *n/t/r/l* leterak batak hau eta bestea hura adierazteko ze deabruen eragina duten galdetzen dute. Euskarak ostera, leteraren heskeratik ate, jatorrizko doinuren jagole, ohiuzko bakoitzean jainko sortzaileekin du elkarrizketa argia.

Euskaldunok ere galde diezaikegu grekoeri: zergatik zuentzat *Eros/hero*i dena, guretzat *eroi/ero* da? Edo guretzat *Eros/Erios* edo *Ero/Erio* dena zuek zergatik bereizten duzue *Eros/Zanatos*? Ez ote da hor zuen aipagarri gure *zan/zena* bere helburuko *atean*?²⁴ Dena dator *Erra* jainkoaren mito/teologiatik, bera baida *ramu*^(e)/*amore*^{(eu)(l)}, bera *erru* eta *erra*, *Erio* eta *erruki*. *Kratylo* inguruko hizketariak ezagutzen dute behenipehin eurek erabilten dituzten hitz asko “barbaroengadik” mailebatuak direna (409- e),

23 Exempletan ikusten denez, gerker a antropos uneko jakindurian garatu zan: eta ez du kosmos garaiko monosilaboekin loturarik, euskarak, ostera, *Eriniomendi/Piriniomendi* formekin lotura du, *B* arketipoak giza *ba/baita* eta *behea* ordezkatzan diola.

24 *Zanatan* “hila atean” izaten da formula arruntena *Ama.ata* usko-mediterranean erlijio hiliarrietako oroitarrietan eta horra grekarrek aurretiko “barbaroengadik” entzun hitza *zanatan*, handik *zanatos/zanatos* deklinatzeko.

3^o laburgoa: ESAN IZEN ETA ADITZAK ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	ERRA	ILU	KA	BA	AS
ino, aien	otoi'otu	erran	ela'ele'uhu	kexa'agoz	ipoin	esan
mu	hots/hitz	erasi	aholku	quejarse	berba	seger
muxin	heita'itun	eresi'ersu ⁶	lelo'laleo	galde	berbatu	silenciar
oinon	huita	erregu	elaire'oles	uka	bavarder	sesto
onua	jote	eragon	elegin	gezur	balbucir	sermone+
inka'antzi	aitatu	erosta	elekatu	criticar	abestu	saludar
narrar	aitor'auto	eritxi	elasa	contar	avisar	chanter
nuntio+	autortu	errezu	alakatu	clamar	psalere+	santzo
mezu	deitu	orar'rezar	loxingatu	garraxi,	vocear	aztertu
mito	deithatu	errieta	loquere+	gritar	baieztu	senton
mintzo	destain	rejerta	laudare+	keruptto+	afirmar	centón
murrika	docere+	arramaka	lekaio	kantatu	palabra	esakun
murmurio	edatsi	irargi	elogiar	cantar-	parabole+	sentencia
masiatu	hizketa	irakurri	alamen	gazitigatu	ahapaldi	iskirio
eneatu	atsotitz	iruzkindu	aldia	glota+	falar	
mentar	azaldu	ordeinatu	aldarri	glosar	hablar	

Ohar: grekar eta latindar izenak + gurutzaz seinالاتu agertzen dira

baina latinoek edo erromanikoen ez dute ezagutzen halakoengandik, hareago euskaragandik, gauza onik jaraunsi zezaketen.

Literatura bat beste eskola bateko literauratik dator eta, era berean, hizkuntza bat beste hizkuntzatik. Ulertuenen arabera, sumerera ez da ulertzen, akadieraren laguntza gabe, ez eta akadiera sumereraren argibide barik. Harritzekoa da mota ezberdineko hizkuntza askotan ikasiek ere ez dutela sumeriaren antzekorik idorotzen²⁶. "Lehen saioko sumeriar hitz asko adigaitzak eta edukin ilunekoak dira, agertuko al da ikasiagoren bat arazoa zehatzki argitzen" kexu da S. N. KRAMER autorearen²⁷.

Sumererari, nonbait, euskarari jasoten zaiona bera gertatzen zaio, ustez, beste guztiengandik ezberdina izanik, ez ezagunen gela ilunera egotzi zutela hizkuntzalariek, zuzengabekeria handienaz. Ea, bada, sumeriologoek sumeriera interpretatzeko eskeintzen zaien euskarak ezertarako balio dien, ez misterio bata


bestez argitzearren, ezpaere haien eta euskararen arketipoak ber-bereak izanik, hermeneuta argigarri gerta daitelako baino.

2.4. Giza konplexua hitzaren arketipo

Bachelor sikiatrak izadiko lau elementuetan ez zuan ikusten jainko arrasto handirik, bai, ostera, giza irudimena inutu, eta haren barne iruditeria harrotu eta lau iltzeekin bezala finkatzen duen harrobia eta hizkuntzaren hazkarri diren hormonak bertan ezagutzeraino. Gizakiaren bizigarri diren izadiko elementuotan irudimenaren oinarria baino gehiago idoroten zuan, hala ere, Jung sikologistak, giza beraren eta gizatalde ohargabearen arketipoak aipatzean eta arketipootan sortzailearen arrasto susmogarriak. Edo zer dago gizakiagan lau elementuotatik ate edo zer dira lau elementuok, lau sinbolo eta lau arketipo izatez landa, gaurko giza zientzilariek ere haietan zerbait jainkotiar suma dezaten?

Gizakiak izadiko lau elementuak berezi eta haien ikerketan izadiaren azala baino ez zuan aztertu. Baina kosmoa barneratu zuan, sakonago ikertu ahal izan zuan baitatik espaziora eta espaziotik baitara, eta nahiz “norbere barrena ezagutzen gaitzena” aitortu, kosmoko lau elementuen partekide izaki, izadiko kumetzat aitortu zuan gizakiak bere burua. Bera ez da *uina* bakarrik, ez *sua* soilik edo *airea*, ez *loi*, denetik pixka bat baizik. Enpedoklek elementu batzuk gaikiak eta beste batzuk espirituzkoak berezi baino lehenago, egiptziar sikologiak gizakiagan *Ka* eta *Ba* elementuak bereizten zituan eta “gizakia” *geb*^(e) arketipo bikoitzeko definitzen (Ikus 29 or.), batetik agiriko *kai>gai* “materia” dena eta bestetik, *ba/baita*, euskarak ere hitzetik ortzeraino gogoratzen duena eta bizian bata bestearen *kabi*^(au)/*geb*^(e) direla, hala gorputza animaren kaizu. *Ka* gaiki den elementutik jaregitean, *Ba*, *ave* “txoria” balitzan, *Ka* kabiaren apez bizi da, jaregin, baina *Ka* biziberritu dezaken *aS/ats* arnasa elementu berriaren zain²⁸. (Ikus irudia 49 or.)

28 *Ba* honen eta *Ka* artean dagoen atezu biziak argi adierazten du gure asaben sikologiak ez zuela arima bata hil ostean beste inoren gorpuzki batera alda zeitekeniko usterik, lehengora itzultzea irrika bai-zuten. Horrela adierazten dute gizakia, izatez konplexua izanik ere, nor batua dela, bakoi->



Ka "kaia" hil eta gero, Ba kabitik aldendu txoria bezain aske gelditzen da, noiz berriro kabira itzuliko zain. Ba giza arpegidun ave "txori" antzera dager eta Benu⁽⁶⁾ den Fenix txoria ere ordezkaten du, biek ere berbizkundera itzaroten baidute. Ka momiak arpegiko irudia erakusten du, Bak datorreneko, ezagutu ahal dezan. Atzaparretan darraren erastunak elkarren arteko fedea adierazten du.

Maitasuna eta gorrotoak ere nonbait hortxe, gizakiaren bi elementuotan, norbere materia eta espirituaren artean dute euren bilkura eta burruka. Hagatik, eztabaida hau argitzearren, gizakiak *Ka* eta *Ba* arketipoak aurreratu zituan gizakiak jainkoekin zuen eztabaida garbitzekotan.

Giza *Ka* zerbait ezkorra eta giza "gaitza" *kakia*⁽⁶⁾ zan eta, berez, jainkozko arketipoekin azaltzeko ez-gei zan, ez zelako egoki hilkorra jainkoen iraunkortasunarekin nastatzea. Bakoitzak bere gaiakiaz antzestu behar du idea eta haren soinuaz ahozkatu. Hagatik "*ka/kia*" hitzak ukapena dino, "*ba/bai*" baimen eta baikortasuna bezala, eta *-ka/ -ke* atzizkiek, hala "*ganoka, izateke*", *gano* eta *izate* edukinen aurkakoak dira. Beraz, *Inu* seme gizatua adierazteko, egoki zan *Inka/Inko* hitza asmatzea, Inuren partekide zela adierazteko, ezegoki, ostera, *Ekain* edo *Kingu* deitzea²⁹.

Biren arteko auzia ebazteko arartekoa behar izaten da, nola ebarazi, ostera, norbere elementuetan aurkitzen den eztabaida?

>tzak hasieratik egokitu zitzaion kabia duela gogoko. Arima erratuek ezin diezaiokela, beraz, ostu inori tokirik, "Oriko txoria Orin laket" esan ohi denez.

²⁹ Hagatik gaitzetzaiak izan ziran Babilonian eta Urritian *Kingu* eta *Kumarbi*, An jainkoari gainartzeagatik, orobat *Kain* Biblian, Abel hilteagatik, ots, *Ka* ganerriak *Ba* apala zapaldu zuelako. *Eki*>*Ekain* "eguzkia" aldia markatzeko hila da, ez zaio beste jainko lamarik gelditzen gure artean.

Gizakia, bere kisa, *Ka* bere gaineria eta erabat *Ba* bere apalgoaren artean biderdi egiteko ezindua aurkitzen zan, "nahiz hobeak ikusi eta hauteman, gaitzenak ditut jarraitzen" esan ohi den bezala³⁰. *Ka* eta *Ba* kideen arteko gogoeta ere halakoxea da Egiptoko jakindurian: "Ene *ba*, *bizitza* honetan *bagea biguntzeko* ezin *balia* zarena (...) *Bizitza ba* dator eta *ba* doa, zuhaitzekino *beheratzen bai*-dira. Ara, *bada*, *ba/baitak* esan zuena: Ez ete zara, *ba*, gizaki *bat*? *Bizirik* zagoz *bai*, *baina* ze onura ematen dizu *bizitza*? Eta nik esan nion: *Bat* ez da *fan*, *baina* dena galdu dut (...) Ene *baitak barruntzen badit*..."³¹

Mesopotamian oreto zen gnostikoen jakinduriak gizakiaren gaikiari egozten zion gaineria errua, euskarak ere, gaitza eta ukapena adierazteko hizkuntzan erabilten duen *Ka* arketipoari alegia, eta *Ba* baitaren apalgoari esker, merezi hal izan omen zuan, ostera, goitiko salbabidea³², euskarak *bai*, *baimen*, *baitu* esan eta *bide* eta *fede* egiteko darabilen arketipoari, hain zuzen³³. Gizakiak *Ka/Ba* ezbai eta eztabaida honetan erantzun ziurra behar zuan eta errietoaren puruz lortu ahal izan zuan jainkoengandiko duintasun zehatza eman zezaioken ziurtasuna, heriotzean *akh/aj* "aintza" opa ziona Egipton eta jainkoen aurrean jaiki edo exeri izateko *zi-d^(s)* santutasun *xit* zehatza Sumerren, haraz gero errietoa sinatzen duen hizkuntzak *Ats/As* arketipoz egizta zezan. *Zi.d^(s)* hitzak izakiaren zuzentasuna eta osotasuna adierazten du, gizakiak bere mailan har dezaken Jainko santutasuna³⁴. Harritzekoa da euskarak gauza bera adierazi nahia *xit/txit* hitzarekin, ots, "inobre, osoro, antsi" edo *zietz/zehatz* formez baliatzea gauza "fin, berdin, garbiro" egina dagoela adierazteko. Izan ere, giza *bizitza As* "arna-

30 "Video meliora proboque, deteriora sequor" (Ovidio)

31 *El diálogo desesperado con su ba*, 19-40, DB., nº 26. Cf. Letera makurrak *Ba* arketipoak burutzen dituen hitzak adierazteko dira.

32 J.M. SEVRIN, "Valentinismo". DR, p.180

33 Hala, *larre/belar*, *ara/ibar*, *aratz/baratz*, *ar/abere*, *arte/parte*, etab. formatan. Honek ez du esan nahi euskararen jokabidea gnostikoen ondore denik, gnostikoek eritzi zabalago eta zaharrago baten eskolako zirela baino.

34 RIES, J. "SAGRADO -2. La expresión de los sagrado en el mundo sumero-babilónico", DR., o. c., p. 1577-1578)

sa" da eta giza konplexuko *Ka/Ba* arteko batasuna *asa as.peratu* eta *asperatze/inspiración* horretatik dator, bera bai-da *espiritu/spiritu*⁽⁷⁾ bizigarriaren sinbolo. Haraz gero, izenen zerrendan ere, *An* zena *San* izango da eta *Inko* zena *Xainko* eta *ekura/ekur* santutegi zena, *zikuratu*, eta *ekuri* zena *seguru/sigur*>*ziur*, etab.

2.5. As giza konplexuren emendioa

Jainkoari begira dagoenak ez omen du berebiziko asmoa osatuko, Lacan sikiatraren ustez, beste inorgandik zerbait itxaro duelako. Hala ere, seme-alabak nahi dituen edozein gizonak emaztea aukeratzen du, bere nortasuna inolaz ere zapuzteko arrisku gabe. Jung sikologariak, ostera, gizakiak, bere arketipoa burutu ahal izateko, Bestearen arketipoa beharrezko duela dino³⁵ edo, herriak aitortzen duenez, "geurez ez bai-gara inor". Mendiak itzi eta, Sumerren bezala, ibarraldean laborari egina zirenak jainkoen urruntea sentitzen zuten, eta damu ziran eurek uriko aterpean bizi bizi zirelarik jainkoak eguran uzteaz (Sal 3,3-5) hanarteko izurri eta gaitzak ere ezardura horri egozten zizkiotela. Mendirik ezean, nola erakarri egurako jainkoak kale-kalera, gertutik ekurtzeko? *Ekura/gora* da hizkunez eta *ekura* hainako *etxea zikuratua* jasoko zioten Jainkoari eta, Jainkoei uriko bidea erakusteko, tenplo berritik Ekurmendira *akitian*³⁶ kurrikak egin edo, atiarrek bezala, jainkoak berrezkuratzeko, *mugawar* errogativa egiten zuten, edo euskaldunek Urteberriko mendiketan edo Inoteriko basakoipetsuetan egiten duten bezala³⁷. Halako mugidak urte guztirako Jainko zantzua etxeraten zutelakoa zeukaten eta halako baten etxea santutegi biurtu zan gurean, Jainkoa bera etxean betiko hostatua hartzera etorri izan bailitzan, "betor Jainkoa dugunean gurekin jatera eta edatera eta

35 VIDAL, J. "JUNG. G (1875-19619)", DR., o.c.p. 936-941.

36 *Akiti*⁽⁶⁾ zeritson sumertarrek urtero jainko-bila kurritzen zuten erromeriari. Galdetzekoa da Urteberriz hainbat euskaldunek mendietara akitian joateko eta jainkoeekin edo lagunartean mokaua jateko ohitura haien gorantzia ete den. Kurrika eta erromeri mugidak, prozezioa bezala, jainkoak mugiarazteko, ezeze, jendea mugitzeko ariketa eraginkorrak dira.

37 Harazoa eguran bizi jainkoen nabastarrea bilatzeko haiekin jan-edan mokau egite asmoa zan eta hori gelditzen da kurrikarien ohargabeen.

ez dugunean, Berak guri ematera” euskal esakeraren arabera³⁸.

Haraz gero, *etxe/exe/etze/eze* arnase berriko seinuak janzten zituan aurrizki edo atzizki giza Ola, Ekua, Uxa bezelako bizitokiak *Etxaola/Olaetxe* edo *Ezaola/Olaiz* eta *Eskue/Egues*, *Etxauz/-Udetxea*, *ekua*⁽⁶⁾ *egoitz* eta *ekoiztu* eta *esku* “eskubide” datorrela, *ola esola* eta *olabe>txabola* eta egura *Ezkuria/Agoretxe*, *Eskora/Gores*, etab. Asa berriko seinuak orekatzen zuan haraz gero egoitza eta *ekurako koronarri gurenak* ez zeukaten jadanik lehengo majia, haraz gero, *etxea* bera bai-zan santutegi, ez hitzaren majiagatik bakarrik, hitzaren aldaketak giza pentsakeran aurrera pausoa seinutzen zuelako baino. Eta horrela, *etxeko unai/hona>xaon>jaun* tituluaz duindu zan, *Inkoa* ere titulu berdineko egiten zela: *Xaun* Inko/Inko *Jaun>Xainko>Jainko*³⁹ eta *etxape>xabe>jabe* eta andere*>etxandere*, *etxe* santutegiko *santera*, alegia. Haraz gero, *etxea* bortxatu ezineko satutegia zan, aukerako eukiak baitzeko eskua zeukan “etxeak behar, bideak ekarri” arabera, *ele* menditarra *latxa* eta *txal* etxekotzen ziran, *etxean* jaiok *etxak* ziran eta *petxak*, ostera, etorkinak. *Etxa* seinu berriak hitza ezeze, aditza ere berriztu egiten zuan baitu*>xabetu>jabetu* eginik. Eta “jabeak badaki”. “Jabetzen al zara?” eta analogiak dakarke *xabetu>saber>sapere*⁽⁶⁾ “baitatu, barrendu” esateko, hala nola gauza bera adierazteko *kabi>kabitu>capito*⁽⁶⁾*>caput*⁽⁶⁾ datorren eta gaztelaniak “no me cabe/ez nahiz jabetzen” esateko. *Kabitu* “barneratu” fisikoa da, “*a capito*⁽⁶⁾/barneratu duzu?” psikikoa adierazteko. Horrela, euskarak ematen die erromanikoei euren *caput/cabeza* sorgunearen sinboloa, euskararen hermeneutika barnerratzeko beste kapidaderik izatekotan. Hareago, *baitu>baitura* dator eta *xabetu>*xabetura*. Nondik dakar, ezpaere, gaztelaniak *sabiduría* hitz ederra, sinbolo beraren edaduratik baino?

38 Ospetsua zan Frigian Filemon eta Bauzis senar-emazteez kontatzen zena: jainkoei hostatua emateagatik euren *etxea* tenplo bihurtu zelakoa.

39 K. a. XX gizaldian akadiar idazkizunetan izen propioak *Jau-* edo *Jaum-* tituloa aurrizki dutela agertzen dira. (Yahvéh (IV) ANTIGÜEDAD, Dic. B., p. 2056-2057) “Ene Jaun eta Jabea” Jainkoari emon tituloak dira eta hori *Yahvéh* hebertarren Jainkoa eta *Adonniyya* izen zaharrak ere “Yahvéh jauna da” bezala ulertzen dituzte.

Euskara goiztar hazi zan *As* arketipodun *etxe* egituraren inguru hitz zaharren errotik kategoria berriko hitzak asmatzen eta artean hebraierak, “jaun” adierazteko, *adon*^(h) Egiptoko *Aton* jainkoaren analogia zerabilela eta grekoak *ekura*>*egura*>*gora* santutegiko *gurua/kyriü*^(g) aipatzen zuela gauza bererako. Nonbait euskara, artean idatziz eman jakinduria loturatik aske zegoen eta leterari baino arketipoei eta euren eraginei adiago, harrotzen zuan hizkuntza. Sumerren *ekura*^(eu)/*ekur*^(s) menditarra *Zikuratu*^(s), *etxe goratu* bihurtu zan santutasun zehatzeko erritoaren tenploa izateko eta Afrikan mortuko *ekura*>*Gory Ahaggar* mendia *Sakkara*^(e)*etxe gara*, *sakramentu* berriko une Nilo inguruan eta *egura*>*guren*, *gorena* geihengoan, *etxe As* egurats berriko gune *seguruena* euskaldungoan. Enperioek eta uriek *jauretzea* bilatzen zuten Jainkoaren *eguri* tokitzat, auzo bakanduetan, ostera, *etxe* egituraren duintasuna zan nahiko, *etxe* barnea ere tenploko supizgu berak argitzen bai-zuan. Auzo bakanduok aldi berriko erainkintzaz eta erritoaz elkartu zirenean, *etxe*etako ohikunen jarlekuak eleizara aldatu ziran, *etxe*koandreak jarraitzen zutela bakoitza bere *etxe* jarlekuen jabe izaten eta *etxe*ko suaz hango argizaiola bizten⁴¹. Hanartean *etxe* erakundea arduratzen zan *etxe*ko bizien eta hilen ohoreaz eta zoriaz, *etxak* jaiotetxea zutelako santutasun bereziaren sinu eta *asaba*>*asabotuak* “hurrunduak”, edo Eriok *arrapatu*>*arpatu*>*arbasoak*, gogotan izaten ziren Sapatuan bederen⁴². Hilen arimak ziren *etxe*ko kultoaren asmo berezia⁴³, gaurko eleizkizunak, *etxe* ekonomia eta arauak ere hortxe dutela oinarria.

40 *Gory Ahaggar* “ekura agiria” da benetan mortuaren erdian eta hala izan zan *Sahara* kultura zaharraren aldian. *Sakkara* piramidea Nilo hegalean jaso eta izentatu zutenak argi adierazten zuten ze santuegiaren goraintziz egiten zuten.

41 J.M BARANDIARÁN, *Mitología vasca*, or 65ss.

42 *Asaba*>*asabatu*>*sapatu* datorke, Akaden *xabatu*^(a) “ase-bete” eta Israelen *sabat*^(h) “atzedena hartu” ere aurkitzen den hitza eta ohikuna, Jainkoa eta jainkoratuak ospatzen zituena. *Larunbata*, *laratze/lares*^(l) senditar jainkoengandik zetorren ospakizuna ere arbasoenganako jaiera berean oinarritzen zan.

43 J.M BARANDIARÁN, *Mitología vasca*, or. 67-7.

ONDORENA

Euskarak Sumerreko eta Egiptoko lehen sorkuntzako mitoen oroitzatza bere hiztegian, *Amuma/Attuna* sorkuntza buruen izenak hurretik jarraitzen dietela *Nummu*^(s)/*Atum*^(e) jainko orokorreia eta, batez ere *Ama*-agintearen uneko hiztegian oparo ikusten den bezala, Antxinako Sortalde Hurbileko Ama jainkosen eta Mari Urrikaren artean kidetasun nabariak ikusten dira. Lehen jainko gizatu edo guraso zaharren izenetan ere *Ab.zu*^(s)/*Butzu* eta *Sube/Su.ap*^(s), batzuetan euskal forma zaharragoa agertzen dela.

Urte buruko ospakizun zaharretan lau jainko sortzaileen izenak aurkitzen dira, *Inote*, *Jote*, *Oroite*, *Olde* edo *Ononzaro*, *Subilaro*, *Oronzaro*, *Olentzaro* formetan, goitiko ur, eguzki, aize elementuen laguntzaz beheko lurra haldarte ona izan dezan. Lau jainko sortzaileok kristau garaiko mezu berriaz Eguberria edo Gabona adierazten dute, maiz izen zaharrak misterio zahar argitu-berrituak adierazteko erabilten direla, hitza, mito bizia izanik, iragarpen profezia irauna eta haren betekundea direla.

Jainko sortzaileok izadian ohartu eta haien izenak mendi santutegietan ohoratuak haiekiko lotura zainduz eta jaiera urtean zehar ospatuz, haiekiko eredia zaindu zuten, bai hitzaren sorkuntzan, bai gizabide jarraipenean. Euskararen arnasa, aldien aldiko argibideei idekia zegoelarik ere, mitologia horren eredian garatu zan.

Hitzaren sorrera jainko sortzaileen izenari lotua dago, jainkoen sorkuntza aurrera eramateko, gizakiak bere arketipoak jainkozko arketipoekin nastatu behar zituan, hako *ino/in* jainkotiararen majiak *esan/egin* gizatiar majia lor zezan. Euskarak arketipo bakoitzari, dela jainkozko, dela gizatasunezko, bere ordekaritza eman zion eta burutzeko euren arteko dialektika ustiatu zuan.

Giza arketipoak gaur ere giza psikologia argitzen digute, gizakiak berarekin duen eztabaidaz eta burrukaz hitz egiten digu eta azkenik burruka honi irtenbidea erakusten, *As* sinboloa eta *etxe* erakundea izan da euskaldungoari, *etxaei*, erlijioaz, ekonomiaz eta lege araudiez herri ordenatuaren jarraibidea erakutsi ziona.

III. ONOMASTIKAREN SORGUA

Lehen hiztegiak Fara kultura (K. a. 2.600) aurretikoak dira eta mesopotamiar abadeek hiztegi hoietan, enziklopedian bezala, pila-tzen zuten orduan, botanikaz, meatzaz, toponimiaz, gramatikaz, etab. zekiten gutzia, gai bakoitza bere sarera loturiko hitzez ornitzen zutela. Ezagutzen den jainko zerrenda edo hiztegi luzeenak 1970 izen ditu eta *An*^(s)/*Anum*^(a) du arketipo burua eta jainko izen bakoitza bere izengoiti, izenlagun eta guzti agertzen da. Jarraian, *Antu* bere emaztearena, seme-alaben izenak: *Enki*, *Enlil*, *Inanna*, *Utu*, eta morroienak¹, hoiek ziran *Anunna*, *Anunnaku*, “ainanino edo angeruak”, etab. *An* “zeru” jainkoaren sendikoak aztertuz, *An.tu*, *Utu* jainko arketipoarekin uztartu ikusten dugu, *En.lil Ilu* semitar jainkoarekin ekuratu², eta *En.ki*, barriz, *Ki*^(s) “lurreko” uren arazoaz arduradu. NOENA zehazteko, *Inan.na* dager *An.en* alaba, *Ane.na* eta haren morroi *Anun.na*^(s) angeruak. Izenotan ikusten dugu, hain zuzen, NOEN/NOREN kasuko atzizkia, guk *ama.na* edo *ne.ne/ni.ni/na.ina* esaten ditugunetan bezala. Beste morroietan *Anun.na.ku* ikusten dugu *-ko* jatorria adierazteko NONDIKO kasuaz izendatu, guk *amako*, *umeko/imago*^(l), etab. esaten dugun bezala. *En.ki* formak *An* jainkoaren partekide egiten du lurrean, guk *giza-ki*, *ederki* esaten dugunean bezala, giza partele edo ederretarikoa egiten dugun PARTELIAR kasuan. Eta honaz gero, Sokratek *Kraty-lon* (393-b, c) bezala, galde dezakegu: “Ez al da zilegi gurasoen izena seme-alabei ezartea?” Edo J. M. Barandiaranek erabagitzen zuen bezala, *intza*, *inusturia*, *inatazia*, etab. elementuak bidaltzen dituen jainkoa ez al zan *IN* deitu behar?³ *Enlil* izenean, sinkretismoa dager, sumertar jainkoa eta semitar jainkoa hitz eta nortasun

1 H. LIMET “Panteón (religiones mesopotámicas, o.c. p. 1357

2 Ospetsua zan Enlilen ekura unea Nippur urian, behin Inannak erre egin zuan hari eskeini tenploa, bere babespeko Ur-Nammu erregeari iruzur egin ziolako (*La lamentación de Ur-ammu*, DB. n° 26, p. 73-75)

3 “De varios nombres del rayo, del trueno y del pedrisco se puede inferir que el cielo fue también designado con el vocablo IN”, (BARANDIARÁN, J. M. *Mitología vasca*, o.c. p. 136)

berean bat eginik. Bi herrion arteko elkartasunak eta bakeak eskatzen zuan halako konponketa, Egipton ere *Ra* jainkoa *Amon-Ra* eta *Aton-Ra* bihurtzen bai-zan, Tebas eta Amarna herrietako jendea batasunara erakartearren, zeruan bezala lurrean ere, teologiak ere inoiz politika ona egiten bai-du eta alderantziz. Euskara munduak ez dio iguinik egiten inongo arketipori, eta zazpitan bakoitzak bere hiztegi saredia osatzen du.

Hitza, hala ere, hiztegitzaz eskerapetu>eskribitu baino lehenagokoa zan eta arketipoak eta haien arteko mailketa hanartean erritualki emanak, ahoz-ahoz eman izenak akordatzeko eta memoria errazteko ariketa zan. Euskalki bat ez da Euskal Hiztegi osoa gogoratzeko lain, baina Zazpirak bat zazpi arketipoak landu eta barneratu hal izan ditu Ainamendi bi alderdietako oroitzape-nak. Hareago, euskalkiak ere ez dira nahiko euskararen ondarea guztia oroitzeko eta gaztelaniak, beste erromanikoek edo hizkuntza klasikoak eurak ere hizkuntzaren familia osatzera datoz, eta hitzaren ama eta amuma den euskarak berea dena edo berekottzat har dezakena berreskuratzeko lotsakizunik ez du izan behar. Hizkuntza denetan arketipo berak nausitzen dira, giza ardurak eta jakinduria bera adierazten dute, baina oroitzak eta arketipo naste ezberdinez ahozkatzen eta eskeraten dira.

3.1. Hiztegi sareen emendioa

Mota eta tamaina ezberdineko arrainak sare ezberdinekin arrapatzen dira. Arrapatuak ez dira otar berean sartzen, bakoitzak bere motako etiketa eta salneurria aldean daramaten saranetan sartzen dira, ostera. Horrela ez dute erraturik izaten ontzitik merkatura, ez saltzaile eta eroslearen arteko prezioetan ezulertzarik. Ahoan erabilten ditugun hitzak ere sare bereziak dituzte buru muineko iruditerian eta nahiz eta ots berdintsuak izan belarrarian, bakoitza zein sareko diren begitzen da ahora orduko, zein testuinguruko den, alegia. Ez edozein sareko balorea hartu, dirua ere, adibidez, ez bai-da “aulkian” ipintekoa, “bankoan” baino.

Ba dago Isaba aldean *Otsogorrigaina* izeneko mendia, izparlari baten ustez “el Monte del lobo rojo” eta Txanogorritxo bezalako

ibiltarientzat ostera bat egiteko oso atsegina omen da. Ez da hain samurra, ordea, euskaratik gaztelaniara doan ostera. Ez dira sare berean sartzekoak *otso* aberedikoa eta *oto>otto>otxo/ota>osa* "altu" edukineko tokizen zehaztapena. Tokizen hori *otan* dagoen *ekura>koro>gora>gorri* deskribatzen badator, *Togor*, *Tugurio*, *Sokorri* edo *Sogor* izan daitezke, hain zuzen ere, gure arbasoek *sokorruka kurritzen* zituzten ekurako santutegien izenak. Gero euskarak dena sarekatzen du, euskaldunak sare konpontzen eta bereizten ikas dezan, arrastrekoekin arraba lorrindu barik.

Azterbidean *Utu/ota* "iduzki/gora, altu" hizkUNETIK abiatu behar dugu, gero *otatu/tutu*⁽¹⁾ "goratu/seguru" tokiaren estrategia edo jainkoen ekura ulertu ahal izateko, edo analogiaz *tutare/titare* eriaren gordelekutzat hartzeko. Hagatik *ote* landare, *oti* matxinsalto eta *otarrain* analogia beretik sortu itzak dira, euren zigurtasunerako soina *otatu>tatuatu* dutelako. Beraz, mendiak *Utu* arketipoarekin zerikurik ez bailuen, *Otamendi* "Monte de argoma"-edo erderatzen duenak, otar baten sartzen ditu hitzaren edukin guztiak, hasieratik gure asabek taxutu hiztegiaren semantika esparru bakoitzaren hesiak errespetatu beharrez. *Ota* eta haren inguruko monosilaboek edukinez uhariak dira eta bakoitza ze analogiatik datorken aztertu beharko, landaretza sarean *ote* landare berezia eta gramatika sarean *ote/ete* "galdetzeko hizkia" etor dadin.

Edukin sareak hitza erritualki aukeratu eta ahozkatu eta geroago idatzi zuten santutegietako abadeen lanetarikoa izan zan Sumerreñ eta Egipton, hiztegi eratan biltzen bai-zuten orduko jakintza guztia. Orrela zientzia edo disiplina bakoitzak sare berezia egiten zuan eta sare bateko izenak ez ziren beste sarekoekin nastatzen. Oraingo hiztegiak I, II, III, etab. zenbakietan ematen dituzte edukin ezberdinak, adibidez, *oso* izenak XIV ditu eta *usi* formak VIII edukin. Beste izen batzuk elkarren hur ibiltzen dira: *uso* "egazti", *usu* "arin" eta beste sei edukin, *uzu* "zakar", *izu* "bildur", *uxa* "uxatu", etab. baina eurretan *usa* "zelai" da bakarririk tokizenen sarekoa: *Usasolo*, *Usabiaga*, etab. Edukinok arketipo berarekiko analogiak zuzen edo zehar eta bokalen baten ahozkerak bereizten ditu. Behin arketipoa begitatu, haren sinboloak

ituan euki eta mitoa ezagutuez gero, hitzaren sareak analogiaren araberako artea dira. *Arte* hitzak berak bakarrik ba ditu hogei edukin baino gehiago. Zergatik hainbesteko mortxa? *Erra+Utu* bilkura bai-da, “*Erra* garaia” edo *Hartu* analogiaz, haren emaztea adierazten du, berarekin bai-darama aldien eta uneen eta tokien majia guttia. Gure arbasoen irudimenean mundu birako ardatza zan.

Arkamelu hitza bizkaierak gordetzen du eta “kakarraldo” esan nahi du, baina ez litzake ulergarri izango Erra iruskiaren mitoa jakin ezik. Errak, eguneroko ertetze eta orstean Errensugearen erasoia ihestearren, *arkamelu* itxura hartzen omen zuan, harek bultzatu bolatxo biribilaz bere burua egiteraino. Benetan Erraren segeretua zeraman, eta hagatik “eskarabeo” irudia aukeratu zuten Egipton Faraoiaren eskerapetu mezuak igorteko. (Ikus 23 or.)

Sumeriologoez ezin dute ebatzi *me*^(s) hitzaren edukina, gonbaraketa baterako sumererak ez duelako antzeko hizkuntzarik eta akadiarrek hitza itxuan kopiatuz, “erritoko arau” edo “ganora” bezala ulertu zuten, *me/mu* ahozkerara emanaz. Sumerologoez, antzemateko, jainko sortzaileek hasieratik gauzei berean izateko eman arautzat edo nori ekinean irauteko uduki adutzat hartzen dute, hitzaren majiari dagokion artezia bezala. Hagatik zazpi ziran jainkozko *me* doeok, totalak adierazteko eta, auzaz, elburua, zioa edo zio eraginkorra⁴ markatzeko jainkozko arketipoen atzizkiak otoitzean erabili ohi diren bezala. Jainkoek, *An*-ek bederen, euren artean edo gizaki aukeratuei emanak omen ziran eta, arauen arabera, aldakorrak. Orain, bada, Euskarak “egia *me*^(eu), ez ordea, ze” esaten duenean, ausaz halako zerbait esan nahi du: egiak *me* izanarren, bere bidea egiten duela, erabat “sotila, fina, zorrotza, *emea*” izanik, edo *miia* baizen ekina eta labana, edo *mea* “meatza” baizen sarkorra, izan ere, *en/ena* “jainko egia” gramatikaren barreneraino sartzen bai-da, eskarrietan “*aini*, osasuna lór dezadan” helburua markatzen, “*emanen* didazu” etorkizuna adierazten, “*lortzearren*, *lortzekotan*” elburu eraginkorra bultzatzen, “*egiten*” egite iraunkorra bereizten, *An*

jainkoaren arketipoa ezartean, adibidez. Egia bilatzeko beste bidea *mu* forma izan daiteke “hitza, otoitza” esan nahi bai-du euskarari, usko-mediterranean hizkuntzetan bezala. Sumerologoei ingurumariko beste hizkuntzekin harremanak izan omen dituzte *me* edukina argitzekotan. Ausaz, egiak bere bidea egiten duen bezala, euskarak ere berea egingen du *me*⁽⁵⁾ hitz honeri dagozkionetan, sumerologoei euskara interprete baliagarritzat hartu eta euren hermeneutika osa dezatenean. Hitzaren eskera zaharren interpreteak ere eskara/euskara usko-mediterranean hizkuntzen argirako benetakoa “Piedra roseta”-tzat erabili baidute euskara eta lorpen onik askotxo iritxi ere ⁵.

3.2. Arketipoen kategoria

“Bakoitzari berea, Jainkoaren legea” esan ohi denez, jainkoen arketipoei ere ohore egin behar zitzaizkien hitzaren antolaketan, hortantxe bai-zetzan jainkoei sor jaiara artea, *esan/izan* hitzak bere edukin jatorra eta betea lor zezan. Sumerren sortu zibilizazioa milaka urtetan inguruko herrietan irakatzia izan zan eta Sumer desagertu ostean sumererak beste bi mila urtetan jarraitu zuan bizirik, inguruko herrien liturgietan, eta haien jakinduria liburuetan kopiatu eta gorde izan ahal zuten, azkeneko bost hamarkadetan egin arkeologia lanak jakinazi digunez.

Sumerreko kulturaren arrakasta honen ezjakinian, indoeuropeistek desbide galanta izan zuten *Utu>Theu>Zeu/Deu/Tio>Dio* datorren jainkoa sanskritotik zetorrela hautematean, erratu batak beste askotan erorizaten zituztela ⁶. *Utu/Theu* santutegiak *Otoiomendi*, *Santiomendi*, *Montesandeu* gure artean aurkitzen

5 “Piedra roseta” deritzaie idazki bera bat baino hizkuntza gehiagotan ematen dituzten oroitarriei. Elkarren ondoko hizkuntzak gonbaratuz, lortzen dute denek edukinaz jabetzea.

6 *Zeus*⁽⁶⁾ forma grekoa latinak *Jupiter* konpontzen du deklinabiderako eta indoeuropeistek *Dyus Pitar* sanskritotik datorrela dinoe, osteria ere. Baina *Deus Pater*⁽⁶⁾ asmatzeko hizkuntzen marrak igaro eta marka handia egin zuten, bada *Ptah*⁽⁶⁾ Egipton jainko sortzailea izanik, *Erra* jainkoarekin berdindu zelako: *Ptah+Ra>patra*⁽⁶⁾*>pater*⁽⁶⁾, *padar*⁽⁶⁾ etorri bai-zen.

dira. Azkeneko forma biotan *San* titulu eta guzti dator, atitarrek *Santio/Utusan* egiten zutena bera, edo euskaldunek *Inko Jaun*, gero *Jainko* osatu duguna. Mendi izenetan *Utu/otoi* bera ordezkatzan du, beste izenetan *Otoain>Twain*, adibidez, tokiaren gora aipatzen dute gehiengo kasuan, doi>*duin* izenak hitz arruntean bezala edo *Tini^(etr)* “*tini-an haintu dagoen Utu*”, etruskoek aitortzen zuten lez, edo *Ekia>Ekain* euskaldunen antzera. *Tinia^(etr)>Zena^(g)* formak ere ezagutzen dira eta hortik *zenit* “ginga” deitura ere.

Etruskoek *Uni/Tini/Ercl*e jainkoen hirukoitza aitortzen zuten nonbait: ama, aita, seme bezala. Eurok dira euskarak monosilabo jatorrean *Inu/Ut/Erra* jaikoak, *uin*, *su*, *aire*, goiko elementuen sortzaile aitortzen dituenak. Etruskoek, besteak beste, hizkuntza arketipoak mankatu zituzten halako hirukoitzaz, *Erra* ordeztuz, haren seme gizatu *Eracle*, *ar^(e)+kal^(a)* erregetzakoa, grekoekin batean ohoratzen zuten eroia, hirukoitzean aurkeztean, liturgian eredu aldatzeak, hitzaren sorguak nastu eta ilundu egin zitzaizkela. Eroietan *Erkule* greziarra eta Anteo libiarrak, biak elkarren arerio omen ziran, mitoaren arabera. Hala ere Erkle eroi gizatua da arketipoetan eta Anteo, berriz, jainko utza bietan. Nola gaindi zezaken halako jainko seme nastuak jainko seme jatorra? Euskarak halako arinkeriak *Erkle/ergel* hizkunez itxurgatzen ditu, *Eros/Eriotz* bezala, edo *Arkle/argal* “medar”, nonbait bere hizkuntza arketipoetan irauten zuen kategorien arabera. Grekoek izen berriak asmatzeko arketipo baloreen ezjakinian, eroien izenak oker konpondu eta haiekiko mitoak ere errebeski asmatzen zituzten.

Euskarak *seguru>ziur* dino, eta nire maisuak *securu* latinetik zetorrela esaten zuan, eta etimologoen *sine cura>securu* jotzen dute. *Sine cura* “ardura gabe” izate horretan kontraesana dago, osterak, handik *securu* edukina atera ahal izateko. Gezur eratorri denez gain, *cura/gura* “ardura” beteriko jokera delako eta *kuratu>guraso* direnen arduretan dagoen umea dago *seguru*, *gurasoek kura/gura* diotelako umeari. *Ekuru* dagoena ordea “nasai, geldo” dago ziur asko, *ekura>gora* datorrenez gero. *Ekura/-ekur^(s)*, mendi tenploko jainkoen urbiltasunak halako *zigurtasu-*

na ematen bai-zien asabei, *zikuratu* etxe goratuak erritoaren *sekuru*>*seguru* izatea gaineratu zutenean bezala. Eta hor As arketipoaren eraginaz *ekuru/seguru* hitz berriaren sorrera egokia ikusten da. Euskaldungoak *etxe* barne As arketipoaren majia hartzen dueneko, *etxea* ikutu eta behartu ezineko toki *ziurtzat* ematen du eta hala eskatzen dute gizarte araudian, *etxea* santutegi hautematen zutelako⁷. *Ekuru*>*seguru*>*sikuro*^(it)>*segur*>*ziur* badator, eta *ziurtu*>*cierto*, non dago latinaren *ziurtasuna* edo romanisten *segurtasuna*? “Sine cura” ardura gabetasunean?

3.3. Analogiaren gida

Ana.logia^(g) “goitiko jakintza” dino gerkerak, izadi beheak goia mimatzen duelako, goiko arketipoak janzten bai-dituzte beheko ideak. Monosilaboraino heldu arte, ez da egiten sakonean hitzaren ikerketa. Behin monosilaboraz gero, hurrari dago arketipoa eta harekiko analogiak gidatzen gaitu iturriraino. Arketipoak ondo berezi dituen hizkuntzak bakarrik egin dezake etimologia argia eta laua. *Etoimos logos*^(g) “egiazko hitza”, baina handik aurrera grekoa ez bai doa *etoimos*^(g) hitza aztertzen; “ide lekukoa” esanez gero, ausaz euskarak grekoari lagun diezaioke sorgua bilatzen. Eta *ide* gehiengo kasuan *ideen*^(ew)>*idem*^(it) aurkestuez gero, hurrago emango genduke *ideen leku* “esan/izan” adierazteko, ots, *idea* eta *leku* ordezkaria/*lekukoa* hein berekoak direla⁸.

Testu eskeratuak zelan egokien eman? Adibidez, “Senarrak emaztearekin *duen poza* bera izango du Jainkoak zurekin” (Is 62,5) irakurri eta hurren “*gozatzen den bezala*” eta harakoan “*hartzten duen atsegina*” euskaratuak irakurri eta batek esamolde hirukoitzaren artean onena aukeratu beharrean, *poz/gozo/atsegina* hitzen etimologia ariketa egiten du, hau da, hitz bakoitzak ze arketipo duen jatorrizko. “*Poza* aztertzeke, “pot eman/poz hartu”

7 J. M. BARANDIARAN, *Mitologia vasca*, o.c. p. 58-61, Cf: *Bizkaiko Forua*, 17, 3-4

8 *Loku*^(it)/*Logu*^(g)/*Leku*^(ew) “jainko lekua edo lekuko jainkoa” da, goikoaren ordezkia, *Ilu+ko* “/Iluren seme, Ilu lurrean” *Loci Uvarna* lekukoak bezalakoa” (F. ZUBIAGA, *Antigua religión de los vascos*, p. 74-75)

esakeretatik *pot/poz* hizkunea onar dezake, zio-ondore auzian oinarrizten den analogiaz, edo nahi izanez gero, *botza/poza*, “ze andre botxa” esakera ohartuz, eta hortik *bozkaria* ere. Ohar, bestalde, *Ab.zu^(s)/Butzu^(eu)* lehen jainko gizatu amaz esana. Hitzak arketipo berekoak eta elkarren ondoan eta giza esperientziatik harakoak dira. *Atsegin* forma aztertzeokotan, “azkura denak azka egiten du” eta bietan *atz* aurkitzen dut, *ats* beharrez eta *atz egin/atsegin* *z/s* bereizketa⁹. Amarnako irudietan Aton iduzkiaren errainuak, atzak bailiran, Akenaton eta Nefertiti bikotea xamurkiro laztatzen dager, *atsegintzen* bailiardun.

Utu/oso da hizkunez, iduzkiaren borobiltasuna *osetzen* den bestean. *Oso>goso* gizatzen da hitza, gizakiak bere egiten duenean. *Goso/gozo* bereizten dira, mokau jastagarria eta jastamena bereizten diren bezala, *gosotu* eta *gozatu* banan bideratzeko¹⁰.

Poz/atsegin/gozo hiru formatan dager *Utu>su/zu/ate/ats* arketipoa, batian *B/P* aurretik duelarik, eta bestean, gizatasun maila lortzekoan, *K>egin* duela konposagai. Edonola ere, Isai profetaren maite asmoa adierazten dute, Jainko arketipoa giza arketipoetan txortatzean. Jatorrizko analogia dugu, edo analogia zuzena, *Utu/su* eta *Utu/oso* hizkunez berdintzean, zeharkako analogia, ostera, *Utu/buzu>poz* ebaraztean edo *Utu/goso/gozo* analogizatzean.

Silaba soileko hitzak analogia gertu du arketipoan, *Inu/in*, *Ilu/hil*, adibidez. Aglutinatu batzuk ere erraz irakurtzen dira; *Ptah^(e) ¹¹ /-bat*, giza/gisa adibidez. Arketipoa eta jainko inguruak beti izan

9 Zio eta ondore analogietan, *z/s* artean harek materialtasuna dino, honek espirituzkoa, *atz egin/atsegin* formetan bezala edo *zaindu/saindu*, *ceño/sinu*, *giza/gisa*. Alderantziz ikusten dugu aldea zer fisikoa eta psikikoa berezitean; *sentzu/zentzu*, *eskondu/ezkondu*, *goso/gozo* “provisión/dulce” edukinetan.

10 Erromanikoetan *gaudiu^(d)>gozo* dator “poz, atsegin” adierazteko, baina besterik da euren etimologia: *aut+artu>auzartu^(eu)/audere^(d)*. Forma biok gizatzean, *ausartu>gozartu^(eu)* eta *audere>gaudere^(d)* egiten dute egituraz, baina ez dira argitzen barne analogiaz, hau da, nola ausardiak ekar lezan gozamina. *Utu/God^(d)* “jainko/jainko seme” gizatzeak hobeki adieraz dezake, ausaz, **godiu>gaudiu^(d)* edukina. Hortik Andre *Goto* erregina izena ere.

11 *Ptah^(e)* egitiar jainkoak beste jainko guztien ahalak eta ohoreak>

dira analogiaginen aberatz. Horretarikoa da, adibidez, *Ekura/ekur^(s) egurako* edo *eguratzeko* santutegia. Nork du *ekuran ekuritzen* den ganaduaren *kura/nork guritzen* ditu? Nongo *kortan gordetzen* dira *abel-gorriak*, edo *zein guruk guritzen*, hain *gorde>gordo* eta *guri* ager daitezzen? *Ekura/ekur^(s) santutegiko gurua* edo aingeru *guarda akordatzen* da nonbait ¹², hak *so.korritzen* ditu *hagana kurritzen>currere⁽ⁿ⁾>correr>re.currir* duten guztiak. *Koro/korroa* egin dio *Korono>Gorroino* eta *gurtzea Kurtziamendiko Jainko gurenari*, harriez bildu *koronaz, kron.lech^(bre)* ere deitu oroitarriez. Hagan zuten askok *kredoa*, edo hako *gorte>grotari* ixuri uran ustea, harekin *igortzi* "gaisoak" *aegroti⁽ⁿ⁾* sendatu egiten bai-ziran eta *hagatik igortzi/aegroti⁽ⁿ⁾* hizkune egin bai-zuten. Hagatik da Jesus *Kristo* ere santutasunez "igortzia" *kriein^(g)* formatik baino hareago *igortzi* redutik analogizattua.

3.4. Aditzaren erroak eta adarrak

Arketipoak aditzen guraso dira ohiuskoetan ikusten den bezala, eurak bai-dira izen, aditzizen eta esaldien sorgu. Oihuskook maiz aginduak dira eta adizkera askoren hasikin, hala *aida, jo, arre, ux, hel*, etab. (Ikus 1° laburgoan) *Ino!* ohia *Inu* Jainkoari egin deia da, *uina in* dezan, ots, *inotsi* dezan. *Otoi!* *hotsa Utu* iduskiari egin *oihua* da, *udda uxuri* eta *sutan atxina jo* dezan, *Ara!* *Errari* iruskiari egin *arrena*, abereak *aira* dezan eta *arreoaren ardua* har dezan. *Hel!* *ulua Ihu* lurrari egin *elea* da, *aldi onaz ildo* heldu dezan. Arketipo bakoitzeko adibideok *esan/egin* arian doaz, hitz-eskariak ekintzez duten lotura ikusteko, gero ere arketipo berberen pedagogiak jarraitu behar bai-du giza hitza sortu eta ekin-tza laguntzen. Eskola honek *Inu/ino, Utu/otoi, Erra/orro, Ihu/ulu* hizkuneak, etab. bultzatu zituan (Ikus 3° laburgoan), jainkoek ere sorkuntza *esan/egin* majiaz osatu zutela aditzen emateko. Beraz, esana eginaz osa daiten, arketipo bakoitzetik *Ino/in,*

>beregianatu omen zituan, askorekin *bat* eginik eta halako arrakastaz *hona/uno* zenbaki zaharrari postua kenduaz euskeran.

12 Kurtziamendiko *guru/ana.koretak<ana.koreo^(g)* gurtzen eta *gortzen* du Jainkoa eta in.*gurutzen* ganadua.

Utu/jo, Erra/arre, Ilu/ale hizkuneak aurreratzen ditugu.

Aditzaren sorrera aditzaren garapenaz osatzen da, landarean adarrak landara beraren erroetiko gailurra diren bezala, eta soin bereko zatikiak. Beraz, aditz aurrizki arketiporen bat aurkitzen denean, erro zaharrari txertatu mendu berria hautematen dugu, lehengo edukina zabaldu, orokortu, zuzendu, xedatu, aldatu dezan, baina ez edukin zaharren aurka, jokera berean baizik: *ausi/in.ausi, oratu/at.oratu, atxiki/ir.atxiki, egin/al.egin* eratan. Txertadurak ez doaz erro zaharraren ordedan, ez haren edukina osatuz baino. Errotik garapenera aditzen osakuntzan mila-ka urte igaro ziran eta, aditz aurrizkiei dogokienez, euskararen teknika bera jaso zuten gerkerak eta latinak, zenbait gramatikarien begirapenetik gertaera hau eznabaria izan denarren. Asko dira oraindino atzamarrari begira gelditzen direnak. Nola ulertu, bestela, *am.ildu*>*amultsu* datorrela, eta hortik *mulcire*^(f) “laket izan” sortzen denik, bata besteari anitz “errendizetik” bai-dator harekiko “atsegin izatea” ere? Eta guzti hori latinak *am-* aditz aurrizki edo preposiziotzat ezagutzen ez duela, euskarak *An* arketipotik analogizatu, *an.patu, am.ildu* bezelako formetan ezagutzen duena. Edo nondik eman *en.oatu*>*enoiatu*>*ennuyer*^(f) denik edo *enoiu*>*ennui*^(f)>*enojo* datozela? Giza arketipoak ere bide bera jarraitzen zuten geroago baten. Horrela *Ka* arketipoak ekintza fisikoa adieraten du: *in/eg.in, aitu/ak.aitu, ortzi/eg.ortzi, ildu/ok.ildu*, eta *Ba* arketipoak ekintza baitatua edo psikikoa markatzen du: *haintu/ap.aindu, itaitu/af.aitatu, harrikatu/ab.arrikatu, haldu/ap.aldu*, eta *As* arketipoak, bide berriko xedea: *anpatu/za.anpatu, torri/ja.torri, eurtu/ja.urti, lehiatu/es.leitu*, etab.

Urtero entzuten dugu gero negu aldian *Inauteri* hitza *inausi* adiztetik datorrelakoa edo ete datorren eta azalpen asko ematen dira frutakien inausteari buruz. Txandako etnografoak galdetu beharko luke: adarretik erroak ala errotik adarrak? Eratorriz, *ausi*>*inausi* bai-dator aditz berriztua, eta eratorriak ezin dio *Inote*>*Inaute* edo *Inauteri* hitzari errorik eman, ez adarrik. Erro behinena bilatzekotan hitz bakoitzaren arketipora jo behar da eta *IN* arketipoa J. M. Barandiaranek esango lukenez, altu dago.

*Inote*¹³ aldiko erritoetan eskatzen dena ez da frutakiak inaustea, urteko *uin*, *intz*, *inontz*, *nive*⁽¹⁾ "elur", *inatazi* nahiko egingo duenez baino. Inausketak eta txertaketak geroagoko giza jakintzak izadiari eman laguntzak baino ez dira. Hoiiek norberak egiteko, beste haiek jainkoengandik lortzeko. Egunkarietara galdetzen baidute, ea edurrik nahiko egin duen, urtegiak ornitzeko, ea beste hainbate eta gehiago beharko duen egin urteko urtza ornitzeko, eta *Inote* ohikunak, geroago Errogetatik eurak eskatzen zutena bera eskatzen dute talde ohargabeen. Eta elementu *inutzaile* edo *mama* hori nori eskatzen zien gure asabek, zeru *Inu* Ama jainkoari baino? Eta zer da *Inote*, *Inu* jainkoaren garaia bera baino?

Hizkuntzaren erroak galtzean, filologoa titigetu edo umezurtz gelditzen da eta herriko kultura berak ere ez dakizki nola ekidin bere burubideen koordinadak. Hizkuntzalariak berak itxumustuko urratzak eman arrizkua dauka, hitzaren sorguak ezagutu ezik. Euskararen hermeneutikak, oster, euskaldunen burua bilatzen eta duintzen laguntzeko dago, eta azterbidetan garia eta galutza bereizten laguntzen digu.

3.5. *Sinonimien ugaria*

Gauza bera esateko hitz bat baino gehiago izateak hizkuntza harrotu egiten du. Sinonimoen ugaria arketipoen uharitik dator eta tenplo bakoitzeko jainkoaren ohorerako edo haren hitzaren majiazko berezitasunak eskuratzeko ahaleginetik, uri bakoitzaren indarra hango jainkoaren indarrarekin neurtzen bai-zan. "Nor gure Jainkoa bezain Jainko?" (Sal 17,3) Horrela, *hein/edu/era/ala/gain/behin/zein* zazpi arketipoen gonbaratzaileak (Ikus 2° laburgoan), sinonimoak izanarren, bakoitzak bere neurkina du arketipoei begira, beti ere jainkozkoak orokorrigo neurtzen dutela, gizartekoak baino. Arketipoak guraso direnetik, *nare/suster/erro/leinu/geinu/belaun/jatorri* berezi genitzake

13 *Inote* forma da arketipoei zehatzen jarraitzen diena: *Inu+haita* "Inuren garaia" *Inaute* formak *o* doinuz indartua *au* diptongoz erabakitzen du; *Iñaute+-ari>Iñauteri*, berriz, *Inoteko* ohikunuen multsoa adierazten dator.

4° laburgoa: IZENORDE ETA ERAKUSLEAK ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	ERA	ILU	KA	BA	AS
ni/nik	tu/tuus	era/hark	illu/illa ⁽⁰⁾	ego ⁽⁰⁾	bera	txe
ene/neuk	tto/txo	harek	aulli	gu/geu	bere	txeia
nire	thou ⁽⁰⁾ (yu)	hura	el/ella	gure/guri	vou/vos	je ⁽⁰⁾
mi, mio	ti>yi>hi	eure/hire	lo/ello	ekei	potxua	se/si
me/meu ⁽⁰⁾	zu/zure	eurak	la/le	eketa	vobis	
moi ⁽⁰⁾ /nos	suyo/soi		loi/lui ⁽⁰⁾		vuestro	
<i>huna/uno</i>	<i>deus</i>	<i>hori/urli</i>	<i>ulain</i>	<i>kau/kori</i>	<i>batek</i>	<i>zer/zein</i>
<i>nor/inor</i>	<i>zoin</i>	<i>ara</i>	<i>alguien</i>	<i>haek/hoc</i>	<i>bera</i>	<i>ze/ese/esa</i>
<i>nada</i>		<i>rien⁽⁰⁾</i>	<i>halako</i>	<i>que'quién</i>	<i>ipse⁽⁰⁾</i>	<i>sandia</i>

Ohar: Hirugarren pertsona *eRa* eta *iLu* arketipoen artean banatzen da, erro-manikoek, oroar, nabarmen *iLu* aldeko direla. Erakusleak beheko zerrendan.

nor norena sentitzen den jakiteko erduei begira eta eurei, batez ere jainkozko arketipoei, deitzeko ohiazko bereziak dauzkagu. Zer itxaron zezaken giza jainkozaleak eurekan fedea izan eta izezez deitzeagatik? *Aintz/ditxa/ore/loria/gloria/beinen/zelu* ziur, sinbolo eta nortasunen arartekoa izanez gero.

Sinonimoetan lehiakari apartak dira *Utu/Erra iduski/iruskiak*, *batek* egiten duena besteak ere markatua behar duelakotan *usa/oru, ud/ur, udi/aro, dundu/urdin, iduri/irudi, zoli/argi, sustrai/arroin, uztai/ar'ku, soro/ortu, edosi/erosi, idi/orotz, zuatze/arbola, txi/erre, etab*. Ohartzekoa da eguneroko bidaiaren abiada, gorakada eta ostantz/orzanzetik eta atzalde/arratzera: *sortu/urt, itxartu/ernatu, idegi/iriki, sutu/erretu, atera/urten, itoitu/arintu, etorri/erdu, jo/ari, joan/ire⁽⁰⁾, otatu/harrotu, atatu/arribatu, sartu/eraso, zuntzi/ertu, utzi/erori, itxi/ertzi, iduli/irauli, otsi/ortzi, ostendu/arrobatu, itxungi/iraungi, itzali/eriotu, etab*.

Eguzki ereduak egiten duena gizakiak barneratu egiten du, haren bidea jarraitzeko bere arketipotik asmatzen du eguneroko ahalegina: *esnatu, jagi, jantzi, abiatu, ibili, igon, garatu, berotu, gartu, garbatu, etxeratu, geratu, oheratu, etab*.

14 *Ditxa^(eu)/dixaki* "posesión, caudal", *doxa^(g)* "aintza", *dicha* iturri berekoak dirudie, hala *dixatu>dichoso* ere.

5° laburgoa: SENTZU HITZ-ADITZEN ANALOGIA ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AS
antz/antzi	so/sor	eri	larru	ikui	abo	jasta
mir/min	otz/iduri	irudi	laztan	ikutu	abotz	txetu
mun/musu	atz/atsa	aieru	lehia	kusi	begi	sentzun
entzun	adi/dasta	eroiu		ikusi	abegi	ezpain,
muzin	otos/txu	irri	lotu/lotsa	agertu	beatu	estarki
ñaka	tentu/dendu	eregu	loarna	gozatu	begitu	esku
nabari	dendatu	orru	limikatu	gola	begiratu	eskukatu
nozitu	sudur	orroi,		gur/gor	belarri	aztatu
mirigin	usna/usmo	urruma	limurtu	gortu	pultsu	santzu
imintzio	susmo	irrintzi	lilura	keinu	apa	seinu/sinu
enkeinu	somatu	eriaka		garatz	beso	zegun

Egoki zan jainko bakoitzak bere izena eta hiztegia izatea bera-gazko hizketa miragarriak gizakiaren utza animoz bete eta haren oroitzaz uriditeria ornitu eta unean uneko berba osatu ahal zezan. Arketipoz arketipo aurkeztu ditugun izenorde (Ikus 4° laburgoa), oihuzko, gonbaraketa, esan aditz, etab. zazpi arketiporen alde dinoe, zazpirak beteak, zein baino zein landuago, hiztegia harrotzen, hizkuntza osatzen, hainbeste sinboloren gidara hitzunen memoria ziztutzen eta hizkera aberasten ahalegintzen bai-dira.

3.6. Hitzaren gizakundea

Hasierako hizkuntza, protoeuskara, jainko arketipoez osatzen zan, izadiko lau elementuak zirela bere ardura eta haiekikoa bere lotura eta haien sinboloen soinura moldatzen zan bere hizkera totela, umeak amarekikoa izan ohi duen bezala eta artean ez du beste inor ezagutzen, eta ez da beste inorekin fidatzen: *Inu/ni, Utu/zu, Erra/era* bereizten du ingurua eta ingurukoak. Monosilaboz mintzatzen zan gehien bat, behinbehinezko hizkunak lotuz: *Inu/on, Utu/dui, Erra/eroi, Ilu/ahul* arabera eta horrela elementu-sinbolo bakoitzaren kalitatez, indarrez eta majiaz jabetzen zan. Jainkoekiko hizkuntza zan, baina jainkoak baitatu barik zeuzkan, haiekandik eta bere artean zen utza igaro ezina zuelakoz.

Gizakiak bere burua, jainko seme-alabatzat ezagutzen dueneko, ostera, jainkoa gizatu eta gizakia jainkotu giten dira, nola-

bait jainkoekiko ezkontza gertatzen dela. Lehen izadiko mapatik ikasten zuena, orain giza baitatik ezagutzen du, izadia baitatuz, jainkoak ere baitatu dituelako eta eurekin zuzenean hizketatzeko baimena du. Bere ordezkariak aurreratzea bakarrik falta zitzaion. Bere nortasuna ezagutu eta ordezkariak aukeratu zituanean, bere hizkera laburra haiekin ornitzea baino ez zuan: hitz zaharrei bere arketipoa erantziaz: *in/ekin*, adibidez, horrela “Jainkoak in, gizakiak ekin” izango zan hizkera doia, herri jakinduriak jasoten duenez, Jainkoak *ino/in* hutsaz egiten duelako, gizakiak, ostera, asmoz eta jakitez eta soinka sarritan. Jainko muina *Inu/un* denez gero, giza muina *un/gun* etorriko da, Jainkoarenak eta gizakiarenak hobeto bereizteko, *on/bon* bezala, batak Jainko kalitatea, besteak gizakiarena, *hain* jainkozko gonbaratzailea eta *kain>gain* gizakiarena datozen bezala¹⁵. Etxeko umeak ere hobeto bereizten dira *aina/neba* izenez, bien giza berdintasuna *neba/arreba* formez markatzen bai-datoz.

Utu arketipotik gizatuetan adibidetzat: *Utuku*^(s) “aingeru jagole”, *Duku*^(a) “gidari”, hortik *eduki>dokeo*^(g)>*docere*^(l) “hezi” eta *ducere*^(l) “xedatu”, *kutun*, *goaita*, etab. *Tto/ttiki* erak ere nortasuna bereizten du, bokal idekiak eta estuak kantidadea neurtzeko duten jokera, *ide/kide* formetan batak ideazko eta besteak lagun artekoa adieraz dezan, *ots/bots* bezala edo *haita/beta*, batak jainkoen denbora eta besteak gizakiarena. *Orei/orga* ere ondo gizatzen da, airean doan jainko gurdia eta lurretik doan erregearena bereizteko, *aro/bero* eta *erra/errabia* bezala edo *oru/ekura/ekur*^(s)>*egura>agora*^(g), iruzkia bera edo iruskiak lurrean aukeratzen zuen tokia, jainkoen toki *gurena* eta *korona* izatera heldu zena. Aurrerakoan *ahal/alki* bereziko da, Jainkoaren *ahal* goitarrak eta gizakiaren baldarrak oinarria non duten jakiteko, *halo/alba* bezala, *ale/leka* ere baratzeko emaitzetan edo *oilo/luki* abereen arteko kalitatean.

Gizakiak norbere burua ezagutu eta baloratzean, Jainko nortasuna ere hobeki ezagutu ahal izan zuan eta bien aldea hitzaz iragarten zuelarik, gnostikoek ere erraz uler zezaketen *Logu*^(g) hitza,

6° laburgoa: ADIMEN HITZ-ADITZEN ANALOGIA

AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AS
<i>ena</i>	<i>eita/ide</i>	<i>oro</i>	<i>olde</i>	<i>egia</i>	<i>ben</i>	<i>sen/zentzu</i>
<i>onua</i>	<i>otu/aitu</i>	<i>aieri</i>	<i>oldoztu</i>	<i>igarri</i>	<i>benaz</i>	<i>xede</i>
<i>anze/antze</i>	<i>idea/aditu</i>	<i>eritxi</i>	<i>likatu</i>	<i>gogo</i>	<i>epe</i>	<i>jakin</i>
<i>antze</i>	<i>udu'iduitu</i>	<i>eratxi</i>	<i>ulertu</i>	<i>gardi</i>	<i>buru</i>	<i>etsi</i>
<i>man</i>	<i>sumo</i>	<i>urdu</i>	<i>listo</i>	<i>korde</i>	<i>aburu</i>	<i>espen</i>
<i>antzi</i>	<i>susmo/uste</i>	<i>iruditu</i>	<i>lotu</i>	<i>akordatu</i>	<i>burutapen</i>	<i>sinestu</i>
<i>amets</i>	<i>juzo/aitortu</i>	<i>erratu</i>	<i>lokatu</i>	<i>ogartu</i>	<i>barru</i>	<i>asmo</i>
<i>mentu</i>	<i>zoli/zogi</i>	<i>oratu</i>	<i>loka</i>	<i>ikasi/kasa</i>	<i>barrundu</i>	<i>asmatu</i>
<i>nabaritu</i>	<i>zuhur/zogeri</i>	<i>arte</i>	<i>lelo</i>	<i>ikertu</i>	<i>bulko</i>	<i>jabetu</i>
<i>memoratu</i>	<i>zorga</i>	<i>argi</i>	<i>lerdo</i>	<i>gomutau</i>	<i>begitan-</i>	<i>ezagutu</i>
<i>ahanzkor</i>	<i>tekuru/zio</i>	<i>arrazio-</i>	<i>elger</i>	<i>gogartu</i>	<i>du</i>	<i>aztertu</i>
<i>inozo</i>	<i>sotil/tuntun</i>	<i>ergel</i>		<i>gurbil</i>	<i>ber/bera</i>	<i>azkar</i>
<i>memel</i>	<i>zuntzun</i>			<i>gezur</i>	<i>babo</i>	<i>aztu</i>

izena igarle azaldu bai-zan “eta Hitza gizatu zan” (Jon 1,14 a) Ebangelariak aitortzen duen bezala, “hasieran zen Hitza Jainkoa bai-zan (Jon 1,1),” *Ilu*, alegia, eta mitoa maiz profetagintza denez, hitz gizatuak ongi adierazten zuan Jesukristoren gizatasuna, *Ilu* jainkoaren lekuko *Logu* bai-da lurrean, berton duelako *leku*, (Jon, 1,14.b) goiko *ele*-aren lekukoa delako, alegia.

Kratylo-ko elkarrizketariak bezala “Zer esan nahiko ote du *geinu* “daimon⁽⁶⁾” izenak? (397-e) galde dezakete erromanistek, edo eta nondik sortu ote zuen latinak *geinu* hitza. *Gigno* “jaino” hitzetik auzaz? Orduan zein jainkoren seme-edo da, jaiotako guztiak ez bai dira *geinu*? Horra, bada, *Inu* gizatua: *Inu/Geinu* izendatua, *Aina/Kain* bezala. Eta ze alde dauka orduan *Inko* formarekin, biak ere arketipo berak bai-dituzte? *Geinu* formak ez duela arketipoen rituala jarraitzen, giza arketipoak jainkozkoari aurrea hartuz, deskalifikatu egiten da eta goiko kategoriatik erortzen, *Inko* egiturak¹⁶, osterā iraun egiten du bere izantasunean.

Hitzaren gizakundea hitzaren hazkundea gertatu zan eta hizkuntzaren hiztegia betetzera joan zan goiko eta beheko izaki guztiek helkarrizketan parte hartzera gonbidatuak izan zirenez gero.

Orduan *gizakiak* berekotu egiten du jainkoen eredia iza/*giza* eginik eta *giza/gizi* eta *giza/gisa* hizkune, orobat jainkoen aro>*kairou*^(g)/*garai* eta erre>*gar* eta arrai>*argi* bihurtzen ditu, une/*gune*, ume/*kume*, aiñe/*agnu*^(l), men/*agmen*^(l), ano/*gano*, aina/*gaina*, anoi/*geinhü*, enda/*gende*, auta/*kauta*>*causa*, ate/*kate*, ota/*kota*, ide/*kide*, id/*quid*^(l) “hau/zerbait”, idem/*quidem*^(l) “bera”, utxa/*kutxa*, oru/*ekura*>*egura*>*gora*, oratu/*akuratu*¹⁷, erra/*gerra*, ara/*gara*, ari/*gari*, ortzi/*egortzi*, loria/*gloria*, abele/*cabale*, abere>*abre/cabra*, etab. (Ikus sentzu eta adimen hitz-aditzak 5°, 6° laburgoetan)

Ba arketipo bidez hitz zaharra apaldu edo baitatu egiten du: su/*besu*>*fos*^(g), ide/*bide*>*fide*^(l)/*fede*, oste/*post*^(l), ud/*potu*^(l), izi/*pizti*>*bestia*, ixzu/*piscis*^(l)>*pez*, ostia/*posta*, ostiu/*puesto*, atala/*plateia*^(g)>*plaza*, utz/*putz*, utxa/*buche*, aro/*abaro*, era/*bera*>*vera*^(l), uri/*bury*^(l), oru/*buru*, irina/*birrina*, uruna/*buruna*>*borona*, eru(n)/*fero*^(g), ira/*arrabia*>*rabie*^(l), irao/*birao*, irri/*birria*, erro/*berro*, ara/*arbi* >*rave*^(l)>*rabano*, ehuna>*pana*, ero/*bero*, urt/*port*^(l), oste/*bost*>*post*^(l), ertzi/*berezi*>*fares*^(h), ala/*bala*, ili/*vila*^(l), ola/*bola/pola/poli*^(g)¹⁸, hildu/*bildu*, arba/*barba*^(l), ule/*pilu*^(l)/*pele*^(l) “piel”, ahul/*ful*, ahula/*baula*, uial/*lluvia/pluvia*^(l), oru/*orube/borea*^(g), orube/*orbia*>*orbe*^(l), errai/*arraba*, ur/*urbe*^(l), ele/*labi*^(h)/*lapa*, ola/*labe*, ulu/*lupu*^(l), harri/*arpe*, erre/*erpe*^(l), erpa>*arrapa*, arrapatu>*rapere*^(l)>*raptar*, arbatu>*arpatu*>*arbaso*, etab.

Azaleko irudiak baita analogizatzen dute: kan/*gan+be*>*ganbe/cambio*, goina+*be*>*konba/comba*>*konparatu*>*comparar*, gar+*be*>*garba/garbai/garbi*, gal+*be*>*galbai*, kol+*pe*>*kolpe*>*golpe*,

>“trebetasun” eta nolabait “*gaineria*”, *Ekain/Kain* formek bezala, baina *Inu* goi kategoriak As espirituaren arketipoa hartzean, *Inu* “*Jein/Jaun* bihurtzen da eta halatan ohore egiten dio *Inu* arketipoari, *Inko Jaun/Jaun Inko*>*Jainko* izateraino.

17 *Akuratu*>*akurazo*^(g) “akuratu, erosi” elkarrenak dira, *egura/agora*^(g) lez.
18 Euskararen hermeneutikaz *Kratylo* hizketarietaz erraz jakingo lukete zer esan nahi duen *Akropolis* hitzak eta Partenona eta gainerako tolo guztiak baino lehenago jainkoak han oratuak izan zirenekoa.

kulpa>*culpa*, *kolpatu/golpear*, *ide/bide*>*fide*^(l), *ede/fede*, *iza/bizi*, *hezi/bezi*>*avezar*, *bezatu*^(eu)>*facere*^(l), etab.

Utu/itu iduzkiaren soa *txetu* bihurtzen da giza begiradan eta haren ofizioko *Utukku*^(s) “aingeru guardakoa” *Shedu*^(s), *ede/xede*, *xedatu* bezala, edo *edu/xeito*^(gal) fisikotasuna, animaren kalitate egiten dela; *hesi*>*hesitu*>*estu/hesitu*>*enda/sendi*, *enda/xente*^(gal) “kasta/nortasun”, *andere/etxandera*>*santera*, *entzun/sentzun*, *sentzun/zentzun* hizkune egiten dutela, etab.

3.7. Hitzaren garapena?

Giza arketipoen arteko eztabaidatik burua ateratzeko, gizakiak itunben berriaren arnasea lortu zuan, erritoak eskuratu zion santutasun txit zehatza As arketipoaren seinuz egiztatua, *Ka/Ba sk/sp* multsoetan berbizi agertzen diren bezala, *ekua*^(s)/*esku* eginik eta *ekura/ekur*^(s)/*eskura*, hizkunez *eskur/ezkur* “zuhaitz frutudun/-janari” bereizten direla, *ekura/sekor*¹⁹, *ekur/ishkur*^(s), *ekuru/eskuri/seguru*>*zigur/sicuro*^(it), *gano/gana* formek *eskanu*<*scanno*^(l)>-*escaño/skena*^(g)>*escena* ematen dute eta *kari/eskari*, *kar/escaria*^(l) eta *eskar*, *kara/eskara*²⁰, *ekin/eskin*, *ekus/eskus*>*escusar*, *ekusi/scusi*^(it), *ekutu/eskutu*, *kutu*^(g)/*eskutu*>*scutu*^(l)>*escudo*, etab. Arnasa berriaz osatzen ditu *Ba* arketipoko izenak ere: *epe/espe*>*spe*^(l), *bero/espero*>*spero*^(l), *beakulu/speculu*^(l)>*espejo*, *patu/pactu*^(l)/*spatiu*^(l) ²¹, *barru/esparru* eta *pil/espil* datoz, *bara/espera*, *biritu*>*espiritu*>*spiritu*^(l), etab.

Ka, *Ba* arketipoek jainko izenak gizatzen dituzten bezala, arnasa berriko As arketipoak santutasun zehatza edo eskubide berezia adierazten du, goiko eta beheko ereduak berdintzen dituela eta Jainko izen zaharrak hein beretsuko titulo berri ger

19 *Ekurako* eberrea etxekotu zenean *ekur* zena *xekor*^(eu)/*ishkur*^(s) bihurtu zan, oraindio uhaltasunaren abere sakratua zelarrik.

20 *Kara* zerbait “eratu, arautu” izatetik *eskara* etxatiarren hizkuntza izatera dator.

21 *Utu/Patu* gizatuarekiko *paktuak* “hitzarmenak” *Utu/hutz* espazio eremurako eskubide paktatua eman balion.

tatzen dira: *An/San, Anu/sano, Inu/sinu^(l)>seno, Ino/sino, Inu/seinu/signu^(l), huna/xauna, Inko/Xeinka/Jainko, Enki/Xekina^(ara)* “Jainko etxekotua”, *ena/sen>seny^(ca)* “egia/zentzuna”, *en^(s)/sene^(l)* “nausi/zahar”, *en^(s)/jein, ime/semi, eñe/esne, aña/señá^(cast), un/ezun>ezagun, imi/xeme, min/samin, inda/sendá/semíta^(l)*, “zeruko/goiko bide/santutegi bide”, *senda/sendó* hizkune eta guzti, *sendabide, sentorale, senterí^(cu)/sentier^(l)* “senda/osasun” hizkunez²², *exido/sitio, hesitu>seto*. Era berean hesi/ixi/itxi dator hizkunez eta *eskera>eskeratu>secretu^(l)>secreto²³, lorio/zelarú, ola/esola>etxola, ele/sel, ele/txal, abel>cheval^(l), abre>chèvre^(l)*, etab.

Aditzaren garapena adierazten dute aurrizki edo preposizioak ere: *bildu/ambildu, aitu/enaitu, oatu/enóatu, batu/tapatu, bermatu/subermatu²⁴, atxiki/iraxiki, entzun/erantzun, bizitu/albizitu, erratu/lerratu, in/egin, arri/ekarri, hezi/bezi, hesi/beresi*, eta berdin latinean eta grekoan: *ducere/inducere^(l), fero/anafero^(g), tendere/attendere^(l), pleo/diapleo^(g), producir/reproducir, legere/elligere^(l), leipo/elleipo^(g), cedere/accedere^(l), teino/ekteino^(g), facere/perficere^(l), lyo/uperlyo^(g)²⁵*, etab.

Azkeneko As arketipoak ere *se-, etxa-, ja-, je-, as-, az-, ex-, s-aurrizkiak* aurreratzen ditu, aditz zaharren edukina osatzeko, hala *ihesi/sahietsi, urt/jaurt, erria/exeri, erun/etxaron, baretu/aspertu, bildu/azpildu, ago^(g)/eisago^(g), eligere^(l)/seligere^(l), fero/spero^(l), iritxi/jaritsi, kartu/eskartu, bilatu>espallar^(g)*, etab.

22 *Inu+ate>inda*, iduzkiak zeruan egiten duen bidea “goiko bide” adierazteko, *senda* “santutegiko bidea” adierazten. Horixe bera adierazten dute tokizenez Arantzazura edo Sasiola santutegi bideetan kokatzen diren *Sendika* “senda etxe” baserriak.

23 *Etxe* gizarte egitura berrian jainkoak atotsi eta onartuak izan zirenetik, etxea *eskubide* eta *eskura* sinboloa gertatu zan. *Hesi>etxe/etze* formak As arketipoaren arnaskide dira, batean eraikintzaren gaia eta beste an heztegia eta bizitokia, *hesi/hezi* bereizten direla bata bestearen zio eta ondore diren edukinak

24 *Su+-bera*, jokerazko atzizkia>*subera>super/soberatu>sobrado* eta *superare^(l)>superar*.

25 Ikustea baino ez dago *ber-/per-/uper-* aurrizkiek formaz eta edukinez duten senidetasuna.

ONDOREA

Hizkuntza familia bateko izenekin batera sortu ziran: *amon*, *atton*, *ama*, *atta* eta seme-alaben izenak eta euren arteko historia osatzen zuten mitoak eta zero lurretan ordezkatzeko zituzten sinbolo adigarriak. Zerua eta lurra elkarren diztirak ziran asaben teologian eta halatsu dakus gaur ekologiak berak. Elkarrenganako amorena nautsizen denean, familia ondo orekatzen da, bestela autsi doa bakea den ongoa. Norbere familian etorkina etxekotzat hartzea denok familia zabalago baten partele garelako aitortzea da.

Euskara gaueko hizkuntza zahar eta desagertuen interprete segurua da, eurekin jaio zenak euren pentsamoldeko balore eta edukinak gordetzen dituen mitoen gorantziarekin batean, sumeriera, akadiera, koptoa, grekoa eta latina eta euren eratorriak artean direla. Euskara hermeneutika bakarra da kasu askotan eta hermeneutek jarraitu beharko luketen artezi ziburra, indoeuropeismoak-eta hain merke egin erratuak behin zuzentzekotan.

Batez ere, euskara euskal etnografiaren interprete baliagarria da, bera argibide ez denean, ostera, "otso gorriak" idortzen ditugu mendietan eta "inausleak" Inotean. Euskara hitzaren magal zabala eta izenen eta edukinen saretan ugaria denez, atsegina da berarekin eta berera etimologiazko okerrak zuzentzea.

Hitzaren gizakundeak Jainkoaren eta gizakiaren arteko alde markatzen dator eta erabat Jainkoaren eta gizakiaren arteko nabastarre errespetutsua, edo hain bakoa, adierazten, batak *jein* nausi izatera darama gizakia eta besteak *geinu* errakor eta lerrakor izatera, gaineriaz dendatu angeruak ere diaburu izatera bultzatu zituan bezala.

Sinbolo eta arketipoen eskeran gorde hitza mitoaren berriemaile ziburra da atzera begira eta herriaren gain egadaten zen espirituaren profezia aurrera begira. Liburuko profezia zurrungoa da hizkuntza biziarena baino; han leterak ito egiten du jatorrizko sinboloa eta hagandiko espiritua, ahoz-ahozko hitz biziak, ostera, arnasa berria hartzen du, jakinduriak esanala.

IV. TOKIZENEK HISTORIAREN BERRI

Tokizenen ikerketak ekarri gaitu euskara unibertsala errebindikatzaera eta bere izena aurrehistoriaraino bultzatzaera, euskara prehistoriakoa izanik ere, bere lekukotasunak ematen diolako hasera historiari Asiatik Europara eta mediterranean inguruan. Ezagunak ziran lehendik historiaren “begiak” kronologia eta geografia, zientzia hoiei begira ematen bai-ditu historiak lehen pausoak. Itxua ete litzake lurreko aztarrenik ezean eta batez ere idazkizun faltaz eginiko historia? Idazkizunen aurretik, ordea, geografiako izenak ziran lurbiran zabalduak. Izenok idatzi aurretik, esanak eta bidaztien gidatzat adituak izan bai-ziran. Gure asabek zehaztasun handiz deskribatzen zituzten ibai, ibar edo mendi ibilbideok eta helmugako portuak, uriak eta herriak. Historiagileek eurak ere ahotz haiek euren entzumenean gorde, euren ahozkeraz errepikatu eta halatsu iskiriatu bai-zituzten, historiari entzumena jartzen ziotela, baina izen haien edukina ulertu gabe edo haien mezuari ezentzuna eginik. Horrela, harrien eta aztarren materialen historia bultzatu zuten, historia, erauskinak barik, toki haien izenek, entzun edo idatziek, sagaratzen zutela hauteman gabe. Toki haien izenak, harri eta idazkizunetan aurkitu errege leinuen zerrendak beste edo gehiago ziran historiren lekuko. Tokizenak, izan ere, aurrehistoriarekiko herrien berri ahozkatuak eta “entzunak” ziran. Jatorrizko izenon mezua zertan den jakiteko antxinak hizkuntzak dira lekuko, latinaren eta grekoaren aurretikoak, alegia. Historigile zaharrak, grekar edo errotar izan, ez zituzten ezagutzen izen hoiengiturak, eta gaurko historiagileek haien hutsak jarraitzen dituzte, okerrak zuzendu beharrean.

Adibidez, *Estabillo* idatzita dager IX gizaldiko kartularioan eta historiagileak latinezko *stabulum* “txabola” formatik datorrelakoz aldiei eta tokiei antzematean, *Estabillo* erromatarrek sortu baserrizat ematen du¹, eta, beraz, Ebro aldeko arabarrek ganadua


1 *Vizcaya en la plena Edad Media*, J. A. García de Cortázar, Caja de Ahorros Vizcaína, 1983. (Temas vizcaínos)

hezten ezeze, tokiei izenak ipinten haiekandik ikasi zutela ebazten du, alderdi haretako euskaldunek hanartean *korta* eta *ganadu* izenik aipatu ez ezbailuen. Hala ere, euskarak ba zezagun *hezi/-bezi*>*avezar* eratorrien bidea eta, erromatarrek eurak ere, guretik jaraunsi zuten *bezatu*^(en)>*facere*^(l) aditza. Hagatik *Estabillo* edo *Etxabilo/Sabiola/Txabola* euskararen esparru dira eta *Olabe/Oliva/Beola/Bola*, *be+ola* bilguko hitz zaharragoen berriztapenak *etxe/ste* aurrizki dutela, edo *Olabe*>*Lope* formetan atzizki, *Lopez* dela. Eta *ekura+ate*>*korta/korte* datorrenak, ekuran dabilen ganaduak estalpea duela adieraten du, eta ez erromatar guda-rien bilgunea, eta *ganadua* ere ez zan izango *ganatu* euskaldunek, kasu honetan, arteziaz edo en.*gainatuz gainatu*>*ganar* ezpalute, *ganatu/ganadu* bai-dator hizkunez eta eratorriz². Euskara hermeneutikak atzekoz aurrera idazten du historia, eta beste askoak aurrekoz atzera egin okerrak salatzen ditu.

Deba/Deva ibaia izen bereko uri ondotik Elgoibarreraino zetorren itxas atedun ur bidea zan aldi baten. Ba dago izen bereko ibairik Kantabrian, Asturian, Galizian edo Mesopotamian, eta bere aurretiko formak *Atabe*, *Teba*, *Tebas* eta *Tiebas* izenak ere ezagun ditugu, denetan *ate+be/ibai* agertzen direla tokiaren deskribatzaile. Hala ere tokizenaren zentzua ulertzen ez duten historiagileek eta izena edozein saretik hartuzaleek *Deva* izena, euren ustez, indoeuropearrek hemendik igarokeran utzi zuten aztarren ziurtzat joten dute, kultura haietako jendeak *Deva* izeneko jainkozko izakiak aitortzen bai-zituzten, zuhaitz, etxe eta enparaduen bizkorgarri zirenak. Halako antihermeneutika erabili izan da sarritan euskararen jabe direnei orpoak jateko, eta batez ere, euskara amaren ahotzari ezentzuna egin eta haren maisutza ukatzeko. Baina lurra bera dator euskararen alde, honek deskribatua harek bere fisikotasunean egizatzen bai-du.

Kratylo-n *Pallas* jaïnkesa, Atenako zaindariaren, izena aztertu ondoren, eta “*Athenas* izenaz zer dinozu” (407 a) galdetzen duene-

2 Beraz euskal hiztegi-gileek ardura gabe har dezakete *ganadu* hitza euskalduntzat, *gainatu/engainatu*, hitz beraren osapena bai-da eta bide berekoak, berriz, *neuganatu*, *zeuganatu*, etab. NORGANA kasutikoak.



Canthari/Atarigane, Pireo "beko area" *Atenako* portuan. Eskuman *Munichia* muinoa eta bien erdian *Atena* (Urbs vetus) uri zaharra "Ate(g)aina". Honen mugetan dager *Agora* filosofoen *ekura* edo eguratz tokia eta haren gaina *Akropolis* jainkoen egura, santutegia eta erabat herriko gotortegia. Han *Stoa* ere zutabez *esitua*, eta *muurak*, toki deskribapentetan *Atenagino* bai-da euskaldun.

an, jainko izenak eta tokizenak saku beretik atereaz, uriak haraz gero zuen ospetik ematen du "jainkesaren adimena" esan nahiko zuela, poeten ustez ere, *Athenai* uria Zeus jainkoaren burutik aterea zela-eta. Gerkarrek, mitoa ugaritu bestean, nastu egin zuten, gauza argirik ateratekotan. *Atena/Athenai*, ostera, beste edozein *ate* "portu" bezalako deskribapena da, beste portuen aldean *ain-tu* "gaindu" kokatzen dena, eta bere familiakoak *Atain/Atin/Tana-/Tiana* formetan agertzen diren bezala³, mundu zabalean dira.

4.1. Lurraren norabideak

Norabidea eguzkiak, hastetik eta ostera, markatzen du gaurdaino. Gizakiak ez du beste itu ziurragorik: "eguzkia nora, zapiak hara" diharduenak edo "eguzkia sortu eta sartzen denera" esatean bezala. Zientzia modernoena ez du ezer hizkera honen aurka, hizkera mitologia giroan sortu eta halatan jarraitzen duelako. Halaber eguna hasi *Asia* aldetik hasten da usko-mediterranean kulturako jendearentzat eta eguzkia osten den uneari *Oste* deitzen zaio. Eta haraz gero *Aste/Este* eta *Oste/Oeste* deritzaie, euskarak munduari utzitako deiturekin, kanpoederrok, besteen jakinduria goretsi eta Sortalde eta Sartalde "Oriente/Occidente"

3 Izan ere, *Atenas* Pireo edo *Kanthari/atarigane* portuko eta *Munichia*⁽⁹⁾ *munearen* artean kokatzen da. Halakoxe *munean/muinoan* oinarritzen eta *munatzen*>*muniri*⁽¹⁰⁾ bai-ziran uriak, *Mungia*, *Mónaco* edo *Munich* bezala. Izenoi begira argi dago minoikar "barbaroa" ere euskararen lehengusua izan zela.

izenak ere kalkatu ditugunarren, harako *Este/Oeste* ustezko "erdal" hitzak itzuritearren, nonbait. Hori gutxi bada, azkenaldian Ekialde eta Mendebalde ere asmatu eta bultzatu ditugu, behin jatorrizko hitzaren ilunduraren abiatuz gero, geure burua baztertu edo euskara berari estrepozuak ipintearren. Ez al du euskarak berea duena berreskuratzeko eskubiderik eta berea duela frogatzeko nahiko hermeneutikarik? Indoeuropeistek ez zekiten euskararik, bestela ez ziren hainbestearaino lerratuko kolonismoaren garaian⁴. Ingelesen ontziak baino lehenago mugitu ziren euskaldunenak itxasoan; ingelesek *east* hitzak zer esan nahi duen ez zekitenez, tea ekoizten zen lurretara joan behar izan zuten "akordatzeko". Euskaldunek, ahoz-ahoz, aldean zerabilten hitza eta haren arketipoetan azalpena eta ez zuten sanskritoaren hiztegiara joan beharrik izan. Laprastada batek bestea dakarrenez, ikustea baino ez dago *Oeste* aldea nondik asmatzen duten edozein wikipedian⁵. Euskarak berak dino *otsi/oste Utu* iduzkiak egunero hasmetik osterara egiten duen ariketa dela eta euskaldunek munduari itzultzera aurreren egin aurretiko jakinduria du, eguzkiagandik ikasita. Euskarak berez dakiena ez da gutxi, baina handi egiten du beste hizkuntzek ez dakitena euren ahotik entzun ondoren.

Euskarak *Ifar/Ipar* deitzen du "Norte" eta halatsu "holandresen *ibar*" aldeako "*Ifar* itxaso" ere. Holanda mendia bako lur *ibarra>bera* da. *Ibar>ifar/ipar* dator edukina aldatuz. "Toki urruna" hala *Far West* "Oste urruna" ingelesentzat, Indo alderdira salerosketan joan aurretikoa. Horra, bada, *ibar^(eu)>far⁽ⁱ⁾*, azalpen hoberik ezean.

Asaben garaikideek lurra laua zela uste zuten eta, hagatik eguz-

4 Ikusi ezaire euskara ez dakiten indoeuropeisten lerradura: "La palabra *este* proviene del inglés antiguo *east* el cual a su vez deriva del proto-germánico *austra* y éste del proto-indoeuropeo *aus* que significa "aurora". Definitze honek sanskritori dohan saltzen dio arima.

5 El nombre *Oeste* proviene del inglés "west", el cual deriva de la palabra *westar* del alto alemán antiguo que está posiblemente relacionado con el término latino *vesper* que significa "tarde" y que está emparentado con el griego *hesperos* cuyo significado es el mismo. Definitzio honek uste du, eguzkiaren mugidak barik, eurak inbentatu zutela hitzetik ortzera: orzantz eta arratz fenomenoak ere.

kiak lurpetik egiten zuela osterea. Eguzkiaren sartu-urteneko *ataria*>*terra*⁽⁶⁾ “lur” bera dela. *Ate* den aldetik *atx/aitz* dator eta *itoitu/ito* dira *Utu* iduzkiaren ahaleginak, (Ikus *Utu* bidea itaitzen 19 or.) eta *arre/ortzi Erra* iruzkiarenak. *Itoitu/itto* ekintzak *itxoso/itxaso* tokia adierazten dute. Antxinekoen ustez, aitzak eta arruak eguzkiak ibilian eginiko bideak ziran lurrean, izenak ere arketipo bienak, goiko utzunean *utz/aire*, *eter*⁽⁶⁾>*eder*^(6a) diren bezala. Beraz, arketipoen arabera, gerkerak *cosmos* asmatu baino milaka urte lehenago hor du *eder* izena euskarak.

Lurra eta itxasoaren arteko *marra* ura bera da, euskeraz “muga” ere esaten dena, latinez, ostera, *marra*>*mare* “itxaso” gelditu zan. Mediterraneoar itxasoak baino hondura doblea du grekoentzat *Ponto Euxino* zeritson “Mar Negro” itxasoak. Grekoek ez dakite nondik datorren *Ponto Euxino* izena. Eguzki indak goitik neur-tzen duen zero lurren arteko sakonera *Inu+Utu*>*ondo* dator, baina hitzaren gizatasunaz, beheko sakona *ponto*>*fondo*>*hondo* bihurtzen da, gizakiarentzat ondamendi edo toki ondagarria benetan. *Ponto Euxino* formak “oxin ondoa” dino, *osin/oxin* hasierako putzu eta itxaso esaten ere bai-dator. Beraz, euskarak ba daki nondik datorren *Oxin*>*Océano*, edo Miel *Otxin*, euskal wikipediaren bat etimologiak egiten ausartzen denerako.

“Egoa” *Sur* da erderaz, baina erderek ez dakite horren jatorriaren berri⁶ eta, ez dakitenez, beza ematen diote euskarari. Euskaraz *su/sur* “fuego” da, “*surtan erre*” esaten den bezala. *Surtarako zuraitz* gaia ere ezaguna zaigu, *Utu+Ra* “eduski/iruski” arketipo bien elkar-tea aukeratuz, hala *autz/erre*>*autzerre*>*austerre* formetan. *Austro* forma ere nondik datorren jakiteko arrastoa ematen die euskarak⁷. Baina garai honetan, greziarrek “Europa harrapatua” mitoa asmatu zutenean baino ere izenik jasarrituena denez gero, *Europa* izena nondik datorren jakin beharra zegoen. *Oru+be*>*Orube* formak

6 “La etimología de la palabra *Sur* se puede trazar su origen del nombre *sol* debido a que este astro domina este punto cardinal” dino erdal wikipediak, etimologiarik azaldu barik.

7 “La palabra *austral* deriva del término *austro*, (en latín *austrum* o *auster*) el cual indicaba este punto cardinal.

Eurabe/Euribea egiten du Araban eta *Europa* Bizkaian ⁸, *orube/borea*⁽⁹⁾ “ifarra” dator arketipoen itzuliketaz eta *borea/ifarra* arketipo berbereko forma eta edukina da.

4.2. Arketipoen dantza izendegian

Hasieran tokizenak bare doaz kontsonante soilaren abiadan *An*, *Ota*, *Ate*, *Oru*, *Ola*, *Ekai*, *Bea*, *Es* eta, bakuna da eta, euren edukia arketipoari lotua doa, harekiko tokia eta analogiaren bat idoroten duela. Jarraian *-une* “toki” zehaztasuna edo *-ko* NONGO kasuaren atzizkia jartzen zaie *Olaun/Olano*, *Olako*, etab. sortzen direla edo, izen soilak elkartuz, *Anes/Esain*, *Otaola/Olot*, *Atabe/Bedia* bezalako izenak, bien artean osatzen dutela tokia-
ren deskribapena: *Anes* “altuko etxea”, *Otaola* “goiko bizitokia”, *Atabe* “beheko atea”, etab. Horrela antzematen dugu izenak, zenbat eta soilagoak, zaharragoak direna eta alderantziz, zenbat eta korapilatxuagoak, gazteagoak.

Gizateria zabaldua, lur aukeratuen izenak eta herrien izenak ere ugaritzen joazen. Nola berezi izen bata bestetik, biak deskribapen bereko, *Olabe* adibidez, izanik? Arketipoak aldatu: bata *Olabe* eta bestea *Beola/Biola/Bola* eginik, edo *Aines/Etxaeina/Sena/Zegna*, *Udetxea*>*Dotxe/Etxado*>*Estoa* berezi daitezen eta berdin *Ataun/Unate*>*Unda*, *Otola/Olot/Olaso*, *Olako/Okola*>*Okla*, *Atabe/Beitia*>*Bedia*, *Atalia*>*Atla* edo *Eilat*>*Elade*, etab. Haraz gero, ez dago izen aglutinatu edo konposatu bat, atzekoz aurrera ere esan ez daitekenik, edo berezko igadurak jasan ez ditzakenik.

Izen gehienok argiak dira eratarala ala itzuleztara ahozkatu edo idatzi, alare argiago *Etxaeina/Aines* baino, *Olaun/Unola* baino edo *Otola/Olot* baino, *Udetxea/Etxado* baino. Egoki da halakoe-tan elipsian gelditu diren bokalak argitzea: *Otaola/Olaota*, edo *Urgain/Ainorga*, adibidez, eta era batera ulertzen ez dena bestera jartzea, hitzaren arketipoek eta edukin ezagunek eurak argi dezaten forma osatuagoan.

8 G. Semerano autorearen ustez, *erebu*⁽⁸⁾ “arratza, gau” erroetiko omen da, *gau+uts*⁽⁹⁾>*xaos*⁽⁹⁾ “caos” datorrena, baina tokizenaren sareak>

Era berean egin behar da izen konposatuekin: *Landaola/Olanda*, *Donagaldia/Galdona*, *Ibarrola/Oliver*, *Urigoiti/Goituri*, *Ibgorza/Gorosibai*, *Landaguren/Groenland*, etab., batera ulertzen ez denean, bestera eman dezan euskararen arpegi ezaguna. Bestetan arketipoen itzulgarritasunak berak garamatza ezaupidera, hala *Varsobia/Sobrabe*, *Kaines/Eskania*, *Burgain/Hamburgo*, *Landaria/Ireland*, *Galandain/England*, *Kaineko/Okaina*, *Landatxueta/Jutlandia/Dotxeland*, etab., euskararen esparru izana zabalduz doala, nahiz *Deutschland* bezalako idazkerak inoiz edo behin ezagupidea eragozpen den. *Brandeville/Willebrand* formak ulertzeko *Berantevilla* dugu, germanismoak bertan baino hareago Germanian euskara ikusteko⁹.

Tokizenez egin bidea hizkuntza arruntean ere izan zuan sarra-da, nahiz eta kopuru laburragoan eta, gehien bat, mailebatuak marrotzearren. Horrela *besape/babes* > *pavés* ere izan daiteke *beso+be* osogarrien dantzaz. Ez da lorpen material utsa, analogiaren logika baizik. Oilo amak ere egapean babesten dituelako txitak eta amak besartean babesa ematen umeari eta analogia berak aurreratzen du burrukarako *babeskia pavés* deitzera, izan ere, analogia bai-da hizkuntzaren garapena.

Horrela izan zan hazieratik, euskara barne, hizkuntza mailebatuetan: hala *ra-mu*^(e)/*amore*^(eu), *ms*^(e)/*seme*, *Inko/goien*, *Inka/Ekain* gertatu zan nolabaiteko hizkunez edo analogiaz; *Inko/eikon*^(a) “Jainko/irudia”, *muru/orma*, *amarra/arma*, *handi/adin*, *amatau/atzamau*, *nabar/barna*, *Ozti*^(eu)/*Theus*^(g), *Terra*^(l)/*Arthe*, *Thor*^(esk)/*Urtzi*^(eu), *Sole*^(l)/*Elios*^(g), *Adapa*^(s)/*abade*, *Ma.at*^(v)/*Dama*, *atera/urt*, *eder/arte*, *tori/hartu*, *turrere*^(l)/*erretu*, *iter*^(l)/*ruta*, *itera/orzo*^(g), *tour*^(l)/*rota*, *duro/rudo*, *tuer*^(l)/*ertu*, *tueor*^(l)/*ortu*, *dornadu/rotundo*, *si*^(h)/*eresi*, *atarbe/borta* > *porta* > *puerta*, *usna/nasu*^(l), *ospe/boza* > *voz*, *zabale/plaza*, *dies/asti*, *oztopa/obsto*^(l), *duin/aintu*, *ttona/-*

>, ostera ere, euskarari ematen dio arrazio.

9 *Bera.ante.villa*: *bera* / “ibar” (Ayuda ibaiko), +*ante* / “ataina” = bortu altu: “bortu altuko ibarrean dagoen uria”, +*villa* “bil” alias *Beranturi* deskribapenez. H. Knörr jaunak hor “Berandi > Brando jauntxuaren uria-edo” ikusten du. (H. KNÖRR. *En torno a Verantevilla y Soportilla*, Euskera, 845-846 (2006))

natu⁽⁰⁾, iloba/biloi, love⁽⁰⁾/fileo⁽⁰⁾ “maitatu”, love⁽⁰⁾/vollo⁽⁰⁾ “nahi”, elish^(a)/zeli/ciel⁽⁰⁾, lamina/mamala, litx/isla, alapa⁽⁰⁾/pla, laskitu/saskildu, hur/arlo, lupu⁽⁰⁾/bull⁽⁰⁾, lutu⁽⁰⁾/dolu, leku/kela>gela, laza/zale, otsalar/larrosa, hilemotx/mutxil, alagai/galai, orga/carro, ataka/gate⁽⁰⁾, túnica/giton⁽⁰⁾, toca/kota, rueca/goru, izaki/giza, leku/okelu, cutos⁽⁰⁾/scutu⁽⁰⁾ “custodio/escudo”, custodiar/eskutatu, neke/gana, sorga/gezur, negar/ganar, akats/cacha, umeko/kume, kaxa/jaka, ezagun/gnose⁽⁰⁾, cubile⁽⁰⁾/bilku, morfe⁽⁰⁾/forma⁽⁰⁾, arreba/bar^(ara), neba/van^(ad) “seme”, arraba/ovario, ibar/riva, ibarre/arribe>erripa, baldi/debile⁽⁰⁾, botere/tabor, beharte/deber, abele/aleve, menpe/woman⁽⁰⁾, errape/ubera>ubre, atabal/valde, debere⁽⁰⁾/behartu, barraca/gabarra, Afrika/cafre, berro/rabo, egoitz/esku, ekoiztu/izkutu, esku/kutxa, eska/kexa, gaitz/achaque, eskar/garatz, eskar/xaris⁽⁰⁾, escote/coste, esol/olesi, esol/oltza, esto/toxa, urtzi/zeru, zil da/licet⁽⁰⁾, etab.

4.3. Arketipoen igadura izendegian

Izen eratorriekin beste hainbeste jazoten da. Eurotan arketipoak ez dira tokiz aldatzen, baina ahozkeraz ezberdinak igatu egiten du hazierako forma. Horrela, *Etxado>Etxauz>Chaos, Otoleta>Toledo, Helade>Hellas, Kaineko>Canigó, Bariza>Paris, Barretxe>Parrés, Karatea>Kreta>Grecia>Grez, Baranda>Branza/Brand>Frantzia, Brenda>French, Ibarraga>Berga, Ibarreta>Pert eta -berg/-pert* konposatuak, hala *Konisberg*, etab.

Kontuan hartzekoa da, batez, ere euskarak *br/pr/fr/bl/pl/kr/gr/kl/gl/gn* konsonanteen bilkUNETIK ihes egin duela, hizkera arruntean bezala, arketipo bakoitzaren edukina nabaritzearren, *ibarra* ez bai-da *ibra*, ez *egala>egla*, ez *gara>gra*. Euskaratik hara, *ostera, Karazo>Craus, Egurrola>Grul, Galarraga>Clark* laburtzen dira, *Ibarrena/Bremen, Ibarraga>Braga>Praga, Ibarreta>Breda, Ibarrola>Ferrol>Friol, Ballate>Blade, Belasko>Blasco*, etab. eta, hagatik, euskaldunari ez zitzaion otu ere egingo *Kalamendi>Clemente* deitzera iritxiko zenik eta hareago *Ibarretxe>Ypres* soiltzera, izena edukinaz gorde izan duelako eta *Ypres*, nahiz Belgikan kokatu, *Ibarretxe* esan nahi du, hitza bere

betera erakarri orduko, eta han dago herrixka horri sortzea eta zabalgunea eman zion ibarra, izenak deskribapen duen bezala.

Hor ikusten dugu euskarak hazi zuena, euskarak mantentzen dakiela, eta euskara amoztuez gero, hitza zabartu egiten dela, eta euskara hermenutika zorroztu orduko, erdal kapapean soin jatorra aurkitzen dakiala eta, halakoetan, euskara hermeneutikak bakarrik antzeman dezakela izanaren nondik norakoa.


Milaka urtetako tokizenetan gertatzen den igadura bera sortzen da euskaratik erdarara hizkuntza arruntean: *amantal*>*mantel*, *ainubi*>*nube*^(l), *txukatu*>*sikatu*>*siccare*^(l)>*secar*, etab. Egitura bera dute, edukin bera edo pizka bat aldatua. Euskara bertan *ataratu*>*asarratu*, *atoratu*>*azoratu*, *orei*>*euri*, *ekosari*>*gosari* daukagu eta handik hara: *atatu*>*atar*, *atomau*>*tomar*, *asartu*>*acertar*, *atuzar*>*azuzar*, *atera*>*acera*, *arrapatu*>*arribatar*>*rapatar*, *arte*>*rete*^(l)>*red*, *artzai*>*reza*^(irun), *alokairu*>*lucru*^(l)>*logro*, *aldatu*>*ladear*, *elger*/*leger*^(l), *garaun*>*granu*^(l)>*grano*, *garatu*>*gratu*^(l)>*grato*, *garatz*>*gratia*^(l)>*gracia*, *garba*>*grave*¹⁰, *enoiu*>*ennui*^(l), etab.

Tokiaren deskribapen fisikotik gogakera analogizatzen da: *ganatu*>*ganoso*, *kara*>*kario*>*caro*, *gala*^(s) “errega”>*galai*>*gailen*>*galano*, *gallu*^(a) “nagusi”>*gailur*, *gallu*^(a)/*kalou*^(g) “galant”, *gala*/*galai* hizkuneak ulertzeko ainean. Galde dezake, beraz Kratylok: “zergatik esan nahi du “eder” *kalou* hitzak, edo “printze” *galai* izenak? Nondik diatorkie horren doitasuna? Izenok hizkuneak edo bata besteenak dira, *arkhe*^(g)/*argi* bezala, batek, nagusi izateko, galant izan behar duelako edo argi, errege izateko.

Ari>*gari* dator gizabidez eta *garia* garatzen denean, *garan* heltzen zaio *une*, *gara+un*>*garaun* datorrela eta bide beretik analogizatzen dugu *garune*>*craneu*^(l), *garatu*>*crasu*^(l) “gizen” eta *gara* gehiengoa *garan*>*gran*, *garantz*/*grande*^(l), *gara+azi*>*cresci*^(l)>*crecer*, etab. *Ara*>*gara*.bezala, *oru*>*buru* gizatzen da hizkuntzan “.

10 Galburuaren irudiak sortzen du *gara+un*>*garaun*>*granu*, *garatu*>*gratu* edo pisuarren *garba* makurtua>*garbai* edo *grave* gertatzea, azaleko irudiaz analogiak barne ganora deskribatzen duela.

11 Ots, *oru* eguzki borobila analogizatu hitza da, baina antz bera>




Ahaggar-eko Ekura>Gory mendiak izan ziran Sahara Erdiko kulturgunea Neolitikokoan. Hango belardiak ahortu zirenean jendea ibarraldera sakabana-tu zan. Mendiok zuzia lez argi egiten dute eguzki sortze eta oste bakoitzean *tuareg* jendeen norabiderako, urrunetik ere Ahaggar *ager/agiriak* bai-dirá.

Buru ere analogien beste une bat da, “burua atera”, “buruz ekin”, “buruz ikasi”, “ekinaren *buruz>puruz/de puro* estudiar” esakere-tan ikusten den bezala. Orduan batek “burua ateratzen du” eta, *burukatu>frogatu* egiten, eta halako *burruka/borroka>froga* gertatzen da. Hareago, *burupe>burupetu>probatu/probare⁽¹⁾*, *proba/prueba* eta grekar-erromanikoen *pro* “alde” aurrizkia. *Garatu>gratu⁽¹⁾* datorren bezala, *burutu>frutu* dator, “barazki horrek burua emon dau” esaten denean bezala, eta *fructu⁽¹⁾>fruitu* ere baratze bereko ondarea da errotik bururaino, lati-noen hatzaparretatik honako itzulia egin duenarren.

4.4. *Gory Ahagar-etik Karakorum-era*

Hasiera baten Sahara eremua, oraingo mortua barik, kultura zahar baten baradisua izan zan. Euren Jainkoak Gory Ahagar mendian kokatzen zituan bere oinak eta Gory Ahagar zan euren zuzia eguzkiak goizetik lehenbiziki haren tinian kox egitean eta arratzean azken agurreko argia opa zionean eta handik urteten zuten hango belardiak urestatzen zituzten ibaiak. Oraindio *tuareg* “Utu+Erra+ko” leinuak ikuskatzen ditu euren asabak lurra hartu zuten paraje haiek. Baradisua mortu bihurtu zenean,

¹>gizakiak baitaratzean, *buru* egokitzen da.




Ekur⁽⁶⁾ “mendi tenploa” Sumerreko Nippur⁽⁶⁾ herriak Enlil jainkoari eskeinia. Nippur, *Duranki*⁽⁶⁾ “zeru-lurren lokarria” ere deitua, mendien zeruarekiko arartekotasuna adierazten dute. Hala Durango aldeko Ekurrola/Urkiolak ere. Nippur garaian, Ur bezalako uriek, eskuz eginiko *Zikurata* zeukaten uri barruan, ekur antzera eraiki tenploa. *Ekurako* jainkoak *Zikuratera* aldatzean, Inko>Jainko giza *etxean* onartzea bezala izan zan, “Jainkoa gurekin” esan ohi den bezala.

Abbay/Hapi (Nilo) ibai aldera jozuten askok eta han *Sakara* lehen piramidea jaso zuten, harako *Gory Ahagar* santutegiaren omenez, seinu berriko santua jartzen ziotela aurrizki. *Hapi* ibaiairen burura joaz, haren adar beheinena, *Abay* ibaiairen sorgua, aurkitzen da Gondar mendian, Tana lakuaren inguru, Etiopiako *Gorgora* santutegiaren ondoan. *Ibai* behinenari, *Abay/Hapi* deitzen zioten herriak kultura berekoak izan behar eta *ekura/ekur* santutegi *Gory/Gora* deitzen ziotenak ere *Ekurmendi kredo* beretsukoak eta elkarren ezagunak. Afrikako adar honetatik gertu Saba eta Arabia beheko itxas marran, eta hadik itxasketa baten, Sumer ezkerretara eta Indo aurrera Himalayarako bidean. Ibar honetaraino iritxi zirenen ustez, Indo buruan jagiten omen zan jainkoen *ekura* jasoena denetan, *Karakorun* zeritsona “garako ekura unea” alegia. *Indo* ibaia bera zan erromesen *inda*, erromesak mendiguneko indara gidatzen zituena. *Abay* ibaia, ezagutzen zen ibarik urtzuena fama zuen bezala, *Indo* *inda* zan, santutegirako indarik goitarrena denetan, jainko gurenen bidea, alegia, eta *Karakorun* bera zan jainkoen tokirik *ekurena>gurena, koruena>korona*.

Indo buruan Kachemira¹² goienean bizi den herriak *burushas*

12

Kachemira, mendi muru haietatik hartzen du izena *casa+mura* *mira* eta *Cashmir/Morgaza* formetan ikusten ditugu bere konposagaiak eta>



Karakorum gailurrak ikusteak baino ez dago, antzinakoen frudimenean zeru koruena zer zen jalditeko. Askok harako bidean bizia ematen zuten, fedearen burtz, ostio guztiak gañdituz. Zortzi mila zaleak, ausaz, teknika dute-gogoan

ki deritzaion hizkuntza egiten du eta euskararen antza omen du eta hala izango da burushaskiak, euskarak bezala, mendi-ibaion izenak ulertzeko bada.

Indo, jainkoen *inda* entzutetsuak eman zion izena *India* guztia-ri, bere *Bardetxe>Pradesh* eskualdeei, euren hizkuntzari ere *indi/hindi* deritzaio, Pakistan aldeko urdu indo-iraniar hizkelkiaren antzekoa da. Urdueraz *Indo* ibaiari *Sind* deritzaio, guk *inda>senda* formaz osatu ezagutzen dugun hitz bera, hain zuzen, eta Japoniako *Shinto* "jainkoen senda" erlijioarekin bat datorrena. Guzti honek usko-mediterraneanar hizkuntzaren garaietara garoaz eta beste askoren artean mandarin txinerak ere osatzen duen familiara.

Tokizenek paleontologiak baino hobeki azaltzen dute historia aurreko jende jainkozalearen mugida nondik norakoa izan zen adieraten bai-digute. Tokizenek jende haien erlijioarekin lotuta dagozela, hainbat ziurrago, halako hizkuntzak halako erlijio motaren seinale bai-dira, eta *ekurako Ekurmendi/Kormendi* santutegietako jainkoak ziran, izadi tenplokoak, giza eskuz landutako *Zikurat*

>menditzarraren beste aldeko ordekarari ere *Pamir/Murupe* deitzen zaio. Hala aurkitzen dira gure artean *Altamira*, *Murobieta* bezelako izeneko unek.

tenplokoak baino zaharragoak. Biak ere jainko gizatuen aldikoak direnarren, *koronarrien* aldiko jainkoen eta *etxekotu* jainkoen eta haiekiko erritoen artean milaka urteren aldea bai-dago garaiei begira. Santutegiko *indak* eta *sendak*, nahiz kultura eta erritoen aldaketa izenak diren, ez ziran une berekoak izan aldaketok, tokian toki-koak baizik, euskararen hermeneutika dugula lekuko.

Jainkoen *ekura* berdindu gurarik Kanbodiako kemer herriak XII giz. (K.o) *Angkor* tenplo *gurena* eraiki zuan, Himalaiako Meru mendian sortzen den Mekong ibaiaren adarrean, mendiaren pareko santutegi tontortsua jasorik¹³, 3.000 K.a. Sumerrek lehen Zikurata eraiki zuanean bezala, erlijio eremuan han jazo ez zenik ez bai-zen inun gertatu gerokoan. Izan ere, Nippur herriko mui-noan, kokatzen zan ezagun denik lehen jainko *ekura/ekur*⁽⁶⁾ santutegia (Ikus 84 or.) eta Enlil jainkoari eskeinia izan zan. Beraz, jainkoen bidea jarraituz, atal honen burua, hain luzea ezpalitz, osatuago izan zeiteken: “*Gory Ahagar-etik Karakorun eta Angkor-era, Akropolis eta Nippur-eko ekuratatik zehar*”.

4.5. Izanik gabeko indoeuropeismoa

Tokizenak herri etimologiaren arabera ulertzea zuzen erratura jotea da gehienetan. Horrela *Ibarzaharra*, Sestao aldean, “Valle Viejo” erderatzea. Nola izan daiteke ibar bat bestea baino zaharragoa, Sestaoko mendi-ibar-ibaiak aldi berean moldatuak izan bai-dira? Halako “traduzioak” traizionatu egiten dute euskaldungoa, euskara edo euskaldunen ganora ez baitan jarriaz. Hori *Gazteitxi* > *Gasteiz* “gazte etxe” edukineko hautematea bezala da. Hala baina, “zahar” edo “gazte” kalitateak ez dute sekula tokizenik deskribatzen. Tokizenen sarera jo behar da itera; kalitateen saretik edo beste edozein sailetik jasotzea erratua da. Itera joan da, tokizenetan badago *Itiar* > *Iziar* formen eratorririk bidea *itera*

13 Mitoaren arabera (Visknu jainkoaren gizakunde) *Kurma* dortokaren bizkarraren antzera eraikitako dorre askoduna da. Ohartzekoa da *Kurma/Angkor* hitzaren arketipo itzuliketa. Gure tokizenetan *Eguren/Enguera*, *Agurain/Aniguri*, *Gurena/Angora*, *Gorna/Engor*, etab. egiztatzten dutenez, eta tokizenen arabera, *Angkor* “ekura aintua” esan nahi du.

markatzen duena. *Itera*>*Izera*>*Zehar* dator, baina noiz edo behin *Zehar*>*Zahar* ere desbideratzen da ahotik belarrira eta horrek dira *Bentazahar/Zarrabenta*, *Lizarribar/Ibarzaharra*, **Zeharzubi/Zubizaharra*, bezalako izen errakorrak. *Izarra* zena *Estella* gaitzaldatu zuten ezeuskaldunek eta geroago baten, oke-rrak zuzentzearren, *Lizarra/Lizarraga/Lizarribar* formak edatu ziran, “butzu batetik urten eta bestean sartu” esan ohi den bezala, *lizar* batek, ez eta *artea* edo *areitza* bada ere, ez bai-dio ematen izenik toki bateri. Zuhaitz batek ezin duelako deskribatu tokia, zuhaitzak barik, bertan bizi den gizakiak, izentadu bai-ditu berak ibili behar dituen bideak, Jainkoa oratzeko mendiak, landu behar dituen soloak eta bizi behar duen tokia, etab.

Erdi Haroan ingelesek “Juan Sin-tierra” deitu zioten bere erregeari, eukiak Aita Santuari agindu zizkiola-ta, haraz gero, hain barik gelditu bai-zan. Hizkuntzalariek gauza berdina egin zuten euskararekin, indoeuropearrei saldu bai-zioten jatorria, euskara zela tokizenen ama. Juan Sintierak paperak firmatu zizkion Aita Santuari, baina euskarak, paper zalea ez zenez, tokizenetan eta tokizenok ahozkatzen dituen jenderengan dauska jabetasun agiriak eta agiriok indoeuropeismoa, lur jabea barik, lur jalea dela salatzen dute eta indoeuropeismoaren teoria jarraitzen duten hizkuntzalariek sasimaisuen heineko jartzen ditu, eta hareago, agiriak eskutik dituela, euskarak lapurtzako salatzen ditu Europako auzitegian, izenak izana berari ematen bai-dio.

Indoeuropeisten ustez, Indo/India aldean sortu eta XVII giz. desagertu zen, sanskrita hizkuntza izan omen zan Europako hizkuntzen ama. Indoeuropeistek, Europa erdiguneko alemanak eta iglesak bederen, izan ziran hipotesi hori edatu zutenak, beste azalpenik ezean, ondo zetorkielako mediterranean kultura zahar-raren edo ohiko erromatar kolonialismoaren aurrean, indiar kultura ospetsuaren lamaz burua jantziz euren kultura bedegarrean pentzakerá askeagoa bulzatzeko. Ordurako euskararik bizi ezbalitz, gaitzerdi, ekidin ezina izan bai-zeiteken erratua, baina kultura zaharrenaren ama eta jabea, bizirik zegoela, haren esku-bideez uztiatzea ez zan gertatu jende burutsuaren asmakari eta

erabaki zuzentzat¹⁴. Lotsagarria ere bada halako ebasketara, eta euskara bera baino, hareago asmatzaileen burua itxurgatzen du. Beste hainbeste esan genezake euskara ekidin eta grekoa edo latina amatzat hartzen dituenen etimologia arinak. Hizkuntza desagertua amatzat hartu eta benetako ama bizia ezeztea endekatuen xedea da. Hagatik dago Linguistika, hizkuntzalarien zientzia, XIX.ren gizaldian zurrundu eta aurrera pauso zuzenik emateko ez dela, berari dagozkion arazoetan eta, baitik bat, hizkuntzen zorrera eta eboluzionari buruzkoetan. Edo indoeuropeistek nolatan ulertzen dituzte anglosajoniar edo germaniar jatorrizko tokizen eta leinu-izenak. Ulertu ezinean, euskara amari galdetzea baino ez dute, amari bizi daino galdeu behar bai-zaio bereen jatorria eta nondik norakoa, amak erraieran dauskalako ondo markatutako genesak eta mitokondrioak, monosilaboz monozilabo eta hitzez hitz hitzunek harilduak eta ohargabe orokorrean jaregin hariak, ostera ere, beragan jaso ahal izateko eratan. "Gizakiak adieraz dezala bere jainkoaren handitasuna, gizaki gazteak ospa dezala polikeriarik gabe bere jainkoaren hitza, Sumer herri lehialean bizi diren gizakiek haria bezala harildu dezatela"¹⁵. Haria nola larga, batu hala.

Hermeneutika onak giza jainkozalearen bideak aztertzen ditu, haren nahikariaren edo beharizanaren santutegiko sendak jarraituz eta Bestearen arketipoak tokizenetan ohartuz. Zientziak, berez, Jainkoengandik jaregina denez gero, ez ditu aintzat hartzen giza neolitikoaren sentikerak, eta haien historia ulertzeko edo haiekandik daukagun hizkuntza aztertzeko ezgei egiten da. Tokizonek, bestalde, paleontologiak baino hobeki azaltzen dute historia aurreko jendeen mugida nondik norakoa izan zen eta lurdienez egiten dituen hizkuntzak ba dakizki hango biztanleen jatorria eta izengoitiak ere. Mitokondrioaren zeguna giza zoinean erabagigarri den bezala, hala da tokizenen lekukotasuna lurbiraren azalean.

14 FÉLIX ZUBIAGA, *Vascoeuropéismo versus indoeuropéismo*, p.109-120.
15 *El hombre y su Dios*, 1-3, DB, nº 26)

ONDOREA

Tokizenen segeretua iragarteko ez dago euskarari aurea hartuko dion hizkuntzarik, beraz herrien historia oinarritu nahi duten guztiek jakin beharko lukete euskararen hermeneutika eta hone-tan beste hizkuntzak duten utzuneak arrigarriagoa egiten du euskararen trebezia. Hermeneutika hau ez da, etimologia herrikoie-tan bezala, ezikasiaren belarrira datorren lehen soinua, hitzaren arketipoak aztertuz eta zehatz sarekatuen bidetik baino.

Jainko bideetan suertatu diren tokizen bereziak eragin handia izan dute hitzaren analogian, hala *mendi/mond*, *ekura*, *inda*, *senda*, gizakiaren ardurak eurak izan bai-dira zibilizazioa bultza-tu dutenak, santutegien tokizenak aztarren ziurrak bai-dira Eura-sian eta Afrika goiengan. Giza jainkozalearen bideak, kultura eta hizkuntza bera ezin ulertua gerta daikioke, asmo eta balore garai-kideekin ikertu nahi duen zientzialariari.

Tokizenek igadura handia jasan dute hiztun ezberdinen bela-rriz belarri eta ahoz-ahoz, baina konsonante multso batzuk behin-goan salatzen dute euren jatorria. Bestalde, tokizena, tokiaren deskribapena denez gero, tokiko orografiak, lekukoarena eginik, egiztatzen du unean euskarak hitzez ematen duen agiria.

Euskara, kontsonante multsoetatik ihes eginik, izena arketipoz arketipo argi, bakoitza uneko bokalarekin tartekatuta ahozkatu zalea izan da eta, arketipo bakoitzaren edukina nabariago ager zedin hitzaren mezua emakeran. Arketipoei dagokienez hizkun-tza argietan argiena denak ulertuaren ardura izan du eta hitzaren memoria horrela gorde izan duen hizkuntza hizkuntzen ama da eta halakoari dagokion maisutza eta izena zor zaio.

Hizkuntzalariek, beti ere, gizaldietan zehar herrien eta kulturen mugida aztertzeke lekukorik ziurrena den hizkuntzari sinistu beharko liokete, eta ez utsetik edo susmoetatik jasotako teoriari jara eginik, bada, euskarak Indo aldeko tokizenak bere esparrukotzat ulertzen ditu eta alderantziz, indoeuropeisten usteko sanskritak ez du hemendiko ezer ulertzen, eta, beraz, izenak ez dio izanik ematen.

V. TOKIZENEN EGITURA ETA BIZTANLEAK

Egoki da tokizenen sarea konpontzea, bere baloreak zuloren batetik galdu eta, erratuz, besteetara jo ez dezagun. Lehenengo eta behin, tokiaren deskribapen fisikoa egiten duten hitzak bakarririk dira sare honetakoak. Kanpora, beraz, kalitateak, aberedi eta landaredi saretakoak bederen. Hitz gehienak berez lurraren azaleko sail ezberdinak eta beraren gora-beherak ordezkatzan dituzte eta izena entzunaz tokia begiez ikusita ezagutzeko eratan. Horrela *mendi, muino, naba, ibai, ibar, goi, be, egal*, etab. Beste toki batzuk gizakiak tokian jaso erainkintzak dira tokiaren ezauzgarritzat erabilten direnak, *ola, torre, uri, tegi, etxe*, etab. Lurdiaren deskribapena egiten dutenak, berez iraunkorrek direnez gero, beti dira izenaren lekuko, izenak tokia bezala, tokiak izena egiaztatzen datozelako. Gizakien lanak, ostera, gizaldietan zehar eraikintzak jasaten duten igaduragatik lekukotasun hori galdu egin dezakete, baina izan zena gogarazten digute.

Izadiko zehaztasunak adierazten dituzten hitzak dira tokizenetan oinarritzko izenak eta lekuan lekuko historian zaharrenak. Hoietakoz batzuk, *ur, ara, ibai, ota*, etab. aztertu ondoren, atzerriko autore batek baino gehiagok "urrezko aztarrentzat" eman izan ditu, izen haretako herrien aurre-historia egin ahal izateko hermeneutikan. Hoiiek dira, izan ere, euskararen aldeko testigutza ziurrena egiten dutenak, baina beste erainkintzak ere aurretiko jende beraren senak utzitako aztarrenak dira, ez bai gabe.

Arketipo bakoitzak tokizenetan sail berezia du; *An* arketipoak, adibidez, eremu zabal edo mugatuak, *Ilu* arketipoak, lur sail landuak denean ere sinbolo-arketipoen analogia dela logika beheinena. Izen denak dute eratako forman edukin ezaguna, baina itzulitara agertzen diren askok, lehenengo formatik bakarrik dira ezagugarri. Adibidez, nola igarri *Kuende* forma, *Andikoa* itzultakora erakarri gabe? Forma soilagoak *Antia/Athena*, adibidez, edo konposatuagoetan *Andiaka/Akandia* ezaguterrazagoak dira.

Kalitateetan *zahar* eta *barri/berri* dira herri etimo zaleek mai-

teen eta ziurrentzat ematen dituztenak, horrela *Bentazahar/-Zarrabenta, Andazarreta, Olabarri/Barriola*. Kontu izenok ez ote diren *Zeharbenta>Cervante>Serbenta* eta *Ibarrola>Ferrol*, eta *Zarreta>Zearreta, zehar>zahar* eta *ibarre/barri/berri* jokoan¹. Sareko hitzen edukina errazteko, tokizenen hiztegia doa azkenean.

5.1. Inu/An uneak eta endak

Inu/An "zeru" magalak eta mantuak amaren mendeko une aintuak, muinok edo marrak, etabar. deskribatzen dizkigu, izen monosilabo edo konpondu direla; hala **ume**, *Unate/Ataun, Onandia/Andion, Uncastillo/Castellón, Ongara/Garona*; **ain**>ein, *Aines/Etxaeina, Ainorbe/Urbina, Ainetu/Twain*; **ana**>an, *Anatzuri/Churriana, Anakabe/Cabanna, Anantz/Anzana, Andura/Durán, Hamburgo/Burgain*; **ume**>mia, *Umbal/Val de Ume, Meaurio/Urumea, Miota/Dumia, Miola>Mola/Olamia*; **amai**>ama, *Amatza/Ezama, Amara/Arama, Aramayo/Mayora*; **man**/men, *Mambre/Bremen, Mansa/Ezamena, Mainaria/Armenia*; **muno**/muna, *Muniano/Unamuno, Munilla/Olamunia, Munitxa/Etxamuno*; **naba**, *Nabata/Tanaba, Nabarra/Arnava, Navola/Lanava*; **nasa**>naja, *Nasarre/Arnesa, Naxara/Aranaz*; **mendi**, *Mendaina/Ainamendi, Mandara/Aramendi, Mendabia/Bamendi*; **marra**>mar, *Maraka/Akamarre, Mardea/Adamar, Marco/Gomar*; **muuru**/morro/mura>mur>mir, *Morgaza/Cashmir, Muralta/Altamira, Murville/Villamor, Morrovale/Palmira*; **angio**>ango, *Angoso/Osango, Anguta/Adango, Angiozar/Oxarango*; **amil**>mil, *Milikua/Comilla, Amileta/Adamil, Millán/Anamil*; **mala**>mal, *Malkorra/Grumalo, Malmendi/Montemalo/Malaise/Asmal*; **nusu**>muz, *Musqueta/Ademuz, Musakola/Calamotxa, Musora/Ormuz*; **muga**, *Mugarra/Armuga, Mugiro/Irumuga, Mugala/Lamuga*; **ondo**, *Ondarru/Arrondo, Ondarra/Arrianda, Ondaeta/Atondo*; **ante**>anda/andi, *Antona/Onandia Andiaga/Akandia, Antia/Athenai, Antikua/Kuende, Andia/Denia, Andarrega/Arganda*; **inda**>inza, *Intxalo/Olinde, Intxausti/Bustinza, Inzeta/Atienza*, etab.

1 *Be+ante* "goi portuko be alde" ostatuak tokiaren izena hartu du. Hala *Antibe/Vande, Benza/Antzipe* formetan.

Bizitokiak biztanleen ganora gauzatzen du, “nolako landa, halako landerra” esateraino, hatan ere. Menditarrak eta lautada-koak elkarrengandik bereziak dira aiurritz eta hareago itxastar edo ordekoak, herritarren jatorri izena aztertu eta gero. Berdin etxe aldenduetako direnak edo auzo bilduagokoak. Hagatik herritarrek bizi duten lurretik hartzen dute izena, lurrak ematen die jatorri izena, eta etxeak abizena².

Horrela geografiako koordinadaz edo erliebez *ain/an/na* “altu-ran” bizi dena *ingeles, ainu, noruegar, normadar*, etab. izango dira.; *murru/murru* egituraz inguratua, *moro, amorru, amorrita, murziar, moravo, zamorar, almoravide*, etab.; *naba* inguruan bizi dena *napar, nefar, nepali*, etab., itxas *marrakoa, marraakua, marroki, marquesa, kamargo, marcomano, sumertar, marisma-ko, dinamarkar*, etab.; *ante/and* “portu altuan” bizi dena, *andalu-ziar, andorrrar*, etab.; *man/men* “eremu edo nausigoan” bizi direnak, *mandarin, mantxuriar, aleman, germaniar*, etab.; *inda* “bide altua” aipagari dutenak, *berriz, indiar, hindu, indukuar*, etab.

Orografiak markatzen duen herrien izenez aipatzen dira herri-tarrak: *markinar, mungiar, mundekar, munikiar, almuinekar, ondarrutar, murgiar, moskautar*, etab.

5.2. Utu tokiak eta etorkiak

Utu “iduzki” analogiak atetik atereaz eta hutza igaroz, atartetik tar-tetuz>sartzen da. Horrela **ate**>atx>aitz *Atandi/Andetxa, Atxelar/-Larache, Aitzgorri/Gorraiz*; **atari**>atxari>asari, *Atarrabi/Rabat, Atarrantze/Arrasate, Saratzu/Ozara*; **ateka**/gate^(e), *Ateka/Katea, Atiega/Gaite, Atxika/Gaitza*; **atela**>dela, *Talavera/Bardal, Dala-dier/Tarradella, Delaperra/Paradela*; **atarste**>sarde, *Dardain/-Andarto, Tarsis/Estraza, Sardes/Estarta*; **ota**>otxa/tu>du>zu, *Otabia>Tubia/Bedua, Dubiri/Brito, Zubiri/Brizo, Otamendi/-Mendoza*³, *Otxate/Atotxa, Otarra/Rato, Otaola/Olot*; **ud**>ux>us,

2 Exekoei etxeko izenez deitzeko ohitura gaurdainokoa da eta etxeak ez du izenik aldatzen jabeaz aldatuarren, hemen ere “nolako etxea halako ugazaba” tokiak egiten dio kuadroa pertsonaiari.

3 *Mendoza*, beraz, ez da “mendi otza”, “mendi goia” baino.

Udala/Alotz, Uxarte/Artutxa, Usatorre/Torrox; **idoi**>odi>do Odi-eta/Atedo, Idoeta/Tadeo, Iduarte/Artedo; **usa**>su/zu, Usabel/-Belosa, Usabe/Biosa, Usetxi/Etxosia, Usularre/Larroza, etab. Ud/ux bidetik otsi dator eta oste deritzaio iduzkia ostentzeari, beraz, **oste** eta Oeste>West norabidea, Ostaikoa/Akosta, Ostaze/Ezostea, Ostona/Donostia, Ostebal/Ballosta. Oste, gizatuez gero, **bost**>post⁽⁴⁾ dator, hala Ostende>Bostand, Bostmendi>Bustamante; **duena**>duna>dona⁽⁴⁾>ton>son, Duinaiturria/Torredona, Donas/-Aston, Donamaria/Maradona, Donagaldia/Caledonia; **itera**⁽⁴⁾>-iter⁽⁴⁾>izar/zear/zar “camino recto, a través”, como Itiar>Iziaz, Zearsolo/Soloziarre, Izarrandi/Antxizar, Izarmendi/Mendizarr, Zarrabenta/Bentazar, Zearreta>Zarza, Atezar/Serrate; ud+uri, **turri**>dorre>dura⁴, Torre/Orta, Dura/Urda, Turrez/Ortez, Durana/Andorra; **atari**>tar>sar, Atarratze>Tarsis⁵, Sarria eta bere multsoak tru/tro/tre/tri, hala Trubia, Troade>Troya, Treviso, etab.; **solo**, Solaun/Unzalu, Sologuti/Goitisol, Solabide/Bidasolo; **-tegi**, Balzategi, Apeztegi, Gastegi, etab.

Torre-etxean bizi direak “Torrekoak” diren bezala, halako etxeak bizitoki dituztenak turanio, turkiar, turdetano, turmogido, tirio, troyano, tuareg, etrusco, asiriarr, astur, turingiar, tortosino, soriar, etab. deritzaie.; tarte>sard tokietan bizi direnak tartaro, tarteso, tatarstano, tarbelli, tarentini, sardi, sardini, sarmati, etab. deritsaie, eta duena/dona>ton>don>son domeinukoak, sidonio, teuton, grison, leton, pelendon, estonio, etab. dira, eta ud/ux egoitzetakoak osco, osetio, etab.; ota bizi direnak, hotomano, utar, utari, etab.; ate+ain>tan “goiko bortukoak, jacetani, carpetani, oretani, izan diran Iberia aldean eta mitanni, paquistani, indostani, azerbaijani, turquestani, etab. Asian; mendi oste -edo bizi direnei ostriche, ostgoten, austrigoi, australiar, etab. deritsaie.

4 Urak edo harresiak inguratzen du uria eta atean ate+uritu>turri>duru dator, hala Tir, Turia, Aturri>Atxuri>Asturia, etab.

5 Tarsis/Tartesos tokizena, Gibraltar aldean ezeze, Itxasgorrian ere suertatzen da antxinako testoetan. Izenak ere errepikatu egiten dira tarte guneak errepikatzen direnean. Izenaren edukina dakienak non eta nola zehaztu ditzake, ez dakiena itxumustuka dabil, han ala hemen non den ere ez dakiela.

5.3. Erra areak eta ariak

Erra arketipoa *ur*, *ara*, *arru*, etab. *orubeei* lotuta dago eta giza erainkintzako *uri/iri*, *orma*, *ortuak* ere beragandik analogizatzen dira. **Ara**>aria>ar, *Aramendi/Mendiaria*, *Aravilla/Villar*, *Arauko/Okera*, *Araka/Karia*, edo **are**, *Areta/Atar*, *Areces/Cesarea*, *Arenaza/Nazarre*; **harri**, *Erraren* domeinu bezala, *Arrate/Atxarre*, *Arraka/Carra*, *Arramele/Millar*; **erri**>herri “lur landu, herri”, *Erregoiti/Gutierre*, *Erreka/Karria*, *Errezil/Cillera*; **ur**>uri denez, *uriak* inguratu eta, hurretik uritu egiten ditu, ura bizibide eta babes *ur/hurr* dutela, hala *Urartu/Arturi*, *Urremendi/Mendaur*, *Uruk/Okurru*, *Urkola/Gallur*; **uri**>ori, *Uribarri/Ibarruri*, *Urioste/Bosturi*, *Urizena/Zeanuri*, *Oriol/Ollauri*; **hiri**, *Iriola/Olaria*, *Irimindi/Mendiri*, *Irun/Uniri*; **oru**, *Orueta/Toro*, *Orueso/Osoro*, *Oromendi/Montoro*; **orube**, *Oribe/Beuri*, *Oribea/Biuri*, *Orba/Baur*; **arru**, *Arruazu/Azura*, *Arrutia/Atxurra*, *Arrueta/Turra*, etab. *Ara+ain/an*>**aran** dator: *Arana/Enar*, *Arandia/Teran*, *Arenas/Etxarren* edo *Araine/Ainara*, *Arintxu/Otxoarín*, *Reinosa/Ozerin*; **orma**>roma, *Ormapea/Borma*, *Romate/Dormea*, *Ormara/Maruri*; **arte**>artze>arze, *Arte/Terra*, *Arta/Darraí*, *Arteaga/Garte*, *Artibai/Ibarza*, *Arzilla/Larze*, *Arsetxe/Etxarse*, *Artxega/Okarze*; **ortu** “lur sail uritua”, *Ortueta/Ateortu*, *Ortubet/Bortu*, *Ortabe/Borda*; edo “uri harresitua”, *Ordizia/Izurdia*, *Ortavilla/Villorta*; **arlo**, *Arlo/Loharre*, *Arlas/Astarlo*, *Arles/Etxalar*; **erreka**>arga, *Erreka/Karria*, *Errekalde/Caldera*, *Recavilla/Villarrica*; **arke**>arca *Arkotxa/Otxarko*, *Arkaute/Uterga*, *Arkoba/Beurko*, *Arkitz/Zarco*; **riba**/ibar itzulian eta *rivu^o*>*rio*, *Erripa/Iparra*, *Riosa/Osorio*, *Rivas/Ezibar*, etab.

Mitoaren arabera, *Erraren* erraietako haurrak bere ariko edo kastakoak dira eta hagatik euskarak *-ar/-tar* atzizkiaz markaten du herrien jatorria. Lurdia *ara* bada, *area* hartako jendea jatorriz *ariar*, *aragoitár*; *arevakiar*, *armeniar*, *armeniar*, *armeniar*, *argeliar*, *reneniar*, etab.; *oru* bada, *errumaniar*, *rusiar*, *erruniar*, *ruteniar*, etab.; *ur*, eta *urduar*, *urartiar*, etab., *arte* eta *artabri*, *ardeniar*, *urartiar*, *retiar*, *erse*, *rasena*, etab.; *tarte*, *sardeniar*, *sardiar*, etab.; *aran/arain* eta *iraniar*, *aramear*, *reneniar*, etab.;

bestetariko, *arcadiar*, *errioxar*, *rivieratar*, *uritar*, *hiritar*, etab.

5.4. *Ilu lekuak eta leinuak*

Ilu arketipoa Erra arketipoarekin lehiatzen da, era/*el* izenordetan bezala, zenbait tokizenetan, hala uri/*uli*, hiri/*ili* eta sarritan ara/*ala*, hala Araba/*Alava*, Armendi/*Almonte*, Erguren/*Elguren*, etab. Horrela **uli/ili** formei dagokienez, *Ulise/Etxeuli/Etxelu*, *Ulibarri/Barrol*, *Ullate/Taull*, *Ulzama/Zamallo*, *Iliona/Unil*, *Ilaraza/Aracil*, etab; **ola**>loi>la>al>el, *Olaso/Asola*, *Olagorta/Gordiola*, *Olarte/Artola*, *Olesa/Ezeola*, *Loiba/Beola*>Bola, *Loizate/Atxula*, *Olama>Lama*, *Lamiako*⁶/*Mekola*, *Labarka/Kabral*, *Lacasa/Casal/Casilla*, *Alkan/Canal*, *Eskola/Elciego*; **lan**, *Langata/Katalan*, *Lanas/Azalena*, *Langu/Golan*, *Lanciego/Eskolan*; **laun**>leun>lon, *Longata/Katalaunia*, *Leunda/Talón*, *Lonbana/Navalón*; **leen**>lein (topo egiten tokiko lehena, alegia) *Lenza/Azalena/Sallén*, *Leinz/Isiline*, *Lengara/Carlín*; **altu**>altxu>altzu, *Altuna*, *Altubaso/Basualdo*, *Altueta/Adalso*, *Altxuberro/Braldo*; **alde**>leda, *Aldaba/Balda*, *Aldekoa/Ugalde*, *Aldeacueva/Kobalde*, *Alduzin/Osinalde*, *Altamira/Moraleda*; **larre**>lar, *Larraina/Anielarre*, *Larreta/Atelaria*, *Larretxe/Etxalar*, *Larrabile/Villalar*; **lan+ate**>**landa**>land, *Lanzola/Olanda*, *Landesa/Sheland*, *Landaguren/Groenlandia*, *Landas/Asland*; **huzi**/huzte, *Luzarte/Artzeluz*, *Luzaide/Deluz*, *Luzarra/Arriluzte*; **elge**, *Elgezabal*, *Elgezua*, *Elgeta*; **leku**, *Lekubaso*, *Legutiano*, *Lekuona/Bonloc*; **legor**>leor, *Lagorra/Korle*, *Legorreta/Kortela*, *Egileor/Elorregi*; **albo**, *Albaina/Peñalba*, *Albaitz/Isalbe*, *Albaka/Galba*; **lasa**, *Lasama/Malase*, *Lasa/Sala*; **lauso**/losa, *Losanto/Andeluz*, *Luxana*, *Lozano*; **leze** *Lexarra/Arlés*, *Lexarrabe/Arbelas*, *Lezetxe/Etxeles*, etab.

Ili>li leinuko jendea, *iliri*ar, *lizi*ar, *libi*ar, *livoni*ar, *ilizitani*ar, *liguri*ar, *lituani*ar, etab., *ola*>la/al>le tokikoak, *alban*iar, *alani*ar, *alemani*ar, *alsaci*ar, *helēni*ar; *aland*ar, *latind*ar, *leton*iar, *laburd*iar, *lapon*iar, *holand*ar, etab.; *landa*-koak, *landestar*, *landēr*^(al), *irland*ar, *finland*iar, etab., eta toki *altu*-koak, *altaico*, *alduide*ar, etab.

6 Beraz *Lamiako* tokizenean *laminak* ez dute zerikusirik, formaz *Olamia*>*Olamiako* datorrelako, *Lamiturri/Durlam* bezala.

5.5. Ka egoitzak eta kastak

Arketipo honek *an/ain* forma jainkotiarrek gizatu egiten ditu, *kana>gana>gaine>gain*: *Aines>Kaines*; *une>kon>gon/kano>gano*: *Unda>Konde*; *ota>kota>goiti>gotxi>gutxi*: *Otia>Goitia*; *ata>kate*, *Atalena>Katalina*; *ara>kara>gara>garia>garai>geri>ager*: *Arratia>Karate*; *ola>cole>gola*: *Olano>Golano*, eta forma beraren *la/al>kala>gala>gal* eginik: *Alain>Galain*, etab.

Uriko, Mardiaiko NONGO kasu forma argiak dira, baina itzulian *Okuri*, *Okomardia* ulertezin formak biurtzen dira; zerbait antzeko gertatzen da *Marraga* forman, *Akamarre* biurtuez gero. Hala **oka-**, **-eko>-ko>-go** NONGO kasuan, *Okalar/Larrako*, *Okola/Olako*, *Okabro/Barrego*, *Okabe/Beko*, *Kolar/Largo*; *ekua^(s)>-ka/-ga* "etxe" *Akandia/Andiaka*, *Akazubi/Zubiaga*, *Agarre/Arraga*, *Akitz/Izaga*, *Laka/Gal*, *Lach>Lac*, *Andraka>Andrach*; **egi**<*eki*, *Egibar/Ibarregi*, *Egimendi/Mendegi*, *Ekizarra/Izarregi*, *Ekina/Engi*; **goi**, *Goitita/Atagoiti*, *Goitturi/Urigoiti*, *Goyanes/Amezkoa*; **goien**>*güen>kin*, *Goienuri/Urigüen*, *Güenche/Etxagüen*, *Ibargüena>Barkin*, *Torragüena>Zorraquin*, eta *kun>gona>goina*⁷, *Kuneitra/Tarragona*, *Conde/Tacón*, *Kontxa/Chacón*, *Cunas/Azkona*, *Konar/Aragon*; **kota**>*goiti>agudo>guda*, *Kota/Otako*, *Goitana/Angotia*, *Goitaran/Arangoiti*, *Goitisol/Sologuti*, *Kotiamendi/Mendikute*, *Gudamendi/Monteagudo*; **kane**>*gane>gain*, *kano>gano*⁸, *Kanale/Lacan*, *Ganoria/Organya*, *Canosa/Oscan*, *Ganoria>Knor*, *Kanin>Knin*, *Turegano/Kantor*, *Kandia/Atiagane*, *Canes/Eskana*; **kate**, *Katalan/Langata*, *Katharre/Argata*, *Katabera/Vergata*; **egoitz**, *Egozkue*, *Eguzkina*, *Etxabakoitz*, *Arran-*

7 *Gona^(eu)/gonna^(it)* soinekoetan *goiena>goina>gona* edo *gainekoa* da, *azpikoa* bezala, eta forma zaharragoetan *aina/ena+ko>enagua/gona*. Eta berdin *kota/toca>toga*, *kotilun*, *kotoin*, *gitor^(s)* ere goitiko soinekoak direnez, tokia-
ren gora-beheraz analogizatuak, maiz "soingainekoa, sobretodo" aldatuak.

8 Ohargarria da *kan/gan* altura deskribatzeko konposagaiok zein ugarriak diren *Himalaya* aldean, hala *Kantze^(nb)* (6.168 m)/*Gandi^(ch)*, *Yokan* (Tibetko Santutegia), *Kanchanjunga* (zortzimilako mendia Nepalen), *Ganges* ibaia. Gonbaratzea baino eztago han eta hemen tokizenen soinu bera; *Kande/Atakan*, *Gante/Tegan*, *Gorgana/Gangor*, *Yokan/Kantxo>Ganzo*, *Gandara/Arganda*, *Candela/Lekanda*, *Kurgan/Gangura*, *Kanastro/Astrakan*, *Kandalar*, etab.

goitz, Navascues; **casa**>gaza Kastor/Torkatxa, Kazarro/Orgaz, Cashmir/Murkas, Castán, Gasteiz; **koba**>cueva, Kobalde/Aldeacueva, Gobar/Arkoba, Kobardo/Ardoukoba; **kabia**>cava, Kabiria/Ergabia, Kabale/Lakabe, Kaboto/Otxagabia; **ekura**>kuria>kiria>kor>**gora**>gor, Bigorra/Gorbia, Korella/Ellakuria, Korral/Lakuria, Koroba/Begoria, Gorgana/Gangor, Gurena/Angkor, Korteta/Ategorrieta, Kurebio/Begorio, Kiriat/Txikuri, Kirizia/Eskiri, Kiruri/Urkiri eta kro/gro/gru multsoak: Cromwell, Grunewald, Groenland, Akropolis; **korta**>corte, Kortabil/Villacorta, Cortes/Eskorta; **kara**>gara>garai>ager, Ahaggar/Arriaga/Garriga, Garatea/Azagra, Karistia/Estigara, Gracias/Tigris, Karra/Arraka, Karral/Alegre, Agerretxe/Ezkaray, Garitona/Donagarai, Kerbala/Balaguer eta kra/kere/kri/gra/gre/gri multsoak: Kramer, Krakobia, Creta, Criton, Granada; **kala**>gal, Gallarta/Artetale, Galberdi/Berdugal, Kalamuz/Musakola eta kla/kle, kli, gla/gle/gli multsoak: Clamart, Clinton, Clemente, Gladis, Glifort; **okehu**>gola, Golluri/Urkulo, Golar/Arkola, Golluri/Urkullu, etab.

Ekua/ko/ka “etxeokak”, *koptiar*, *kemertar*, etab.; *casa*>gaz, *casitar*, *kazakar*, *gaztelar*, etab.; *ekura/ekur*^(s) “mendiko santutegi” tokitakoak, *kurdian*, *kurganien*, *kirgisian*, *uygurak*, *gordian*, *georgian*, *corsian*, *corear*, etab.; *goien*>*gon*>*güen*>*kin*, *güenche*, *aragonian*, *zimbrian*, etab.; *goiti*, *kuti*, *gotiar*, *agotak*, etab.; *kan*>*gan*, *kantabrian*, *kantaurian*, *kandian*, *kantxakar*, *kenian*, *alikantian*, etab.; *egal*, *kaldear*, *galatar*, *galesak*, *kaledonian*, *keltian*, *keltar*, *galian*, *gailegu*, etab.; *kara*>*gara/gera*>*kre*, *karistian*, *kartagotar*, *germanian*, *kretar*, *krakobian*, *grekar*, *grisonian*, etab.; *kate* “ate zaindua”, *akadian*, *katalaunian*, *katarian*, etab.

5.6. Ba baitak eta biztanleak

Ba arketipoak orografiaren deskribapena egitearren narras *be/behea* ukitzen du eta *abai/ibai* bidea *ibi*>*vía*^(l) egiten eta *ibi+ate*>*bide*⁹ dator eta hagandiko bizitokia *baita/bit*^(s)/*bet*^(h). *Beiti/goiti* elkarren aurka dagoz. *Ibai+ar*>*ibar* dator *ibar+ate*>*vereda*. R/L arketi-

poa aldatuz, *ibar/ival* dator¹⁰, *Iballe>Valle* bezala; *valle>val>vel>bello*, eta giza arketipoekin *beko>vega* eta *basa>baxa>baja*.

Dekribapenetan *Ba* arketipoak jainko arketipoak gizatzen ditu, hara *une>bon>pon/fon* egiten duela: *Onendia>Buendia*; *ain/ein>bain/bein*: *Ainzu>Beinzu*; *ota>bota>botxa*, *oto>bozo*: *Otazua>Botazzo*; *oru>buru*: *Orueta>Burieta*, *uri>buri>buru*: *Urien>Burien*; *iri>biri*: *Iribe>Biribai*; *arru>barru/Arrueta>Barrueta*; *ili>bili>villa>bil*: *Ilarria>Billar*; *ba+uli/>bola/pola/poli*: *Olain>Bolain*; *ortu>bortu>portu/a>forte*: *Ortegal>Burdigale*; *oste>bost/post*: *Ostemendi>Bustamante*, etab.

Deskribapenetan **be>bi** dager: *Okabe/Bega*, *Bedoña/Doñaapea*, *Vibar/Barrabia*, *Vescu/Eskubi*¹¹, *Bizkai/Eskibi*, *Belarre/Larrabe*, *Vitoria/Turabia*, etab: **ibai/abai>bia>ba** *Baigorri/Gorbaie*, *Ibamiendi/Medabia*, *Ibarza/Artibai*, *Baibe/Babia*, *Abadie/Deba*, *Abasolo/Solabia*, etab.; **ibi**, *Ibieta/Atxibi*, *Ibixo/Oxobi*, *Ibisate/Astibia*, *Ibineta/Divina*, etab.; **bon**, *Bonal/Alabona*, *Buñol/Olabuena*, *Boneta/Tabuena*; **bide**, *Bidazu/Atxubita*, *Bidarrai/Arbide*, *Bidegorri/Egurbide*, *Bidezabal/Zabalbide*, etab.; **baita/beiti>bieta>bet**^(h), *Betulia/Olibete*, *Betola/Olabieta*, *Bediola/Olabaita*, etab.; **basa**, *Basauri/Urribaso*, *Bastia/Tiebas*, *Pastor/Durpas*, etab.; **botxo>botxa**, *Otxabio/Biotza*, *Oxandio/Andueza*, *Otxoarín/Ereinozu*; **boste>post**, *Posdam/Amposta*, *Ostebal/Valpuesta*¹³, etab.; **ibar**, *Ibarreta/Atibar*, *Ibarrena/Ainibar*, *Ibarruri/Uribarri*, *Barcia/Ezibar*, *Barzola/Zulaibar*, etab, eta bere eratorri multsatuak: *bra/bre/bri/pra/pre/fra/fre*, *Brand*, *Braldo*, *Bretaña*, *Praga*, *Preston*, *Fraga*, *Freire*, *Friburgo*, etab.; **buru>bru>bri>fri>pri**,

10 *Baal* jainko zan *ibar* askoren zaindari; hortik *bal/valle>bailar*.

11 Historigile interesatu batzuk *vascón* eta *vascongado* bereizten dituzte, haiek jatorrizko, hoiek kolonizatuko salatzearren, hoiei haien askatasun eskubideak ukatzearren, burunahiko-edo ezpailiran. Erdaldunon aiko-maikoak euskarak berak uxatzen ditu, haien eta hoiek lurraldea tokizen beretsuez bateatuta dagozela egiaztatzean, eta "vascongado" nolabait Europa osoa eta lurraren erdia dela aldarrikatuaz.

12 Maometen erasoan Euskal Herrira jo zuten monjeek *Valpuesta/Ostebal* "in valle posita/bailaran ezarria" bezalako etimologia herrikoiaz ulerzen zuten eta, eurak bezala, euskera gabe itxumustuan dabiltzen historigileek.

Burutaran/Aranburu, Burland/Landaburu, Brouard, Pricenton, Brisgovia, etab; **barru**>barri/berri, Barrueta/Otabarro, Abarzua/Zozabarro, Barroselas/Bruselas, Barrieta/Tabar, etab., **valle**>val>bel, Valgano/Kanobal, Ballorka/Orgibel, Balza/Azabal, etab.; **bailara**, Bailara/Arabella, Valera/Arvalle, eta haren eratorri bla/ble/fla, fle, fli, pla/ple/pli multsoak, Blanes, Bler, Flandes, Fleming, Plana, Plimud, etab.; **bil**>villa¹³ Villagordo/Gordobil, Villena/Enbil, etab.; **beko**>vico>piko/**bako**>pago>bago>fago, Olabeko/Bekola>Picola, Bekoña>Begoña>Bikuña, Bekuria>Biguri, Bekotxe/Chaveco, Bekoria/Orvigo, Bakolla/Labako, Bagola/Labakoa; **bizkar**, Bizkargüena, Altabizkar/Bizkarralde, Bizkargane, etab.

Bizi duen lurak definitzen ditu ondoen bertako genteak, ibarrekoak badira, *ibar/abar/ber/bra/pr*a, *avariar*, *iberiar*, *parsi/persiar*, *partiar*, *ibri/hebrear*, *bardiar*, *barduliar*, *bardenar*, *berberiar*, *barsobiar*, *birmaniar*, *pradeshlar*, *frantxes*, *frisoniar*, *frigi*ar, *friular*, etab., *bal/bel/*>fla, *balear*, *balenziar*, *baloniar*, *balakiar*, *palentinar*, *pelasgo*, *peleset*, *flamandar*, etab.; *bol/pola/poli*, *bolsenar*, *boloniar*, *polakar*, *polinesiar*, *holandar*, etab.; *huri/bur*, *burgiar*, *burgostar*, *burgundiar*, *brugestar*, etab.; *bortu/portu*, *bordeletar*, *portugaldar*, etab.

5.7. As etxeak eta jendeak

Arquetipo As aurretik *ud/ux*, *ola*, *ekua*⁽⁶⁾/*oko*, baita hitzak erabilten ziran tokizenetan gizakien bizitokia adierazteko, baina *etxe* edukinaren "santutegi" fama berezia edatu zenetik¹⁴ haietariko askok, izena osatzearen, *etxe* gehigarria hartu zuten aurrizki edo atzizki: *Udetxea/Etxado*>*Jado*, *Uzetxi/Soietze/Etxauz*>*Txaos*, *Olaetxe/Eziola*, *Ekotxea/Etxakue*>*Eskue*, *Casa/Ezaga*, *Chaves/Batiz*, *Chivite/Vitiz*, etab. *Etxe/Etze/Etse/Itxe*, *Ese/Ez/Iz* arrakasta handia izan zan, ziur oraindio euskararen zentzuna bizirik

13 *Bildu*>*bil*, auzo *bildua*, *villa*, hala ur "urbildu", *hur*>*huritu* lez.
14 Mitoaren arabera, jainkoei abegi ona egiteagatik, Filemon y Baucis zenar-emazteen *etxea* santutegi biurtu zan. Kalitate bera izan du euskal *etxeak*. (J. M. BARANDIARAN, *Mitología vasca*, p. 55-72)

zegoela, hala *Cha-Martin/Matinez*, *Cha-con/Gomiz*, *Txa-pero/Periz*, *Exi-Meno/Meniz*, *Es-ola/Olaiz*, *Txa-Joan>Joaniz*, *Txanike/Iñiguez*, *Cha-bat/Bates*, etab., guztiotan *etxe* jatorrizko abizen aukerakotzat hartzen zela Iberia bietan eta handik hara.

Etxe/etxe izenak azken egiturako ¹⁵ bizitokia adierazten dator gehien bat, *Esano/Anuez*, *Eskue/Cosa* bezala, *Ezkanda/Kandas*, baina bestetan herrien jatorria, *España/Bañes*, *Esperia/Peres*, *Ziganda/Candaze*, bezala edo hitza gizatzen, hala *inda>senda*, *Sendika/Kasenda*, *Sindika/Gassendi*, *Sender/Artxanda*, *Zendea/Disend*; edo santutzen: *un>jau***n***>jau*, *en>san***>jan**, *Janmendia/Mandojana*, *Sandonis>Jandonis*, *Zanbrana>Janbrana*; *uri>jauri***>jaur**, *Jauriko*, *Jaurino*, *Jauregi*; *barru>esparru*, *Espar/Parres*, *Esparza/Bardetxe*, *Txabarro/Barros*, etab.; ***etxa>esta*** forma hartzen du: *Etxaeina>Estein*, *Etxandia>Estandia>Stettin*, *Txakon>Estakona*, *Etxabe>Esteba*, *Etxarri/Estari*, *Estibal/Ballesta*, etab. Itzuliketean ohartzekoak dira *Estabilla/Ballesta*, *Estein/Anesta*, *Estakona/Gomestia*, *Esteba/Abasta>Bastia*, *Estari/Arrastia*, *Esterana/Ainesterri*, *Estorka/Orgaste*; *ola>etxela>zelai***>sel>sala**, *Zelain/Ainzila*, *Zelai/Olesa*, *Zelaiandi/Antzelai*, *Salazar/Zarsala*, *Zeledona/Donasila*; *ekua/oko>esku*, *Eskumendi/Montesco*, *Eskola/Olaskua*, *Eskina/Gueñes*, etab.; *ekura>eskuri*, *Eskuria/Agoretxe*, *Eskuri/Gores*, *Escorial/Corrales*, *Ezkorri/Gorrez*, *Eskorna/Gornatxea*, atab.

Herrien eta abizenen jatorria seinatzeko aukerako izan da ***etxe*****>se/ze/zi**, hala *sefardí*, *español*, *zelandés*, *checo*, *charro*, *eslavo*, *esloveno*, *checheno*, *cilicio*, *zingales*, *estonio*, *espartano*, *estirio*, etab., edo atzizkitara ezarria, *aragonés*, *frantxesa*, *francáis*, *genovessi*, *inglish*, *eirish*, *finish*, *doch*, etab., ***jau*****n**, *jaunerri*, *janato*, etab., ***senda*** espirituen jarraipenerako, *sindi*, *sintoista*, etab. Jatorria markatzen ardurazkoa da ***sk*** multsoa ere, hala aurrizki, *eskaldun*, *usko*, *osco*, *askenazi*, *eskanio*, *escandinavo*, *eskalda*, *escoto*, *escita*, *siciliano*, edo atzizki, *tusci*, *polzka*, *tedesko*, *volsco*, etab. eta berdin *Popesku*, *Sobiesky* bezalako eslabiar abizenetan.

15 *Hesi>estu>eskera* egitura materialetik dator, baina, arteak edo giza ekintzen ondareak bezala, giza beraren espiritu baloreak hartzen ditu.

ONDORENA

Euskara tokiak eta tokikoak euren izenetatik ezagutzeko gei da, hitzaren arketipo bakoitzak herrien azaleko *adn* egiten zaiola. Arketipoak tokia deskribatzen dute eta tokiak tokian bizi den herria bertakotzen du, dela iberiar edo berberiar, dela germaniar edo eslabiar, dela Asteko edo Osteko, Ifarreko edo Egoko biztanlea.

Tokizena aurrehistorian entzunetik ikasia denez eta entzuna izan bezala iragarria, haren mezuaz jabetu gabe ezin daiteke historia zehatzik egin. Tokizenen segetu gabe, itxumustuan dabilen historigileak ez ditu ezagutzen ez herriak, ez herritarrak, euskararen hermeneutika, ostera, izena entzun orduko bertakotzen da eta berak asmatu izenen eta jendakien garbitasuna ematen du.

Izenetan *ekura/ekur>gora* da ohargarrietarikoa, herrien santutegi eta erlijioaren lokarria erakusten digulako mendiz mendi eta muga guztien gaintik, Afrika Gohiena eta Eurasia guztian, behenipehin. Berarekin batera doa jainkoen *inda>senda* sendatzailea, Eufrates, Abay (Nilo), Indo, Mekong ahoraino, ibaiak median bezala, hala herriak jainkoen aurrean biltzen dituela.

Euskararen hermeneutikak indoeuropeismoa oinarri bako teoria utzaltzat salatzen du, Indo aldeko sanskrita hizkuntzak Europako hizkuntzak argitu edo bere iturrietan kutzatu zituela aipatzen duenarren, tokizenetan arrasto nabaririk ez bai-du utzi, euskarak, ordea, bere izenez Europako lurraldeak ezeze, Indoko lurren deskribapena egiten ausartzen da.

Aldi baten Europa osoa, Afrika goiena eta Asia erdia "euskalduna" edo usko-mediterranean hizkuntzaren eremua izan zan. Ama hizkuntza honen arrasto batzuk gelditzen dira, euretan nabariena euskara bera dela, bere sorkuntzaz gain inguruko beste hizkuntza askoren sorreraz jakinez mintza daitekena.

Hasieratik entzun den tokizenak bere otsaz eta edukinaz irauten duen bezala, hala euskara amak iraun ahal izan du bere ingurunean hasierako oroitza lantzen eta berritzen. Euskarak tokizenak azaltzen ditu eta orografiak ziurtzat ematen du haren erabakia.

VI. HITZEN OSAGARRI ATZIZKIAK

Hitz aglutinatuen barneko arketipoen dantzakeratik sortu ziran gramatikarako aurrizki eta atzizki erazkinen balore berriak: arketipo behinenak atzenak izaten ikasten duenean, lehena galdu eta serbitzu berrirako den balore berria jasotzen du, hala *Anie.mendi/Mont.anye*, edo *Na.barre/Barre.na*. Lehenengoa da forma zaharra eta bigarrena askosaz geroagokoa, atzizkidun ematen dugulako; aurrenekoa arketipo nausiaren domeinua dela eta bigarrena haren forma iraulia.

Atzizkiak hitza osatu ezeze, zaulitu egiten dute, elkarri erantzeko kakoak bailiran. Deklinabideak NOR/NOIN, ZE/ZEIN, etab. kategoriak markatzen dituzte. Horrela, *An.en* alaba *Anena*>*Nana*⁽⁶⁾ da, edo jaioberria *ama.n* umea *amana* da. NONDIKO jatorriari begira, ama zatiari, aman antzeko den alabari, *ama.ko* ere deitzen zaio, eta hagatik *-ko* NONGO/NONDIKO atzizkia da eta *-ki*, berriz, ZERIK *zati.ki* denari dagokiona, horrela, jatorriari begira, “txerriko” izango da, eta zatikiari begira, “txerriki”.

Adizkeretan artizkiak eta atzizkiak zehazten dute NOR/NORI/ZER dagokion aditzaren ekintza: “eman *d.iz.ki.gu.te/d.eu.sku.ez*”, edo igaroko NOR/NORI “*nen.tor.ki.zun*”, etab. eta aditzaren urkulketak erakusten digu zatiki bakoitzaren baloreak bereizten: erroa, objektoa, ugarikorra, pertsonen harremana eta aldia. Alderdi hau aztertzeko izan den Gramatika gainerakoa ere azter zezken.

Aditzaren aurrizkiak ez dira behar beste aintzat hartuak izan euskara ikerketan, baina honetan ere euskara grekoaren eta latinaren maisu izan da eta ez alderantziz, maiz uste izan denez. Jainkozko arketipodun aurrizki edo preposizioek aditzaren edukina orokortu eta bermatu egiten dute eta giza arketipodunak, ostera, baitaratu edo giza giarretako ekintza bultzatzen.

Haria eta ehuna gai berekoak diren bezala edo zimintz gintzan sarea eta zimitzaria, arketipo bakoitzak ere bere soinetik sortzen ditu atzizki deitu lokarriak, NOR bera dela NOENA atzizkia markatzen duen seinua: *An/Anena*, adibidez, eta berdin aurrizkiak,

itu/antu/aintu, adibidez. Saio honetan euskara eta euskara hermeneutikak azaltzen diguna jartzen dugu elkarren jarraian.

6.1. An arketipoaren atzizki-aurrizkiak

An/Inu edukina duten tokizenak halako dantzak izaten dituzte: *Anakabe/Kabana*, *Ainorga/Organya*, *Ainesta/Estaina*, *Anielarra/Larraine*, *Nagore/Gurena*, *Nora/Arano*, *Onarte/Artaun*, *Uncastillo/Castellón*, *Inurria/Uriain*, etab., atzizkiok direla gero gramatikak uztiatuko dituen eranzkinak. (Ikus 5°,6° laburogak)

An arketipoak “zeru” amatarra ordezkaten du eta haren erraiei dagokie norentasuna markatzea, ume bati “*noina (norena) zara?*” galdetzen zaionean, “*amana*” erantzuten bai-du. NOIN/ZEIN¹ kasoa genitibo da hagatik, eta *-en/n*, *-im*, *-in*, *-um* atzizkira bilbatzen du: “*aman etxea^(eu)/domus materna^(l)*”, “*amana^(eu)/materna^(l)*”, “*umeen^(eu) adina/aetas puerorum^(l)*”, etab. Horrela ulertzen da “*Anen alaba*”, ots, *Anena/Nanna^(s)* deitzea ere. Eratorriz *amaen>amain>aman* formak hartu izan ditu eta ugari hurbilean, berriz, “*gizonon^(eu)/hominum^(l)*”. NOIN/ZEIN seinudun datoz maiz jatorria adierazten *-anu*, *-ano/a*, *-an* atzizkiak: “*amerikanu*, *albano*, *italiana*, *roman*”, etab. Orobat niminoa eta kutuna adierazteko balio du *-iña/o* atzizkiak: *nini*, *nen*, *andereño*, *cariño*, *moziña^(ga)*, etab.

Bereizteko izenlagunetan “*ze/zein, qué/quien*” bezala datoz eta gehiengo formekin bat egiten dute: *handien*, *alaen>alen^(eu)/aliym^(u)*, “*Elohim^(h)/Jainkoen*, *Andrena*”². Gehiengo formatara hitz asko sortu izan dira: *see/seen>sein*, *doi/duin*, *me/mena*, *ante/antena*, *orde/ordain^(eu)/ordine^(l)*, *hora/orena*, *ara/aran*, *more/morena*, *morro/morrena*, etab. Gehiengo atzizkia inoiz aurrizki ere erabili izan da: *Doneen>Doniene/Endone*, *angeruen/enangeru*, etab. Gonbaraketan “*hain eder/tan hermoso*”, “*horren heineko/tanto como él*”, etab.

Tokien eta aldien uneak NON/NOIZ kasuak An arketipoaren neurriko, *-an*, *-tan*, *-etan*, *in*, *en* seinutu datoz: *mendian^(eu)/in monte^(l)/en el*

1 NOEN>NOIN formal ziran hasierakoak, hala *amaen>amain*; NOEN forma geroago sortu zan, bakarra/ugariak bereizteko: *umeen/umearen*, etab.

2 Ikusten denez, Sortaldetik Sartaldera, edo alderantziz, NOIN/ZEIN kasu honek eta gehiengoak lehengusu asko ditu.

monte”, soloetan/en las huertas”, ordubietan, an.arte^(eu)/in.ter^(o)/entre, anartean^(eu)/interea^(o), etab. NORikoetan hau>honi dator.

Tokietan mendia da An arketipoaren mendea adierazten duen sinboloetarikoa, mendi/mende datorrela hizkunez eta -men/-mendi/-mentu^(o) atzizkietara adierazten du bere mena: ikusmen, ekimen, agmen^(o), volumen^(o), ondamendi^(eu), fundamentu^(o), salbamendu, merecimiento, etab. Gizatasunez ornitzen da -pen atzizkira: erospen, irakaspen, etab. Utu konposizioko -zun atzizkiak “bilaka” adierazten du: “ogizun, urzun”; eta giza “arloan” adierazteko -kizun formatara gizatzen da adizkeretan: eginkizun, esankizun, asmakizun, etab.

Aldiaz une eta muinez un den An arketipoak -une/-one/-on ekin-tza unea adierazten du: orazino>orazio, misione^(o)>misión, etab. edo izakeraz una/muina seinatzen: gizon, varón, peleón, edo kaizuz nimi-no edo ume dena dierazten: bilduma^(eu), fonema, leucemia, etab.

Aditzaren igaroko NOR sujetoa nin-/in-, gin-/zin- seinuak markatzen dute eta ZER objektua, berriz, nen-/en-, gen-/zen- seinuek, adizkerari -n atzizkia gehitzen zaiola: “nintzan”, “ikusi zintudan”, etab. Aldi etorkia -en/-ren atzizkiak seinalatzen da: “joanen naiz”, “ikusiren zaitut”, etab. Hitanoko adizkeretan emaztekiek arketiko emea -na/-n dute, -k/a gizonezkoen aldean: egin dona/egin dun, egin dionagu/egin dinagu, egin duk/egin dioagu/diagu, etab.

Aditz batzuk, agian zaharrenak, -an/-ein atzizkira osatzen dira: jan, joan, eman, erein, eskein, etab. Ekintza irauna adierazteko partizipioak ere -ten,- tzen, egiten, etortzen, etab. konposizioa egiten dute eta erromanikoetan, berriz, -nte, -ndo : cantante, amando, etab.

Aditzaren ana-, an-, -en, em-, ma-, na-, -in, ain-, im-, andi-, ante- aurizki edo preposizioek aditz forma zaharraren edukina gaintitu eta orokortu egiten dute, hala baratu/anbaratu, bildu/anbildu, aitu/enaitu, itu/aintu, baino^(e) “abiatu”/anabaino^(e) “igon”, baitu/nabaitu, faino^(e) “argitu”/emfaino^(e) “erakutzi”, autzi/inautzi, poner/imponer, mendatu/enmendatu, creerse/engreirse, ire “joan”/anteire^(o) “aurreratu”, etsi/andietsi, etab.

Honetariko aurizkiak hitz arruntetan ere erabilten dira zentzu ezberdinetan: inguru, amparo, enagua, inviable, etab.

6.2. Utu arketipoaren atzizki-aurrizkiak

Ikustea baino ez dago *Utu* arketipoa halako andanan aurrizki edo atzizki jartzeak nola aldatzen duen haren atzikiak ezagutzeko: *Atuzarra/Txarratu*, *Atallo/Ollate*, *Otarro/Arroita*, *Otabarro/Barrota*>*Barrueta*, *Atotxa/Ozaita*, *Diuna/Unite*, *Demanda/Mandaita*, *Dubiri/Biriatu*, *Daran/Aranda*, *Odiaga/Gaudi*, *Atarre/Arrate*, *Otxola/Olatxu*, *Tobia/Bedua*, *Ituino/Anitua*, *Otegi/Gioto*, *Atxuri/Urritxe*, *Atxurra/Urretxu*, *Uxarra/Errioxa*, *Osate/Tossa*, *Atxarre/Arza*, eta arketipo honek gramatikarako prestatzen dituen atzizki-aurrizkiak ikusten ditugu.

An amatar arketipoari “izatea” bezala, *Utu* aitatiar arketipoari “ekitea” dagokio eta aditza *-tu* atzizkiak osatzen da, *ama.utu*^(s)>*amatu*^(eu) forman agertzen den bezala, nortasunaren sagaratzea *-tu/-du* formez adierazi izan bai-da antxinatik: *anotu*, *iñutu*, *natutu*^(eu)/*naditu*^(s) “zikindu/An jainkoaren mirabe” edo *ilutu*^(s) “Ilu jainkoari eskeindu”, etab. Adizkera hauetan fonetika mugidak edukina aberasteko erabilten dira: *inutu/inotsi*, *ertu/ertzi*, *uldu/ulzi*, *ulzitu*^(eu)>*ulcire*^(l), etab.

Hizkunez *amatu*^(eu)/*amatu/a*^(l) “ama izan/maitatu” dator hizkunez eta bere eratorriak *amatu*>*amatxu*, *ilutu*>*iluso* mugitzen dira, *-txu/-txo/-cha* niminotasuna, bihozkeria edo kalitatea adierazten: *amatxu*, *umetxo*, *muchacha*; *-tsu*, *-so/a*: *gozatsu*^(eu), *sabroso*, *formosu*^(l)>*hermosa*; handitasuna *-aza*, *-azo* atzizkera: *madraza*, *perrazo*; txikitasuna *-ito/-eta/-ita* seinuetara: *mocito*, *chiqueta*, *bonita*; ugaritasuna eta jokera *-ti*, *-di/-tza/-za*, *-sa* atzizki: *ederti*, *sagardi*, *goizeti*, *loretza*, eta analogia baten, *firmeza*, *promesa*, etab.; lanbide, alderdikari edo ugalkor dira *-sta/o* forma konposatuak: *carlista*, *floresta*, *modista/o*, *zorristo*, etab. Lanbidea, egilea, ekintza, almena adierazten dute *-tore*>*dor*, *-tura*, *-dura*, *-sore*>*-sor* atzizki konposatuak: *oratore*^(l)>*orador*, *arator*^(l)>*arador*, *defensor*, *ohitira*^(eu), *ardura*^(eu), *factura*, *procedura*, etab. eta lorpen edo izakera dino *-dun* atzikiak: *haurdun*, *euskaldun*.

Aditza hitz eta izenlagun bihurtzen dute *-te/-tze* atzizkiek: *egite*, *sortze*, etab. eta bide bereko dira egitada adierazten duten *-ta*, *-da*, *-zi*, *-d*, *-eza*, atzizkiak: *parleta*, *jugarreta*, *begirada*, *mirada*, *arditze*>

5 ^o laburgoa: ATZIZKIEN ANALOGIA ARKETIPOZ ARKETIPO						
AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AS
-en/-ana/o	-tu/a-do/a	-ar/-er	-illu/a	-ica/o	-be/-pen	-tze/-txe
-enea	-tu/a/do/a-	-ara/o	-la/-le	-ko/u/-go	-iva/o	-es/a
-ania/-ina/i	-ti/-di	-aria/o	-ullu/a	-kor	-ba/-bia	-ez/a
-eina/-ein	-tto/a	-era/o	-el/a	-ki/-gi	-av/-v/-f	-sia/-iz
-aña/o	-dui/ito/a	-aire/-er	-lo/a	-gai	-pia/o	-za/o
-ona/-on	-txu/i/-ich	-or	-lia/-li	-ca/o	-fa/o	-ese/a
-une/-un	-so/-jo	-iri	-il/-l	-aca/-ac	-ap/-p	-ex/-ech
-men	-su/-ju	-ur	-al	-aga/-age	-pen/-bera	-esse/-ssi

ardid, certeza, etab. Horrela, *hauta/haita*>*haitate/haitatze* dator “aukera egiteko aldia”, alegia, *Edate* gazte-jaialdian egiten dena bezalakoa³ eta *haitate*^(eu)>*aetate*^(l)>*edate*^(eu)>*edade*>*edad* eratorria aldatzen diguna⁴. Eratorriz *-te*>*-tza* uharitasuna esatera dator: *eurite*>*euritza*, *bedate*>*bedatze* eta analogiaz, *garitza*, *basatza*, etab.

Ekintza irauna seinutzen duten *-ten/-tzen* atzizki konposatuak: *esaten*, *oroitzen* eta konposizio beretzuko erromanikar *-nte*, *-ncia*, *-nza* atzizkidun izenak sortzen ditu: *paciente*>*paciencia*, *prudente*>*prudencia*^(l)>*prudenza*^(eu), *distante*>*distancia*, etab.; *-tzen* eta *-ndo* formak, bestalde, gerundio baloreko dira: “markatzen dago/está marcando”; *-nda* atzizkiak eginkizuna adierazten dute: “eginen *da*^(eu)/*facienda*^(l)” eredutik zehar, *facienda*^(l)>*hacienda*>*azienda*.

Konposizioan *-tate*, *-dade*, *-dad* “izakera, almena” atzizkiak adierazten dute: *curiositate*^(l), *kuxidade*^(eu), *curiosidad*, etab.; *-tada*, *ada* atzizkiak “kolpea”: *egitada*, *palmotada*, *ostikada*, etab. Kalitate ona *-sun*, *-tasun* atzizkiez adierazten da: *osasun*, *edertasun*, etab.

3 *Edate* jaia udaberrian ospatzen da Santisteban Nafarroako herrian; *Edate* izeneko kalegira eta udalak eskeinitako mokau eta guztikoa. Horrela iragarten zitzaion antxina aukera berriak egiteko adinera heldu gazteei, bide berriak hautatzeko ordua heldu zitzaiera; *haita/hauta* hizkuneak “aukera une eta abiada” bai-dino eta, beraz, *haitate*^(eu)/*aetate*^(l)>*edate*>*edad* euskaratik dator latinera.

4 Bestalde *haita*>*-te* “aldia” dator, *eurite*, *gudate* bezala, eta forma gizatuan *haita*>*beta* dator “aldi egokia” eta handik *bete/betatu*>*bedate*>*bedatze/bedatse* “udaberri”, ots, ehiza-*beda bete* beharreko aldia.

Aditz zaharrak *Utu* arketipoaren aurrizki edo preposizioaz oro-kortu eta indartu egiten dira: *aut-*, *so-* aurrizkira: eman/*hauteman*, erosi/*sorosi*, portar/*soportar*, edo *sub-* konposizioan gizatu: ir-motu/*subermatu*, estimar/*subestimar*, eta *sober-*>*super-*⁵ konpo-siziora: eratu/*soberatu*, etsi/*soberetsi*, visar/*supervisor*, etab. *Utu* etoiari dagokio *Utu/ate* hizkunea, berak hurraren edo ur petik bide egiteko duen ausardiagatik eta *at-*, *ad-*, *ats-*, *az-*, *za-* aurrizkiak indar berezia dinoe: oratu/*atoratu*>*azoratu*>*azorar*”, mirar/*admirar*, tentare/*attentare*⁶, antu/*atsantu*>*achantarse*, batu/*tapatu*>*zapatu*, apaldu/*zapaldu*, bildu/*azpildu*, etab. Izen arruntetan ere, analogiaz erabili ohi da: *soez*, *zopenco*, etab.

6.3. *Erra* arketipoaren atzizki-aurrizkiak

Hurrengo tokizen andanean egin itzuliketetan nabaritzen dira *Erra* arketipoaren nausi-morrontzako aurrizki-atzizkietan: *Arte/Atarre*, *Artola/Dolare*, *Arika/Garia*, *Argatza/Gatzari*, *Erize/Izarai*, *Eresuma/Somera*, *Oribar/Ibarruri*, *Oriol/Oilora*, *Iriola/Olaria*, *Urgell/Gallur*, *Ireland/Landera*, *Ermón/Moner*.

Erra/errai da hizkunez, mitoak dinonez “bere haragitiko irudi bai-gara”⁶, edo *Aruru* jainkosaren *haur*^(eu) 7/*arrahu*^(ber)/*rrorro*^(gu) beraz egoki zan *Erra* arketipoaren otsera *-ar/-tar*, *-ero/a*, *-ario/a*, *-er*, *-r* atzizkiez jatorria adieraztea eta *arraza* edo *ariar* *arraza* hitzak hagandik sortzea⁸: *iberiar*, *alemaniar*, *afrikar*, *indiar*, *canario*, *bereber*, *astur*, *bilbotar*, etab. Bide beretik niminoa edo kalitate adierázen *ar/-er/-arria*, *-rio* eredura: *txikar/chiquer*^(ual), *kazkar/cazcarria*, *bandurria*, *villorrio*, etab. Berea du ugarikorra ere *-ri*, *-ría* atzizkira: *genderi*, *chiquillería*, *Inoteri* edo harekiko konposiziora *-teri*: *umeteri*, etab. Lanbidea adierazteko *-ari*, *-ar*,

5 *Su+-bera*, jokerako adierazteko atzizkia, >*suber* “sutsu”>*super*. Hortik *soberatu*^(eu)>*sobrar*, “*sobrado de*” eta>*superare*⁶>*superar*.

6 *La Instrucción para el rey Merikaré*, 130, DB, nº 10.

7 *Gilgames*, I, 30-33,

8 Bestalde euskarak “*arraza*, *ordena*” *aria* dino, eta sanskritak *arya* “jator”. “Jator” izatea *Erra* jainko jatorritik dator *ariar* arrazarentzat eta *Erra-ren* alaba *Hator-en* seme-alaba izatetik euskaldunentzat *aitor/jator* izatea.

6° laburgoa: AURRIZKIEN ANALOGIA ARKETIPOZ ARKETIPO						
AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AS
ana-/ama-	ato-/to-/da-	arra-/ara-	lo-/lu-	aka-/ca-	aba-/afa-	etxa-
ain-/am-	at-/atx-/ad-	erre-/re-	li-/lli-	oko-/co-	be-/efe-/epi-	se-/ze-
on-/un-	otia-/oit-/oiz-	era-/ere-	ale-/ela-	cum-/con-	ob-/upo-	ja-/je-
in-/im-	txu-/xu-/su-	ar-/er-	el-/al-	oki-/ki-	para-	ez-/az-
en-/em-	so-/oz-/uz-	ri-	ela-	oc-/ek-	buru-/pro-	as-
ante-	sub-/sup-	oro-	la-	kata-	ber-/per-	eis-/s-
andi-	di-/dis-	uru-/ur-	al-	gana-/gain-	pre-	ex-/es-
amfi-	tra-/trans-	urru-	alla-	gara-/gala-	uper-	ska-/ski-

-ero/a atzikiak aukerakoak dira: *pelotari*, *ferrero*, *portera*, etab., gaia adierazteko, berriz, -ari, -ariu/a⁽¹⁾>-ero, -ar, -ra, -ura atzikiak: *ortuari*, *argentariu*⁽¹⁾, *solario*, *luminaria*, *pinar*, *melonar*, *bellotero*, *romero*, eta analogiaz, *hermosura*, *frescura*, etab. Eredua ere ba dino -era atzikira: *izaera*, *factura*, etab.; -or atzikiak jokera dino: *errukior*, *lotsor*, *escozor*, etab.

Erra "iruski" arketipoak NORA/NOIZERA, NORANTZ/NOIZERANTZ/-NORAINO edukineko kasuak antolatzen ditu -ra/-etara, -rantz/-etarantz atziki soil edo konposatura: *mendirra/mendietarantz*, *mendiraino*, ordu *bietara/hiruretarantz*, etab. Analogia halakoz, NORI kasuari -ari, -eri erantzuten dio: *umeari*, *gizoneri*, etab. eta NOREN/NORENTZAT kasuak ornitzen ditu -ren/ -rentzat konposizioa: *herriaren*, *umearantzat*", etab.

Erra arketipoak adizkerak berera osatzeko ere bada, -rri, -ri: *ekarri*, *ezarri*, *erori*, etab. euskaraz eta, batez ere, -are, -ar/-ere, -er/-ire, -ir, -ri erromanoetan bakarra dela: *amare/amar*, *temere/temer*, *partire/partir*, *puniri*, etab. Etorkizuna adierazteko kosmo birako soa du -ar, -ren forma soil edo konposatuan: *sorztear*, *ikusiren* euskaran eta bereziki -rá/-ría, -ra, -re, -ero erromaniar atzikiak: *amará*, *estaría*, *estubiera*, *leyere*, *amavero*⁽¹⁾, etab.

Aditz aurrizki edo preposizioetan *arra-*, *arre-*, *erre-*, *re-*, *era-*, *er-*, *ira-*, *ri-* eredura forma zaharragoak berrizten ditu: *ankatu/arrancar*, *batu/harrapatu*, *hesi/erresi*, *egosi/arregosi*, *mover/remover*, *bikatu/errepikatu*, *entzun/erantzun*, *austu/erraus-*

tu, atxiki/iratxiki, acordarse/recordar>ricordare⁽⁹⁾, etab.

Izen arruntetan ere indargarri bezala erabilten da: *revuelo, resorte, arrabotza, eredu, eraspen, erastun*, etab.

6.4. *Ilu* arketipoaren atzizki-aurrizkiak

Tokizenak itzulitara jartzeak erakusten du zeintzu diren atzizkiak: *Elize/Izal*, *Ullate/Atallo*, *Ollate/Tahull*, *Olarte/Artola*, *Olaberri/Ferrol*, *Ilosa/Osel*, *Loza/Zaloa>Zallo*, *Lotina/Antehu*, *Eltxe/Etxela*, *Legase/Casale*, *Lagorria/Korella*, *Laburdi/Bordel*, *Lakarra/Carral*, *Lakurde/Kordel*, *Laboure/Borrel*. Haraz gero, argi dauka gramatikak lokarritarako zein atal aukeratu.

Ilu arketipoa Ugarit urian nausitu zan eta hizkuntzarako erduetan bere tokia egitea lortu zuan sumeriar eta egitiar jainkoen ondoan, historiak berak ere enperioen zerrendan feniziarrek hirugarren txandako itxastar buruzagi ezagutzen bai-ditu. Nabariak dira, bestalde, elkarri bultzeginen *Erra* eta *Ilu* arketipoak izendegian eta gramatikan zeinek burua atera, nahiz auzia lehen ematen duenaren aldeko izan, euskarari ikusten denez.

Ezaguna dira *-la/-le* atzizkiak nor ekinkorra adierazteko: *entzula*, *egile*, *ordele*,⁹ etab. *Ordele* hitzak *ordalía* hitza eta ohitura ekarri zuan Europa osorako euskarren bitartez, ez indoeuropearren eraginez. Bere forma konposatuak dira *lari*: *aizkolari*, *hizlari*, etab., orobat *-taile*, *-tzaile*: *erakustaille*, *garbitzaile*, *zorrotzaile*, etab.

Ilu arketipoak jatorri banakak seinutzen ditu *-lo/a*, *-l*/atzizki-*ra*: *española*, *romagnolo*, *español*, etab.; kalitate baikorretan *-al*, *-ale* da: *egoal*, *equale*⁽⁹⁾, *sasual*, *leial*, *legal*, etab. eta kalitate ezkorretan *-lo/-le*, *-el*: *lelo*, *pelele*, *totel*, *pardel*, *tentel*, etab.; niminoa seinutzen du *-illu/-illo/a*, *-lla/u*, *-la/-le*, *-il/-l* atzizkitara: *okuiulu*, *etzela*, *casilla*, *atela*, *puella*⁽⁹⁾ "ñeska", *pajarillo*, *sombrilla*, *gingil*,

9 Sumeriarrek ez ziren sortegileen arteko auzian sartu-zaleak eta halatan jainko ibaia aukeratzen zuten epai-*ordele*. "Norbaitek inori sortegintza salatu eta frogatzen ez badu, salatua jainko ibaira doake (...) Jainko ibaia bere errugabetsuna frogatzen badu, azke gelditzen da eta halakoa salatu duenak herio zigorra jasango du" (*La Leyes de Hammurabi*, 2, DB, n^o 15)

farol, cordel, portal, etab. Ortuari eta landaretzan ere aritzen da: manzanal, frutal, tomatal, peral, etab.

Adizkera batzuk ere osatzen ditu *-li* atzizkira: *ebali*, *irauli*, *itzali*, etab., denetan arketipoen heina lortzen duela. Aditz aurrizki edo preposizioen artean ez du izan beste arketipoen besteko eraginik, grekoan izan ezik. Hala ere, *al-*, *el-*, *la-* dira bere legekoak: *egin/alegin*, *erran/elerran*, *abaindu/labaindu*, *leipo*^(s) “utzi”/*elleipo*^(s) “atzean utzi”, *lego*^(s) “hartu”/*ellego*^(s) “aukeratu”, etab.

6.5. *Ka* arketipoaren atzizki-aurrizkiak

Tokizenon konposagaiak itzulikatzean agertzen dira gramatikak gero erabiliko dituen *Ka* arketipoaren atzizkiak: *Akamarre/Marika*, *Okolar/Larra**ko*, *Okarroa/Arruga*, *Okoize/Ziego*, *Okina/Aineki*, *Okilegi/Gilegi*, *Akamuro/Mauriac*, *Kantara/Andrak**a*>*Andrach*.

Arketipo honek *ekua*^(s)/*oikou*^(s) “egoitz” eta *oke*>*oge* unean aurkitu zuan NONGO galdetu ahal izateko jatorria eta erroa *-ko* atzizkira erantzun ahal izateko: *etxeko*, *mendiko*, *basoko*, etab.¹⁰ NONGO kasu honekiko hurbiltasunak jatorria eta naza ere markatzen du *-ko*, *-go*, *-eco* *-ca*, atzizkitara: *amako*^(eu), *utukku*^(s) “Utu seme, aingeru zaindari”, *Marduku*^(a) “Martu seme”, *virago*^(l) “*vir* gizonagandiko emazte” (Gn 2, 23), *arévaco*, *perieco*^(g), *pasiego*, *baztango*, *sudaca*, etab. Analogia berean datoz: *astako*, *borrico*, etab. Lanbide batzuk ere, gurasoengandik arakoak bederen, atzizki bera daramate: *apaizgo*, *artzaingo*, etab.; *nimino* eta *kutun* atzizkia ere ba dira *-ko*, *-uca*, *-ico/a*: *mutiko*, *madruca*^(ast), *mocico/a*, *Perico*, etab.

Ka arketipoak *-kai/-gai* “materia” adierazten du *-kai/-gai* atzizkira: *irazkai*, *zurgai*, etab. Hizkune ezkorrek egiteko *-ka*, *-ke*, *-ge* atzizki-artizkiak erabilten dira: *gano/ganoka*, *fos*^(s)/*fusca*^(l) “argi/ilun”, *suhur/sorga*, *itxuratu/itxurgatu*, *heldu/helge*, etab. Kalidade gaiztoak adierazteko *-keria* egokitzen da: *gaiztakeria*, *zalekeria*, etab.

Gaia zatigarria denez gero, *ki*^(s) “lur”, *jainko*-kidea lurrean adierazteko erabili izan da, hala *Enki* eta bere kide *Enkidu*^(s) “Anu-ren

10 Tokizen asko atzizki honekin osatzen dira: *Marocco*, *Mónaco*, *Cartago*, *Mariaka*, *Malaka*, *Phoinike*, *Gabika*, *Gatzaga*, *Mendiage*, *Arzak*, *Marillac*, etab.

zatici”¹¹ Gilgames Poeman deitzen zaion bezala. Hagatik *-ki* zati-kiaren atzizki da: *oiloki*, *zezenki*, etab., bai eta ere ZERIK kaso konposatuaren gida *-rik* galde-erantzunetan: “ba dugu salda-*rik/ogirik* ez dugu”, etab.

Gure ikuspegitik zeru eta lurraren arteko marrari *egi* deritzaio, Ibarregi, Mendegi tokizunetan ikusten den bezala. Marra hori markatetik bezala, *-egi* “lar” adieraztera dator: *beroegi*, *gozoegi*, *larregi*, etab.

NOREKIN/NOGAZ kasoan *-ekin*, *-rekin*, *cum > con*, *-gaz* atziki-ekin adierazten du lagunkidea: *zuekin*, *zurekin*, *zeugaz*, eta ohar “*zuekin*^(eu)/*vobiscum*^(l)”, etab.¹² Bestalde, *-kun* atzizkiak zenbakien zenbanakoa adierazen du: *zazpikun*, *hirurkun*, etab.

Lanbide, egile eta izakera zentzuna adierazteko *-kin*, *-gin* eta *-gile* atzikiak egokitzen dira: *okin*, *bitxigin*, *gaizkin*, *jendekin*, *ontzigile* etab.; gaitasuna, beratasuna seinutzeko *-karri/-garrri* atzizkiak: *lokarri*, *ikusgarri*, etab.; langaia *-gailu* seinuarekin: *garbigailu*, *iraskailu*, etab. Orobat beratasuna adierazteko *-or* atzikia *-kor*, gizatzen da: *maitakor*, *lerrakor*, etab.; *-kada* “egitada, neurria” adierazteko atzizkia: *betekada*, *eskukada*, etab.

NON/NORA tokizko kasoak NONGAN/NORENGAN eta NORGANA/NORENGANA gizatzen dira bizidunekin *-gan/-rengan*, *-gana/-rengana* atzizkira: *amagan/amarengan*, *amagana*, *amarengana*, *umeengana*, etab. Berdin eurekiko konposatuak NORGANDIK/NORGANDIKO *-gandik/-gandiko* seinura: *amagandik* dator, *amagandiko* umea da.

NONGO/ZERTAKO/ZERTARIKO/NORAKO/NORTZAKO/NOLAKO/-ZELAKO/NORENTZAKO, NORGAZKO/NOREKIKO *-ango*, *-lango*, *-tako*, *-tarik*, *-tiko*, *-tzako*, *-rako*, *-lako*, *-entzako*, etab. kasu konposatuak izenen artean zehaztasun lokarriak egiteko dira: *mendiango* larra; *zeulango* mutila, *gutako* bat, *gutariko* batzuk, *lapurtzako* hura, *kaletiko* berria, *etxerako* ogia, *zuentzako* afaria, *zugazko* harremanak, *amarekiko* atxikitasuna, etab.

11 *Gilgamés*, I, VI,3. DB, n^o 7.

12 Ohartzekoa da *-kin* formak *sum*^(g), *cum*^(l) > *con* greko-romanoekin duen antza izenlagunetan “*nobiscum*=*gurekin*”, *vobiscum*=*zuekin*, etab.

Izenordeen NORK kategoria seinutzen du: *nik, hik, guk, etab.* eta adizkeren ahalduna artizkiz markatzen: *egin dezket, dezaiguke, eta halakoetan NORI kaso*a ere: *egin dezakikeogu>dezakiogu, etab.*

Aditz aurrizki edo preposizioetan *ak-, ag-, ek-, eg-, oc-, ac-, ik-, ig-* agertzen dira: *aitu/akaitu, urtu/agortu, nizo*^(s) “*ikuzi*”/*eknizo*^(s) “*garbitu*”, *curre*^(l) “*korri*”/*occurrere*^(l) “*bidera urten*”, *ortzi/egortzi, ceder/acceder, arri/ekarri, eron/igaro(n), urtu/igurtu, etab.*; *bera-*rekiko konposatuak ditu *kata-, con-/com-, esk-/eks->ex-*: baino^(s) “*ibili*”/*katabaino*^(s) “*jatxi*”, *damnare*^(l) “*uldu*”/*condemnare*^(l) “*condenar, oratu/eskoratu, premere*^(l) “*sakatu*”/*exprimere*^(l) “*agortu*”, etc.

6.6. Ba arketipoaren atzizki-aurrizkiak

Jarraiko formak aurrekoz atzera jartzean, agertzen dira *Ba* arketipoaren atzizki jokoak: *Abaurrea/Orba, Barria/Arriba, Ibarri/Arribi, Ibaseta/Estebe, Ibiza/Izabe, Bastida/Astizabea, Beina/Nabea>Nieva, Bedoina/Doñapea, Begorta/Gurtubai, Bisko/Eskubi, Bordairi/Ordairp, Bariza/Rizafa, Bola/Olabae>Olaf* . (Ikusi 5°, 6° laburgoetan)

Tokizenen analogia *-be/-pe* edonora zabaltzen da: *legepe, eskupe, etab.*, jokera adierazteko *-ibu, -ivo/-iva, -ive, -if*: *katibu, obsesivo, intensiva, passive*^(l), *passif*^(l), *etab.* edo forma konposatuak *bera>-fer*: *bihotzbera, minbera, legepera*^(eu) “*lepra*^(s), *signifer, lucifer*^(l)”¹³ “*argitsu*”; *-pen* atzizkiak, *ostera, ekintza irauna* adierazten du: *luzapen, itxaropen, etab.* eta *-vo/bo/a* atzizkia jatorrizko seinutzat erabilten da: *eslavo, zuabo, escandinavo, etab.*

Ba arketipoak aditz aurrizkiez jainko ekintza baitaratu egiten du *ab-/ap-/af-, be-, bi-, apo-, epi-, ob-/op-, upo-* aurreratuz: *haindu/apaindu, itaitu/afaitatu, eman/beheman, hezi/bezi>avezar, izio/bizi, baino*^(s) “*ibili*”/*apobaino*^(s) “*jali*”, *didomi*^(s) “*eman*”/*epidido mi*^(s) “*gehitu*”, *etsi/opetsi, tener/obtener, lio*^(s) “*askatu*”/*upolio*^(s) “*li-*

13 Aldapa beherak berez NORA eta *behera eroan* ohi du, legeak *legepera>lepra* legera behartu, eta *erun>-roa->fero* dator forma gizatuan grekoz eta latinez. Hortik *lucifer*^(l) “*argi eroale*” (argitsu adierazten) eta *sifnifer*^(l) “*seinu eroale*”. Batean izarraren *argitsu* kalitatea, eta bestean “*seinu eroale*” ekintza fisikoa erabilteak latinezko atzikien tresneri urria salatzen du.

beratu”, etab. *Erra* arketipoarekiko konposatuak izenaren edo aditzaren *era* edo egia ziurtatzen du: *bera/bere*, *bar-*, *para-*, *ber->per*, *uper-/iper-*, *peri-*, *bir-*, *pre-*: *duin/bardin/berdin*, *factu^(f)/perfectu^(f)/parfait^(f)*, *hezi/berezi*, *baino^(b) “ibili”/parabaino^(b) “aurreratu”*, *dare^(d) “eman”/perdere^(d) “galdu”*, *ejo^(e) “uduki”/uperejo^(e) “euki”*, *biztu/birbiztu*, *venir/prevenir*, etab.; *As* arketipoarekin batean baitaratu egiten du edukina *bas-*, *pas-*, *fas-*, *abs-* aurrizkiekin: *ertu/baztertu*, *estitu/fastidiar*, *estikatu/pastikatu*, *umotu/pasmotu*, *tener/abstenerse*, etab.; halako analogiaz “iruzki borobila” *oru* baitaratua *buru* bihurtzen du, *buru>fro/pro-*¹⁴, hala *burukatu* “discutir”>*frogatu* “provar”, *poner/proponer*, *ago^(a) “zuzendu”/proago^(a) “aurrera eraman”*, etab.

Ber->ver->per- aurrizkiak izenekin ere erabilten dira: *berbera*, *berba^(eu)>Verbu^(v) “baitako egia”*¹⁵, *berbertan*, **berbeti^(eu)>perpetuu^(v) eta perpetin^(v) “betiko”*.

4.7. *As* arketipoaren atzizki-aurrizkiak

As arketipoaren atzizkiak zeintzu diren jakiteko, eratako tokizenak itzulitara jartzea baino ez dago: *Etxalar/Larretxe*, *Serra/Arrese*, *Etxabe/Betxi*, *Etxabe/Beach*, *Isasi/Zize*, *Eskola/Kolitz*, *Etxepare/Pareja*, *Ezama/Maeza*, *Iskar/Karreze*, *Ezaurte/Ortez*, *Txiuri/Uriz*, *Ezostea/Ostes*, *Izurdia/Urtiz*, *Ezarte/Arteiz*, *Estibil/Tibilisi*, *Txarran/Aranaz*, *Senekue/Nekuesa*, *Sarria/Arrias*, *Secontia/Condes*.

As arketipoari dagokio *iza⁽ⁱ⁾/esse^(e)/ser* izaki berria seinalatzea, tokizenak *etxe* inguru duindu ziren bezala eta handik herri askoren jatorria markatzen du *-es/esa*, *-esse^(e)*, *-essi⁽ⁱ⁾*, *-is⁽ⁱ⁾*, *-ish*, *-ch*, atzizkira; *aragonés*, *maltés*, *genovessi*, *francais*, *inglish*, *deuch*, etab. eta forma zaharragoetan aurrizki edo atzizki: *iberes/speri*, *caledones/eskaldun*, etab.

14 *Buru>puru* formatik dator *pro/por* eta *burupe>proba* gertatzen da *buruz* egiten denean, *burupetu>probatu*, hala latinaren *probus/procaz^(v) “provado/procaz”* ere eta, azkenik, *burukatu/burrukatu>purgar*. *Oruse* iruskiki *oru* eta *buru* bezala analogizatzen ditu *puru^(v)* eta *pur^(v) “leinuru”*.

15 Ohar *baita/bera* arketipoz *Utú/Erra* baitatu direla, eta bihotzetik mingainera baitako egia urtetzen duela, jakinduraren arabera.

ZETARIKO gaia den adierazteko ZEREZ kasoan lantzen du *-ez* atzizkiera: *urrez, zurez, etab.*, analogia beraz tankera seinalatzen *-ez, -az, -z* atzizkiez: *erraz, euskaraz, assez^(l), beraz^(eu), verax^(l)>veraz, etab.*

As+Ka konposatuak *-sko/-sca, -xka, -ski, -zki* jatorria, eta ZEREZKO balorea adierazten dute: *Horrela Anu>Anuska, Utu>Iduski, Oruse>Iruski, Arra>arrasko, edo oilo>oilasko, negruzco, gorrizka, morisca, grotesco, Montesco, oinezko, urrezko; orobat niminoa, kopaxka, aiñe>agnieszka^(pol), etab., eta -sta atzizkiera, berriz, kalitate jokera: orista, gorrista, racionalista, etab.*

Erromanikoek hitzen ugarikorra egiteko erabilten dute *-s* atzizkia: *rios, los, las, etab.*; adizkeren ZER ugaria *-ez, -zki* seinuez: *deuskuez/dizkigute, etab.eta NORI -st, -sku-, -tse* adizkeretan: *daust, dusku, deutse, etab.*

Aditz aurrizki edo preposizioetan As arketipoak edukina zehazten du edo bere anasez joritzen: *se-, etxa-, ja-, je-, as-, az, ex-, eis, s-* seinuekin: *ihesi/sahietsi, urt/jaurt, egon/jagon, erria/exeri, traer/extraer, erun/etxaron, baretu/aspertu, ago^(g) "eraman"/eisago^(g) "ekarri", eligere^(l) "hautatu"/seligere^(l) "aukeratu", fero^(l) "jasan"/spero^(l) "itxaron", iritxi/jaritsi, urtiki/jaurtigi, kartu/eskartu, etab.*

ONDOREA

Atzizkiak hitzaren enbor beretiko espalak dira eta izen aglutinatuak, tokizenak berere, atzekoz aurrera ahozkatzetik sortu ziran, hitzen arteko harremanen baliagarritzat. Horrela sortu zan izenaren eta aditzizenaren deklinabidea. Beste atzizki batzuk hitzaren barne edukinak analogia bidez sortzeko baliabide dira. Euskara atzizkion bidez hazi eta zaulitu zan. Euskara hizkuntza klasikoak eta erromanikoak baino aberatzagoa da atzizkietan.

Atzizkien aldean, ez nabaria izan da aditzak eta hitzak aurrizkiz hartzen duten ornigarria, euskal gramatikariek aintzat ez hartzeraino, hain zuzen. Argi dago, ostera, euskarak bere asmoko duela aurrizkia eta grekoak eta latinak ez bezala, analisiraino dakiala bere sorgua argitzen. Hala ere, hizkuntza klasikook aboroago erabili zuten aurrizkien laguntza euren hiztegi urriaren ornigarriako.

Latina erromatar enperioko batasuna bermatzeko apropoz eta arteko hizkuntzen baliabidez ornituriko hizkuntza da; volapük baten antzekoa funtsean. Erakundeko gidari zirenak latinez idazten zuten, baina herri xeeak ez zuan inoiz latinik ahozkatu. Eskerrak Erromako Elizak aldi batez beretzat egokitu zuena, beste mila ta erdi urtetan iraun ahal izan zuan bizirik eta, desagertu zenean, inor ez zan dolutu eta askotxok askeago ikusi zuten euskararen zoria, hizkuntza behartuko mezaren orde, euskal meza entzun eta haretan partaide argi izaten ikasi zuenean.

Latina hizkuntza idatzia eta beraz zurruna da otzez eta egituraz: bere sortzaileek ez zuten izan arketipoen berririk, hitzak berera sortu edo otza eta edukina analisi egokiaz ornitu ahal izateko. Aurrean zuten gutzia harrapatzeko ohituraz, hitza mailebatuz oratzen zuten aldameneko eukietatik, maiz hitzak itzulitara josiz. Ez ziran arduratu hitzaren jatorriaz, edo herrien jakinduria zaharraz, bestela baizik, behin harrapakina hartu eta beste herrien arrastoa garbitzen ahalegindu ziran, jatorria edo jabetasuna salatu zaken inortxo bizirik gelditu ez zedin. Halatan, enperioa arima bako hizkuntzara behartuz, *Ba* bako *bakea* lortu zuten herrien artean.

VII. JOSKERAREN LEKUKOTASUNA GRAMATIKAN

Hizkuntzaren garapena gramatika da, baina garatu aurretik, gariak bezala, hizkuntzak ere, hitzaren eta izenaren hazitik hara, bere xumetasunetik gora igon eta apurka-apurka burua ateraten du argitara. Galburuan hazi berria ikustean konturatzen gara, halako hazi bat lurtean ehortzetik sortu dela emaitzaren gertakaria. Giza asmamenean ere ahozkatu izenen eta hitzen erabiltzetik sortzen zen ahozkera bakoitzaren helburua. Deia, adibidez, uneko beharrak sortu oihua da. Umeak “ama” oihukatzean, izen bera, doinu berezietz errepikatzen duenean, dena dino. Erregu bat egiten dio amari eta hagatik umeak leunki edo garraxiz aditzen ematen dio amari beste hitzez esaten ez dakiana ere. Amak doinuaren larritik ulerzen du mezua eta aurreko edo osteko bokalen luzaduran igartzen du umearen ganorea ere, asarre edo amultsu dagoen. Beraz, “ama” hitz oihukatuak, beste barik, esapide askotara idekia dago, izena deia egiten denean, hizkuntza burua eman ahaleginetan dihardu. Ez da berdina umearen ahotik entzun, ala leteratan idatzia irakurri; ume abotzak bakarrik emango bai-dio “ama” izenari ohargabetik oharrera doan doinu eta edukin aproposa, umeak ahoz, begiez, eskuez, gorpuzkera guztiaz osatzen bai-du bere larritasuna¹.

7.1. Oihuzko esamoldeak

Hizkuntza ahozkatuak gordetzen duen esamolderik zaharrena deiak dira eta bere erabilera baserritik kalerako kultura unean galtzen doa, gramatika akademikoak huzkeriatzat ematen bai-ditu bihozkeraren oihuak, beti ere formalismoak gizonetzkoen ahozkera zurrinak bultzatu izan dituelako, emakumeen doinu txaramelatu eta ugarien gainetik². (Ikus oihuzkoak 1^o laburgoan) Zenbat eta

1 Euskara biziaren bila, gure antzerki ahaleginak laguntza handi eman diezaioke, baserri eta herri txikietan egiten den euskara biziari, oihuzkoen aipamenaz, batez ere.

2 Baserriko agur bat ez da entzungo “ene!” unkiagarri batez estan->

hurrago bizitzaren arridura, ahotik gertuago hizkuntzaren hazimasiak, izan ere, ume ertaldi bakoitzeko emakumeen memoria hasierara doa eta gizonezkoak, berriz, atzendu egiten dira halako ospakizunetan, elizakoetan bezala.

Oihuzkoetan ama arketipoko den *Inu/An* jarraitzen dute emazteek gehien bat eta *Utú* aita arketipoko edo eta *Erra* eroiarena gizonezkoek, haiek jainkozko arketipoak gehiago eta hoiek, ostera, giza arketipoak. Ohiuzkoetan antxinako jainkoen aitorkuntza baino hareago ohargabeko oroitzapena dago, estilistikak bihozker nabari dezake eurretan eta hizkuntzalariak hizkuntzaren umezaroa. Arbasoek, zerura begira *ene/aini!* esatean, *Inu/An* jainkoa zuten gogotan eta jainko ama horren arketipoa zuten aintzat, eta, eguzkira begira *otoi!* deitzen zutenean, aitari bezala dei egiten zioten *Utú*-ri. (Ikus 1° laburgoan) Era berean, otoitz luzeagoetan *ene, otoi, ara, ale* etab. deiok tartekatzean, azalpeneko hitz gehigarri guztien gaintik oihuzko haretan zegoela funtsa eta hitzaren kasuak bezala, adizkera izenduak atzizki jasoko zituzten oihu haien markak. Izan ere, hasitik ez datorren galbururik ez dagoenez, oihuzko formatatik ez datorren esamolde konpondurik ere ez dago.

7.2. Lokarri bako esamoldeak

Lokarri bako esamoldeei *hizkune* deitzen diegu. Hasieran nahiko zan hitz soil bat beste baten ondoan ahozkatzea, bata bestearena antzemateko³. Hitz gune ohietan oinarritzen bai-zan hasierako katekesia. *Ino/in* elkarren jarraian esateak bata bestearenak egiten zituan, gaur bertan izen baten ostean, *neska argi*, adibidez, kalitate bat jartzen dugunean bezala. Baina hizkuneak erro bereko parekideak aukeratzen ditu, mitologika oroipenaz egokitze:

> da gabe, batez ere emakumezkoa denean agur egilea. Honela ezagutu omen zuan norbaitek herikide bat Venezuelan. "Sí, porque has dicho, *ene*". Oihuzkoetan "ene/éééne" harridurazkoa oihua da, eta "ená", "benetan, egia santua" tartekatzea bezala.

3 Erderaz "fórmulas de lenguaje" herrien jakinduria zaharrean agertzen dira eta halako pedagogiaz hitzen arteko kideetasun/kidegaitz "berdinketa/bereizketak" egiteko erabilten ziran.

edo *Anu/un*, *Inu/uin* esateak Jainko ama aitortu ezeze, hizkera analogizaturik lantzen du ezelako lokarri barik. Era berean *Utu/ota* edo *Utu/dui* esatean, aitorkuntzaz batera, eredu berria aukeratu eta sare guztietara zabaltzen du haren analogia: *Utu/udio*, *udio/udui*, bezala, arketipo-sinboloak egiten duela guztietan oroipen lotura zuzena edo zeharrekoa. *Utu/udio*, arketipoaren borobil antzetik dator, *udui* formak, berriz, antzeraren aditza sortzen du. *Utu*, beraz, *ud* ezeze, honi bide egiteko *hodei* eta *odi* da eta *odi* hortatik *uduiz* datorkigun *uda*.

Hitzaren sorgu beretik dator esan aditza: *Inu/ino*, *Utu/otoi*, *Erra/orho*, *Ilu/ele* eta orobat egin aditzetan: *ino/in*, *Utu/itu*, *Erra/erre*, *Ilu/ahal*, “esan/egin” eratakoa izan bai-zan jainkoen sorkuntza eta hizkuntzaren sustarretatik adarretaraino doake arketipoen muina, *nomima sunt numina* “izenak jainkoak dira” jakinduriatzko esakeraren arabera.

Arketipoak monosilaboak dira eta monosilabo bakoitza bere arketipoaren atarian dago, mitoa lagun, sorgutik dariola. *Erra/harro* bada, *Erra/erru* edo *Erra/ira*, eroiaren arketipoak ba du azalpenik bere mitoetan, orobat *Ilu/ahal*, edo *Ilu/ahul* aldikadekin bat datorrela. Giza arketipoak urriagoak dira hizkuntzetan, euren zeregina hizkuneak egitea baino, jainkozko hitzak gizatzea delako, dela esparru fisikoan, dela psikikoan. Hala ere, hona *Ka/ke*, *Ka/kai>gai*, *Ka/kia* edo *Ba/behe/Ba/bai*, etab. Horrela arketipoa hitzaren sorgua egiten da, Jainko agerpenak direla goian sinbolo eta gizakia, gorputz eta barne, lurrean.

Hizkuntzetan batzuk arketipoarekin zuzenean kideztetik datoz, hala *Erra/erro* hizkuneak sorkuntzan jainko honek izan duen eragina dino, baina *erro/erru* elkarren arteko bereiztetik dator, “jaiotzeak heriotza zor” jakinduriak bezala. *Ka/kai*, *Ba/bai* bezala, baikor berdintzen dira, baina *kai/ke* eta *Ba/behe* ezkor bereizten, gizatasunak beregan duelako muga edo kontraesana.

Monosilabismotik hara ere ba du jarraipenik hizkuneak, jainko arketipo bakoitza duela eredu, hala *Antu/handi*, *Done/donu*; *Arthe/arte* edo *Alen/lehen/lein*, etab. jainkozko arketipoen artean, edo *Inko/inka*, *Utuku/tuku*, *Arkhe/argi*, *Loku/leku*, etab.

jainko gizatuen artean. Hitzaren sorgu beretik sortzen da aditza ere, *Antu/antz*, eta *Utuku/uduki* bezala edo *Arkhe/arki*, *Loku/loqui*^(l) “lekuak (lekukoak) mintzo”, *Leku/leka*, etab.

7.3. Lokarri soileko esakuna

Lokarri soilenak ere arketipoen alorretiko mozkinak dira. Horrelako da *eta*^(eu)/*et*^(l) hitz biren artean. Lehen hizkune zirenak, *Anu/on*, adibidez, elkarri erantzi eta gehitu egiten ditu, *Anu eta on* eginez eta berdin hizkunik ate, nortasun ezberdinak: *Anu eta Utu, on eta doi*, esate baterako. Euskararen lokarri bera erabilten du latinak ere: “*onu eta on*^(eu)/*consilium et bonum*^(l)”, etab. Lokarri honen igadura *eta>da*, *et>ez>est>es* doa, loturako hitz izaten hasi eta aditz lokarri burutzen dela, toponimian ere erakusten duen jokerez⁴. Beraz hasierako *Anu/on* hizkunea “*Anu eta on*^(eu)/*Deus et bonus*^(l)” dator alderdi bien gehigarri eta, “*Anu da on*^(eu)/*Deus est bonus*^(l)” izatez, aditzaren ziurtagiriz. Era berean *ide/idea* hizkunea, “*ide eta idea*^(eu)/*idem et idea*^(l)” da lokarriaren gehigarri eta “*ide idea da*^(eu)/*idem idea est*^(l)” aditz lokarriak hautemanez⁴. Fonetika aldaketaz *eta/et* lokarri soila aditz lokarri biurtzen da, harrezkero eta aurretiaz *iza(n)*^(eu)/*esse*^(l)/*ser* aditzak *da/est/es* hirugarren pertsona gertu zeukala.

Hitz biren arteko berdinketa gonbaraketaz ere egiten da (Ikus gonbaraketak 2^o laburgoan): “*An uina heina da*”, “*ama aita aina da*”, “*Utu su edu da*^(eu)/*Sol uti ignis est*^(l)”, “*Ilu loi halako da*”, etab.

Barne hartzea beste gonbaraketa mota bat da: “*Erra ere errai da/Utu juzo ere ba da*”; banatzaileak aukerak berdintzen ditu: “*nai ama, nai aiña*”, “*alai ala antzitu*^(eu)/*alacris vel anxius*^(l)”, “*arre ala ori/gris o amarillo*”, *ide ala idea*^(eu)/*idem vel idea*^(l), etab. Bietatik bat onartzeko bereizketak ezetzi egiten du alderdi bata *edo*^(eu), *aut*^(l)/*o* formen bitartez: “*anu edo aña*^(eu)/*anonna aut agnu*^(l)/*comida o corde-ro*”, “*han edo hemen*^(eu)/*illic aut hic*^(l)/*allí o aquí*”, “*atzo edo etzi*^(eu)/*o*

4 Tokizenetan gertatzen diren eratorriak gero hitz arruntetan sartzen dira, soinueta, zurruna ozentzen eta ozena igorkatu egiten direla: *Ibarreta>Ibarreda*, *Ibarza>Ibarz>Barcia*. Eta hizkera arruntetan: *joan eta etorri>joan da etorri/et nunc et semper>ed nun eds semper>e nun es semper*^(l). Analogiaz *Utu/aut*^(l), *Utu/edo*^(eu) datoz. *Edo>eo>o* dator euskaratik gaztelaniara.

eri *aut mane*⁰/*ayer o mañana*”, “*urru edo urri/abundante o escaso*”, etab. Azkenik, salbuezpenez ezean, aukera biak baztertu ditzake, biei ezetza emanez⁵: *ez hau, ez hori/nec istud, nec illud/ni esto ni aquello*”, “*ez eta hura ere/ni tampoco aquello*”.

7.4. Aditizenen lokarriak

Hizkuntza monosilabismo eta aglutinatzetik zaulira heldu zenean, lokarria atzizkitu egiten zan, hitzen eta aditzizenduen arteko lotura zertzeko. Hitzari egosten dizkiogun kategoriak eurak sor dizkiogu aditzizenduari ere, NOIN/ZEIN bereizten dituenak, adibidez. Horrela, *An.en* alaba *Anena*>*Nana*^(s) edo jaioberria *ama.n* umea, *amana* esaten den bezala, “amagandik jaio da/amagandik jaio den umea>jaio dena/“datorren *kau*^(eu)/*qui venit*⁽ⁱ⁾/*que viene*” bereizten dugu, haraz gero aditza ZEIN kasuaren bidez aditizzen bihurtuz, edozein hitzaren beste zirkunstantzia guztiak azaltzeko gei egiten dela: *datorrenari/datorrenean/nentorkionez*, etab.

Joskera hau ezegoki etorri zitzaion grekoari ta latinari, soberaki puztu zuten deklinabideari esker. Orduan aditz aurrizki edo konjuntzio batzuk aurreratu zituzten esaldien arteko lokarria egiteko. Euskarak ere salbuespenez onartzen ditu halako lokarriak “*nam veniebam ad illum*⁽ⁱ⁾/*zeren banentorkion*^(eu)”, etab. Hala ere, honetan da euskararen eta erromanikoen alderik gehiena: euskarak atzizkiez lotzen dituela aditizenenak eta erromanikoen, latinak eta grekoak preposizio bidez josten dituztela aditzen arteko edukinak, atzizkien eta preposizioen lokarri gaia beretsua izanik ere.

7.5. Oihuzkotik gramatikazko esakunera

Dagoneko “perpauza” esan ohi da, frantzeratik euskaldundua, “oración gramatical” esateko, batez ere, Nietzschek “*amõña zaharrari*” agirika egin zionetik⁶ eta ohiko gramatikaren aurrean estruktu-

5 Oihuzkoetan *et* formak “alto!” dino eta hortik dator *ez/-etz* “no”. Ezezko balditza *ezpa*^(eu)/*etsi*⁽ⁿ⁾ bezala “*ezpaletor/etsi non venerik*⁽ⁿ⁾” eta *oino/iñó* harridurazkoak eta *año* aurkakoa izan daitezke *non/no* “ez” erromanikoen sorgua.

6 Autore honen ustez, gramatikak pentsamolde berezira intzigiuten baigaitu eta bide berriak idekitzeko, ontzi zaharrak apurtu beharra omen>

ren gramatika asmatu zuten, non sintagmak formari soilik begira betetzen duten funtzioa. Hizkuntza sinkronikoa deskribatzen dute, amarik gabeko gizakia bailitzan, giza pentsamoldeak asabarik, ez odolik ezpailuen, sinkroniak hizkuntzaren igaroko zainak mozten bai-dizkio jatorriari, bizia duen sinboloa eta analogia banpirizatuz. Zientziaren izenean gramatikagino desmitologizatu eta halatan iraindu egin dute gure asabek hitz egiteko erabilten zuten irudipen baratza eta hitza eta hizkuntza den artea ezaindu, haraz gero, hitz egiten duen gizakiak otoitzik egin ez dezan, ez belarrietan den soinuak erantzun sakonik izan. Gizakia den artista bera ere ezabatu, hizkuntza, gizakiak libreki asmatu artea barik, gizakiak abereekin batean dituen genesen jokerako frutua-edo bailitzan.

Hala ere, hizkuntzak eta hareago gramatikak ez du moztura halakoz giza adimen-ulermena baldintzatzen, gidatu baino eta jatorrizko gida hoiek gizaki behartuaren aubenetatik datoz, gramatikazko esakunen azaroa oihuzko monosilaboetan dagoela, (Ikus 6^a laburgoan) umearen adierazpide guztia *ama!* oihukatzean dagoen bezala. Amak, beste barik, umearen *ama!* deira dena ulertzen du, baina gizakiak jainkoekikoetan, aldi bateraz gero, eskaria zehatzago azaldu beharra zuelakoa izan zuan eta orduan, erritualizazio halakoz sortu zituan gramatikazko esakunen zertzeladak, zertarakoak, baldintzazko eta amoregitekoak, hitzak *esan/izan* arteziaz erabaki eta lor zezan.

Arketipoetan *An/Ino* esparrukoak, adibidez, *ino* adizkera bulztatu zuan "esan, kexatu" adierazteko eta *ene!* oihua darabil, jarraian *-n* atzikiaz lotzen dituela helburuak: "*ene*, lor dezadan/*otoi*, lor dezadan". *Utu* arketipoaren oihua *otoi!* da eta latinak ere bertatik lotzen du: "*otoi*, ikus dezadan^(eu)/prego ut videam^(l)". *Erra* arketipoarekiko oihua *ara* da eta *-arren* atzikiz lotzen ditu funtsezko helburuak: *ara* orhatzen dizut, argi ikustearren^(eu)/oro quare clare videam^(l)"; *Ilu* arketipoak *hel!* du oihuzko deitzat eta *-la* atzikira lotzen du ZER kasoak: "hel, lor dezadala".

>zegoenez eta hau zan gero ere bere kezka: "Jainkoa hil da, baina hor dago gramatika".

Giza arketipoak *auta>kauta>kausa* eta *aria>karia* gizatzen ditu, geroko loturetan agertzen diren bezala: “zer *kariaz*^(eu)/*quare*^(l)”, “ze *kautaz*/por qué *causa*” galdetzen denean bezala, eta hortik: “*zergaitik*⁷ egin du?^(eu)/*quare fecit?*^(l)/*car*^(l)/por qué?” galdekizunetan bildu. Eta *kauta>kausa* honela adierazten du: “*etortzeagaitik*^(eu)/*adventus causa*^(l)/*a causa de la venida*”, “*bildur izateagaitik*”, “*bildur delako* (arrazioagaitik)/*a causa del miedo*/porque tiene miedo”, etab. Autak bezala, aldiak berez jainkozko arketipoen esparruko dira, baina giza arketipoak une laburragoak zehazten ditu *-neko* atzizki konposatura: “egin dueneko/(momento) *en que/cuando* lo hizo”.

Agintezko forma batzuk, monosilaboak bederen, eta adizkeren arauetatik jaregin direnak oihuzko deiekin nastatzen dira: *ainü*, *aida*, *aira*, *hel* oihuak adibidez, jainkozko izena darabilte, haiengandik mesedea lortzeko edo laborantzan haien abereengandiko oldarra jaristearren. Jainkozko arketipoa, ama familian bezala, dena denentzako eta *ama* izenak doinu asko ditu ahozkeran, eskale bakoitzaren larria, irrika edo beharraren arabera. Jainkoekiko oihuak ere hain ugariak eta eskale eta eskari askoren neurriko dira.

Ikusten denez, arketipoen gaikia dager izen eta aditzen sorburuan, arketipoek eratzen dituzte aditz aurrizkiak eta konjuntzioak ere, berdin euskal gramatikan eta greko-erromanikar gramatikan. Euskarak nahiago duela atzizkia, eta hizkuntza klasikoek, euskaragandik jaso gaitiak aurretik jartzen dituztela. Euskara ahozkatuaren buruz garatu zan eta grekoa eta latina, ostera, idazkizunetan gailendu. Ahozkatuak esakunen zertzeladak barne eta kolpean orapiltzen ditu, idaztera doanak, ordea, asti gehiago hartzen du, konjuntzioez baliaturik, azalpenak esanaren ostean pausatsu emateko.

Ulertzekoa da Kratiloren eritzian ikusten den itxumustua: “Nere ustez, Sokrate, hona eritzirik zuzenena: goitiko indarrak eman diela gizakiei gauzei jatorrizko izenak ipintea eta, hala beharrez, doiak izatea” (438 c). Halaberbarrez barik, ekinaren ekinaz eta arteziaren buruz, hobeki esan, hatarako jaso bai zuten jainkoen-

7 Ze *kautik>gautik>gaitik>gatic* datorke forma hau, latinak, *Zerik* kaso eta guzti *qua de causa*^(l) egokitzen duen bezala.

gandik gizakiek izadia aztertzeko ulerbidea, adimena eta argitasun doia. Gizakiak izadiaren irakurketa argia egin zuan, hizkuntzaren errozko arketipoak bertan ohartzuz, eta jainko sortzaileak bere aburuekin konprometituz. Halatan esan zezaken Sumerreko jakinduriak ere: “Gazteak polikeria gabe ospa dezala bere jainkoaren hitza, Sumerren bizi diren gizakiek, aria bezala bilba dezatela”⁸.

7.5.1. An aditzizenduen joskeran

ZEIN bereizketaren seinua *-en* da: “datozen guztiak/cuantos vienen”, “datozenak^(eu)/venientes^(l)”, “datozenon^(eu)/venientium^(l)”, “darion^(eu)/réhon^(g)/fluens^(l)/manante”, “laguntzen duten guztiak/todos cuantos ayudan/todos los ayudantes”, “Zein da gizone-tan^(eu)/quis hominum^(l) est/“quién de los hombres es”, etab.

Opazkoetan *ainü!* “balinba nik izatea”, “jin *ainintz*” edo *otian^(eu)/utinam^(l)* forma konposatuak erabilten dira: “zatoz *otian^(eu)/utinam venires^(l)*”. Opatzekoen forma eta edukina dute agintezko adizkera batzuk: “noan^(eu)/vadam^(l)”, “goazen”. Nahimen eta ziurtasun aditzekin ere seinu bera darama ZER kasuaren lekuko: “egin daizun gura du”, “etor dadin nahi baduzu”, “ba dakit etorri dena”, “ez dakit etorri den^(eu)/nescio an veniat^(l)”, “sinisten dut gugatik hil zena”, etab.

An arketipoak bere neurriez eta seinuz markatzen ditu aldien eta tokien uneak NON/NOIZ kasuetan, *-an, -tan, in, en* seinuekin: “ikustean/in visione^(l)/en viendo”, “nentorrenean^(eu)/cum veniebam^(l)/cuando venía”, “etor daitenean^(eu)/dum venerit^(l)/cuando venga”, “ordun^(eu)/tum^(l)/hora in qua>quam+dun>quando^(l)”, “etorri den uean>denean/deneko^(eu)/quando venit^(l)”, eta forma konposatuz: “etor daiteneko^(eu)/donec veniat^(l)”, etab.⁹

NOIZNO/NORAINO kasuak *An/Ino* “zeru” arketipoak maneaten ditu aldiak eta mugak seinutuz: etorri *daino*”, “argia sor *dedino/-donec* lux oriatu^(l)”, etab. eta amoregitekoak: “bere bizia ematera-*ino* opaldu zuan burua”.

8 *El hombre y su dios*, 2-3, DB, n^o26

9 Aditzen ZEIN forma zehatzgarriak, beste zertzelada guztietara zabal-tzen du aditza: *den/denari/denez*, etab.; berekiko konposatua den ZERTARIKO formetan: *deneko/denekoiz/denekoan*, etab. ere ikusten denez.

Ama agintearen *mato*>*mazuak* bere *maisu* ardurara ordezkatzeko du eta bere epaien zioa azaltzen du arketipoekiko konposatueta bere ahotsaren soinua ezartean: “zeren etorri bai-zen^(eu)/*nam venit*”, eta *ena*, bere egia, *ben* forma gizatuan, ezartzen du osterako esaldietan: “*baina*¹⁰/*ben*^(eu), *enim*, *enimvero*^(l)>*empero*”. Amoregitekoetan *nai*>*nahi* maite aditza erabilten da: “*nahiz* egin duen/*aún* haciéndolo”, “*nahiz* egia dinozun, ez dut ulertzen/*aunque* dices la verdad, no lo entindo”¹¹. “*nahiz* egin duen^(eu)/*quamvis* fecerit^(l)/*aunque* lo haya hecho”, “eginarren”.

Ikusten denez, *An* arketipoa bakarka eta konposizioan ugari sar-tzen da, jainkoen buru zen onu emaileari zegokion bezala.

7.5.2. Utu aditzizenduen joskeran

Utu esparruko *otoi* deiari jarraiki, Sortaldeko jakindurian halako esamotak aurkitzen dira: “entzun daizula, *otian*^(eu)/*utinam* audires^(l)/*ojalá* prestes atención!”, “nire aholkua entzuna bedi, *otian*/*utinam* konsilium meun audiatur^(l)/*ojalá* sea oído mi consejo”¹², “*otian* bere (*Uturen*) ondoan bizi zaitezaz^(eu)/*Utinam* vivas cum illo^(l)/*ojalá* vivas junto a él (*Utu*)!”¹².

Utu/oihu da hizkunez eta oihuzko batzuk *otoi*^(eu), *ototoi*^(g), *uxala*>*ojala*! dira opatzekoetan, *et!* larrialdean ohar egiteko, *otx!* saminean, *ux* etxeko abereak *otxatu/uxatzeko*, *atuzar*>*azuzar*, *ioxte!*, *ut!*, *ospa!*, *itate!* zilegi ez diren proposamenak igesteko, etab.

Etorkizun aldia azaltzen du subjuntiboarekin batera *-dino*, *dum*, *-deneko*, *donec* lokarri konposatuez: “bera etor dadino^(eu)/*-dum* venerik^(l)”, “etor daiteneko^(eu)/*donec* veniat^(l)”, etab.

10 Osterako esankizunak aurreko egia laburtzen du. Forma denok *ena* “egia santua” errepikatzen dute; *ena*^(eu)>*enim*^(l) “jainkozko egia”, *eneen*>*enim*/*-nam*^(l) datoz, gehiengo kasuan; *ben*/*vero* “giza baitako egia da, *Ba* arketipoak moldatua”; *vero*>*pero* etorritz, *bera*^(eu) dator *vera*^(l) “egia” bezala eta “*baina* *bentan*/*pero*, *en verdad*” gauza bera azpimarratzen dute.

11 Ohar *nahiz*^(eu) “queriendo” y *quam*+>*vis*^(l) “como quiera(s)”, *bietan* *nahi*^(eu)=*velle*^(l) naimen aditza erabilten dela, banatzekoetan bezala “*naiz* joan, *naiz* gelditu^(eu)/*vel* unus, *vel* alter^(l)”. Latinak euskara jarraitzen du.

12 *La Enseñanza de Shuruppak*, 8-10;71-74, DB. n^o 26, p. 45.

Osterako esankizunetan *ostera*, *ostantzean*, *obstante* loturak erabilten dira, *oste!* oihuskoa lez, *Utu* iduzkiaren *otsi/oste* ekintzatik analogizatua. Hortik *oste*^(eu)/*obsto*^(l) “obstar” ere: “zuk *ostera*, lortu duzu/tú, no *obstante*, has conseguido”. Osterako beste esankizunak *ate*, *Utu* iduzkiak *otsi*-itoiketari osart igaroten dituenen oroitzaz *at!* “kanpora” esateko, edo *ata*^(eu), *at*^(l), *atqui*^(l), *aitzitik*^(eu), *tamen/attamen*^(l): “*ata* jainko ilezkorrekaitik/*at* per deos inmortales”¹³, “*aitzitik*^(eu) ulerzen dut/*tamen* intelligo^(l)/no *obstante*, entiendo”, etab.

Utu/zio hizkune denez, *-eta/bait*-^(eu)/*et/etenim*^(l) formazko loturak ematen dira zio-azalpenak jakinduriazko idazkizunetan: “harrigarria *bait-zara*^(eu)/*etenim* mirabile es^(l)/*ya* que (*oti*^(eu)) eres admirable”, “dena daki^(eu), argia da-*eta*/omnia scit^(l), *etenim* lucidus est/argia *bait-da/ya* que es inteligente”. Ukapenezko baldintza moduan ez-*pa*^(eu)/*et.si*^(l) erabilten da: “eragozpenik *ezpailegon*^(eu)/*etsi* non esset obstaculum^(l)”.

Era berean, helburundun *otoi* eskaria denean, *ut*, *ad*^(l) loturak eta *-tzat*^(eu) atzizkia erabilten dira *ite/ide/eza* adizkerekin batera: “etor *dintzat*>etor *dadin*/etor *daiten*^(eu)/*ut* veniat^(l)”, “lana egin *dezantzat*>dezan^(eu)/*ad* opus faciendum^(l)”, etab. ZER kasua *-tea/-tzea* atzizkia eta *ut* lotura: “egia esatea/zeu etortzea nahi dut^(eu)/volo *ut* venias^(l)”.

Ezbaia *ete-*, *ote-* aurrizki eta *-ete*, *-ote*^(eu) atzizkiekin adierazten da edo *utrum*^(l) lokarriarekin: “bai *otean*”, “ba *etedoa*/ba *doate*^(eu)/*utrum* vadat^(l)?”, “*oteda* pekatu hain handi^(eu)?/*utrum* tan grave^(l) sit peccatum?”

7.5.4. Erra aditzizenduen joskeran

Erra iruski arketipoari NORA/ZERTARA galderei erantzuten dator, berari bai-dagokio ibiltariaren abiada eta helburua markatzea: “lana egitera doa”, “eguzkia sortu lekutik sartzen denera” edo berekiko konposatuetañ NORANTZ/ZERTARANTZ, NORAINO, ZERTARANTZ/ZERTARAINO: “salneurria igorterantz doa”, “merkagaia ahor-

13 *Utu* iduzkiaren ekintzatik analogizatzen da *ate* (Mt 16, 18) “ahal, men” adierazteko eta bere sartu-urteneko erraldoi diren *mendi* eta *mendeak* dira *ate+men*>*attamen/tamen*^(l) formen iturriak.

tzeraino salduko da”, etab. Bide beretik NORI kasoari erantzuten dio: “etorri denari emateko/para el que ha venido”, etab. Jokera berak markatzen du helburua ere *-tearren* atzizkira: “zeu ikustearren nator/vengo para/por verte”, etab.

Arketipo honen *ara!* oihuzkoa *arren* gehiengo forma hartzen du *erregu*^(eu)>*rogu*^(l)>*ruego* esakunetan “entzun *arren*, Jauna/te rogamos, óyenos, Señor!”, “*ara!*, gaitzetik osatzearen noa erromes”; *ara!* ohiua eskaria aurkezteko da eta *-arren* formak, hala “Jaikoarren eskatzen dizugu” eskea eta bitartekaria bateratzen ditu.

Arrazioa “Erraren zioa”, zio indartua da euskaraz eta egiptieraz *rason*^(e) “Errari atsegin zaiona”, ulertzen da. Hortik erromani-koek ere *ratione*^(l)>*razón* konpondu dute: “Jainkoarren^(eu)/propter Deum^(l)/por Dios” zehaztapanetan bezala: “haren laguntza izatearren^(eu)/propter auxilium ejus consequendum^(l)/para/por conseguirla su ayuda”. ZEREN/ZERREN galdegaiak eta hari emandako erantzunak arketipo beretzuekin jokaten dute: “ZEREN^(eu)?/quare^(l)?/-¿por qué?” eta erantziunean: “zeren/zerren gaizkileak gorroto dituen^(eu)/quare odio habet inimicos^(l)”, “gorroto dituelako (*arrazioagatik*)^(eu)/propterea (ratione) quod^(l) odio habet.../por que/en razón de que aborrece a los enemigos”¹⁴.


Teologiazkoetan arrazio bidea Jainkoa da eta halakoetan esan ohi da “Jainkoarren” edo “Jainkoaren amoriarren”¹⁵. Hortik sortu da *ra.mu*^(e)/*amo.re*^{(eu)(l)} arketipoen saltoaz edo itzuleztara egin irakurketaz eta “*amoreagatik*/por amor>*mor*” arrazio bidea erakusteko ohitura.

Erraren ara/aria doa “zeren^(eu)/qua re>quare^(l)>car^(l) lokarrietan eta orobat *per*, *por*, *propter* preposizioetan. Arrazioak bilduz, epaia ematen denean ere *ergu*^(e), *ergo*^(l), *beraz*^(eu) lotura konposatuez josten da: “erabagia da, beraz ixilik^(eu)/decretum est, tace ergo^(l)”, etab.

14 “Gorroto dituelako” forman (*arrazioagatik*) itzuriten da, latinak “proter ea (ratione)” esakeran bezala, eta forma osatua pleonasmu litzateke.

15 *Ra-mu*^(e) “Erraganako maite lehialtasuna” egitologoen arauz. Euskarak ere *Erra+mu*^(eu) “Erragazko otoi, edo hitzarmen” ulertzen du eta *erramu*^(eu) edo ereinotza erakusten du sinbolotzat halako eleizkizunetan.

Haldi Urartun aldien eta landaretza-
ren jainkesa oin bata idi lepondoan eta
bestea golderen ganean daukala, ba-
taren *oldea golde* gizatzen, *Aldi/Kal-
di>Haldi* formetan ere gertatzen de-
nez. Lanabesaren izenak ere, arketipoz
arketipo, *nabas, exa, are, golde*, etab.
izanik, laborantzak jainkoen laguntza
eskatzen du gaurdaino, *solo, erri, lan*
erein lurretan bezala. *Idiak* lurra *idiki/-
edeki* egiten du eta *ildoa* gertu, hazia
emankor izan daiten. *Haldi* jainkosak
landatu egiten ditu *landare aldaxkak*
alde batean eta besteean *aldaizetik*
edo *lehortetik* babesa *loru leraz*-edo,
lan lurra *alor* berezietan banantzen
duela *aldiko aldiari* eta *lekuari* begira.
Laborantza ere Jainkoari *aldiaka* eta
lanabesari *helduaz* burutzen bai-da.



Elburua *-tearren* markatzen du: “gora *igotearren* abiatu da”, eta amoregitekoa *-narren*: “berandu *denarren*, ba zatoz”, “neuk *deitua-
rren*, ez dator”. Osterako esaldietan *ostera, ordea*⁽⁶⁾, *sed contra*⁽⁷⁾/*por
contra* konjuzioak erabilten dira: “Ez esan holarik, onartu ezak,
ordea, bozketa/No digas eso, *por contra*, *accepta el resultado*”¹⁶.

7.5.4. *Ilu aditizenduen joskeran*

Euskarak *Ilu/Al/ahul* aldikadez ezagutzen du arketipo hau: haga-
tik ahaldun eta baldintzako esaldiak gidatzeko egokiena da: “Ahal
batek ezin *âl>ahal* du borrokan egin (1. 6 I 50)¹⁷, “hire burua ulzi
ahal dut/*ahal* dezaket (1.3 V 24). Latinak ahaldun berezia du¹⁸.

16 Ohartzeko dira *Utu/Erra* arketipoak *ostera/ordea/contra* for-
metan, nahiz eta ordena ezberdinean. Hortik *otx, oste/ostia, ostera>ostra*
oihuzkoek ere halako kontrajartzeetan.

17 Ilu jainkoaren aldikadak lurrarenak eurak dira: uda, negu, eu-
rite, legorte, ereite, uztaite, etab. Ikus DEL OLMO LETE, G., *Mitos y Leyendas
de Canaán*. (MLC) Handiko esakerak dira jarraikoak

18 Erromatarrek *ote* “galgarau zerrenda” oskol, bizar eta guzti>

Oihuzkoetan, *ale!* da ekintzara deitzen diguna edo “bai *ahal*”, “etorriko *al* da!”, opatzekoetan edo “*ahal* dela”, moduzkoetan eta ZER kasodunekin, *-la* atzizkira: “ez dezala jakin”.

Baldintzak *ahal* izatea edo *aldeko aldia* irauli egiten du, *âl/ba+al* bihurtzen duena, *Haldi* lurtar jainkesaren arabera, *alde*-ko dena *ahulduz* (Ikus 127 or.): “*Baldin* Motuk (legorteak) ezpain bata lurrean jar *baleza*...” (1.5. II 2) halanik, *Âl* jainkoa *Ba.al* bihurtzen, hirugarren pertsonaraino seinalatua: *ahal baleza/ez lei*”, etab.

Aldi eta erabat moduzko esaldiak *-la* atzizkia daroe: “Jainkoek jan eta edanala” (1.6. III 12) edo *Noiz* markatzen “kaletik etorri-*la/al* venir por la calle”, etab. Gonbaratzekoetan *lez, legez, bezala*^(eu)/*tali modo*^(l)/*tal* konposatuak erabilten dira: “den *bezala/lez/tal* como es”, “*halatan*^(eu)/*tali modo*^(l)/*de tal modo*”. “*Nolatan* heltzen *direla* Gapnu eta Ugaru (1.3 III 36), “*hala biz*=“*hala bedi/tal sea/tal así sea*”, etab. Osterakoa ere konpontzen du: “*Halabaina, ez du etxolarik*” (1.4. I 9).¹⁹

7.5.5. *Ka aditzizenduen joskeran*

Euskaraz erlatibo edo bereizgarri soila *-(e)ko* atzizkiaz lortzen da: “*nik egineko lana*^(eu)/*opus quod feci*^(l)/*el trabajo que* he hecho”. Latinak eta erromanikoek euskararen eredu jarraitzen dute, baina bereizgarria tokiz aldatuaz. Forma konposatuak euskaraz *-koan, -neko, -lako, -lakoan, dako, -dakoan, -tako, -dako* zertzelada guztiekin azaltzeko dira eta latinak *qui/quae/quod, quale*^(l), *cum, quando*^(l), *quoniam, donec*, etab. konjuntzio bihurtzen ditu era erromanikoak *que, cual, quel*^(l), *como, en cuanto, cuando, quand*^(l), etab. Ahozko edo leterazko literaturak *-ko* erlatiboa itzuriteko ohitura du, hala “*mendiko behiak*>*mendi behiak*” esakeretan soiltzen diren bezala. Beraz, “*nik egineko lanak*>*nik egin lana*” bihur dai-

>hartu zuten guda lerro sinbolotzat. *Ote/bote/boti* gizatzen da “auzoa, erkide erneak” adierazteko. Halatan, “*bazkide, boti izan*”>*pote esse*^(l) “*poder*” forma berekotu zuten “*possum*^(l)/*ahal dut/egin dezaket*” adierazteko aditza ere. Beste arketiporik ezean, on da galgarauaren egituratik ahala analogizatzea.

19

Ugaritu uriko errege izan *ahal* izateko, *Ba.al* “jaunak” etxea behar zuan, haraz gero, etxea bai-zan herriaren duintasun eta santutasun gordailu.



Baal/Balu eroia eskuman *mailukia* duela eta *ilungia* ezkerrean Ugarituko oroitharrian agertzen den lez. *Ilu* jainkoak *liskarrera* oldartzen du *Balu*, *mailuki*^(eu)/*mlk*^(a), *melek*^h “errege” izan dadin: “harzak astamakila eta mailukia” (*Lucha entre Balu y Yammu*, 1.1 III 10) Aztamakilerako *ilungia* asmatzen dio “zurezko eta harrizko segetetua (...) zeruak *lurrari* xurxulatua” (*Ibi.*, 30). *Mailuki*>*melek* errege sinboloa da, alkate *txuzo*>*juzo* den bezala”. *Ilungia* edo oinaztarria jainkoek zigortzat zerutik lurrera jaurtin geziak dira. Geziak aztaren kinean harria du, arma zurigarria gerta dadin. Horra *Inu*+*azta*+*harria*>*oinaztarria*, *Iluk* Baluri asmatu arma. Haraz gero, *Ilu* arketipoa *l* makilatoak edo haztak ordezkatzten du leteran.

teke. “Nik egin lana ez da zuk idatzia” formak latinaren *pasiva*/-*jasana* berdintzen du: “opus factum per me non est scriptum per te/el trabajo hecho por mí no ha sido escrito por tí”, eta halatan *ko*, *-dako*^(eu), *que*, *quod*^(l) bereizgarriak ezabatu egiten daitezke, bai euskaran eta bai erromanikoetan.

Forma konposatuetan *-lako* atzizkiak aditzkera pertsonatuak ere atzizkira moldatzen ditu edozein zertzeladako direla: ZER kasora “etorri *zelako* ustetan/pensando (*de*) *que* venía”; ZELAKO zehazten: “jan *zuelako* susmoa/la sospecha *de que* había comido”, etab.; ZERREN kasora: “esan *zuelako* arrazioz/en razón *de que* lo dijo”, edo soilduz: “esan *zuelako*z/esan *zuelako*/porque lo dijo”, etab.

Ka arketipoak, *Utu*/*hauta* hizkunea bere *kauta*>*kausa* biurtzen eta *kauta*>-*gaiti*^(eu) egokitzen du²⁰ eta, *Erra*/*aria*, berriz, *karia*^(eu)>-*quare*^(l)>*car*^(l), *cur*^(l) bihurtzen dituzte erromanikoek, edo *quia*, *ca*, *quod*^(l) soiltzen: Zergaiti?^(eu)/*qua de causa*^(l)/*a causa de qué*” --“Esana ez egitegaiti/*causa* inoboedientiae^(l)/*quia* non oboedivit^(l)/*ca* (por *que*) no obedeció/*quia* non oboedivit^(l)/*ca* (por

20

Forma hau berez *-gaiti* izanarren, ZERIK kasora galderatik harako: Zergaitik? --Etorri denagaitik...formara ere moldatzen da.

que) no obedeció”, etab. Orobat, “zeren *kariaz*^(eu)/*qua.re*^(l)>*quare*^(l)/¿por qué?”, etab.

Aldizko perpausak *-neko*, *-nerako*, *quando*, para *quando* lokarrietara egokitzen dira: “etorri *zeneko*/para *quando vino*”, “etor daiteneko^(eu)/*donec* veniat^(l)/para *quando venga*”, “etortzen denekoan^(eu)/*cum* venerit^(l)/*quando* viniere”. Moduzko aldiak *-nez gero*>*-nezker*o, *como*, ya *que*, *luego que* konposiziora azaltzen dira: “goiztiar etorri *zenez gero/como vino temprano*”, etab.

ZEIN kasoa *-en* eta NONGO kasoa *-ko* egitura ezberdinak izanarren, laburdura soilera datoz biak: “kaleen izeneak>kale izenak/kaleko umeak>kale umeak. Erderak ez ditu bereizten, euskarak, ordea, bakarka “jan duen sagarra/la mazana *que* ha comido”, zein *-neko* konposizioan erabilten ditu aldiaren zehaztasunerako: “jan *zueneko* ordua/hora *in qua* manducavit^(l)/la hora *en que* comió”, etab. ZELAKO kasoa ere berdin: “jan *zuelako* susmoa dauka>jan *zuelakoa* dauka”. Nabaria da, bestalde, latinak eta erromanikoek euskarari egiten dioten jarraipena.

7.5.6. Ba aditzizenduen joskeran

